

KOLDO IZAGIRRE

Ez duk erraza, konpai!

 **S** narratiba
Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 1995 Koldo Izagirre

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 1995eko ekaina

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

Espainiako hiriburuko aireportuan Habanarako txartela hartzeko gaudela, *bidaiari zaildua* hasi zait hizketan, nola ez, aholkuzale, nazioarteko eremuan gauden guztiok gaztelania jakin behar bagenu bezala.

- Barka, baina, nahi duzu kandado pare bat? Soberan ekarri ditut, badaezpada.

Eskua sakeletik atera eta erakutsi dizkit. Itsu-lapikoak lotzekoak ematen dute.

- Ez, ez dut behar! Eskerrik asko.

- Baina... horrela sartu behar dituzu mailetak?

- Bai.

- Non zoaz, Iberian edo Cubanen?

- Ez dut Iberia inoiz hartzen! British, Savena, KLM, Euskal Air...!

Gezurretan ari naizela uste du, ez dut berehala isilaraziko. Bidaiari zaildua *istripuaren zain dagoen salbatzaile frustratua* bilakatu zait:

- Jakin behar zenuke, *kubatarrekin* bidaiatutakoan gauzak desagertu egiten direla mailetatarik!

- Berdin zait egia izanda ere, baina ez da egia!

Ez dakit zer arraio dakarren bixar honek Kubarara, nik behintzat ebatsigaia besterik ez dakart: dilistak, garbantzuak, espagetiak, xaboiak, txanpuak... eta ebats diezazkidaten dakartzat. Kainabera ez, kainabera eskuan dakart. Hau ezin dut galdu.

- Ez dituzu kremlera horiek kandadoz lotu nahi?

- Ez, Kubarako ez, Espainian barrena ibili behar banu bai!

Isildu da memento bat. Baina bihozbera da, atzekoari lotu zaio nik ongi entzuteko moduan:

- Kuban, gainera, telefono konferentzia bat eskatzen duzunean, itxaroteko esaten dizute, eta tresna belarrian zain zaudela, beraiek profitatzen dute Miamin dauzkaten lehengusu guztiekin hitz egiteko, eta zure deian kargatzen dute!

Menturaz ez da mutil txarra, kupitu naiz. Gaizki egiten omen dut hain zamaturik bidaiatzen. Fakturatu ditugu maleta giltzatuak maleta lotugabeekin batera eta nazioarteko transitora abiatu gara.

- Entzun duzu irratia?

- Ez...

- Orduan, ez dakizu?

Orain berriz *mundu guztiak jakin beharreko sekretuen jabea* bilakatu zait:

- Fidel hil da!

Hil beharko du noizbait. Baina ez diot sinesten. Fidel inoiz hilen ez diren hiletakoa izanen dela beti, esan behar nioke.

- Ea matxinadaren erdian erortzen garen!
Zein hoteletara zoaz?

- Jauna... Ni, Kuban, ez noa hoteletara!

Nire harrokeria salatzeke jo du alarmak. Utzi ditut giltzak apaltxoan eta berriz pasa naiz detektagailupetik. Sentibera da alarma hau.

- Pastilarik edo? Enbase metalizatuak saltarazi egiten du.

Utzi ditut Aneurol pilula lasaigarriak. Baina hirugarrenez saltatu du alarmak.

- Zer da hau?

Ez al duk ikusten, kainabera bat. Ez dut ezkutatatu gainera, eskuan nekarrela heldu naiz. Kendu dit, eta detektagailupean ipini du. Baiki, nire tresna hau zen alarma jotzen zuena. Irri egin

dute orain hedexurien antzeko kapeluak dar-
matzaten txapelokerrek.

- Tiburoi guti harrapatuko duzu honekin!

Irriantza egin dut nik ere, eta kendu egin diet
kainabera. Jostailu bat ematen du bere plastikoz-
ko prezintoan.

Hemingway txipi bat naiz Kubara abian.

Motoreak martxan daude, gerrikoak lotuak dauzkagu, inork ez du erretzen. Baina ez gara abiatzen. Egia izan behar du Fidel hil dela, Kubako aireportuak itxiak egonen dira, inbasio saio-
ren bat esperoko dute... Urduritzen hasiak dira bidaiari gehienak, eta haien marmarrek benetan urduri jarri naute ni. Aneurol. Bigarren pilula hartu dut, eta mesedez *kubalibre* bat. Ez daukat inor aldamenekoan, eta hainbestean. Luze egon behar izan dugu zain. Azkenik eskailera hurbildu dute, irten egin beharko dugu. Ez. Autobus txipi bat hurbildu da eskaileraraino, eta beltz talde bat hegazkineratu zaigu antxintxika *business* klasean. Kotxezainak zartailua astindu du. Zal-diak hegan abia daitezten baino lehen godaleta hustuta leihatilaren estalkia jaitsi dut. Ipinuak dut kainabera aulkiaren kontra gozo, minik har ez dezan, eta bidaiari zaildua banintz bezala ego-kiera aurkitu diot buruari. Badator, badator *ilun-pea*, kubatar izorratu bat naiz argirik ezak ohera behartua...

- Ongi egin duzula lo...!

- Oso ongi!

Lehen ez zegoen nire ondoan, erretzaileetarik hona ihes egina izanen da. Auzo hau kubatarra dudan arren, bere txokoan zutik eta osorik eta neure dirau kainaberak. Filmeak amaitu dira eta orain gure bidaiaren koordenadak ageri dira pantailan. Bahamak gainean gaude, hamabi mila metrora, bederatziehun kilometro orduko eta berrogei gradu zeropean. Leihatilaren estalkia jaso dut. Egia da pantailak dioena: izotza gogortua dago nire aldeko hegalean, arrezife luze bat utzi dugu atzean, eta oso goitik goaz noski itsasontzia hain txipia ikusteko urdinaren erdian, uste dut *Biscay Pride* dela, Lesakan eginiko T bikoitzak bere Nassauko portura garraio Pasaiatikainen.

Munduko zazpi putzuak
ez dira beti ur bera
munduko putzu gaziak
ez dira inoiz ur bera
gu garamatzan ontziak sarri
gorria dakar ubera

Benetako *ilunpea* izan dut, kubatarrok sortzen duten builarekin aspaldi xamar behar nuen itzarririk eta. Medikuak dira denak, eta amorratzen daude Kubako lurra berriz zapaltzeko, Mozambiken, Angolan eta Saharan hamabost hila-bete eman ondoren.

- Entzun duzu Fidelena?

- Bai, entzun dut zerbait, gezurra noski...

- Ez dakit, ez dakit...

El País luzatuta atzamarraz erakusten dit irakurri behar dudana. Solana jaunak, Espainiako Atzerri ministroak dio, ezin duela Fidelen heriotza segurtatu baina bai esaten ahal duela Kuban zer edo zer sakona gertatu dela.

- Ez sinetsi.

Nondarra naizen galdetu dit.

- Jende suharra! Nikaraguan ezagutu nituen nik euskaldunak!

- Zer urtetan?

Barre egin dit, barre txipia egin dit.

- *Kandelaren garaian.*

- Osasungintzan zenbiltzan han ere, noski?

Barre txipia ostera, ongi ulertzen dugu elkar:

- Noski!

Bere helbidea idazten du niri kenduriko orri batean. Etxera joateko. Habanarra da. Hegazkina altuera galtzen hasia da eta estalkia jaitsi dut. Egunkaria eskatu diot medikuari, urduri jartzen naute abiadura aldaketek eta beherantzako jautziek. Gerrikoak lotzeko, ez erretzeko. Kankateko bat, kurpilak atera ditu. Ez ditut begiak egunkaririk jasoko, ezin dut irakurri baina. Jendea zortua dago lurrera beha, aluak! Medikua ere urduri dago.

- Ametsa bezala da, etxean berriz...

- Entzun mesedez, bidaiari jaun-andreok...

Tximeletak nabaritu ditut nik ere sabelean, orain Fidel hil dela jarriko didate gaia, eta mutu geldituko naiz.

- ...bi geldialdi izanen ditugu Habanako aireportuan.

Burutik egin zaie. Zaldiak askatu beharko dituzte lehenik, edo auskalo. Ez dago gauza onik, hegazkin jatorrek ez dituzte bi geldialdi egiten aireportu berean.

- Aurreneko geldialdian gurekin etorria den Zanziako lehendakaria, Frédéric Txiluba jauna,

jaitsiko da. Bigarreanean gainontzeko bidaiariak jaitsiko zarete. Arren eskatzen dizuegu lasai itxarroteko ateak denentzat ireki arte.

Gelditu baino lehen askatu dituzte gerrikoak bidaiariak, gure alderantz datoz begiak irten beharrean, zaldia pentzura baino zoroago.

- Fidel da, Fidel da...

Leihatilaren estalkia jaso dut. *Ongietorri Frédéric Txiluba laguna* dioen pankarta handi baten pean soldadu andanak ageri dira apain jantzian. Banda jotzen ari da. Eta hementxe, *neure leihatilapean*, Fidel Castro, Fidel, Bizarduna, Buruzagia daukat zain eskaileraren ondoan! Madrilen hiru ordu-laurden berantetsi gaituen beltz taldea jaitsi da. Jantziak aldatuak dituzte gehienek, militarrez ageri dira orain. Makurtu behar izan du Fidelek Frédéric besarkatzeko. Haren bizar zurietan galdu da afrikarraren burua, ia erori zaio kapelu dotorea. Argazkiak tira ahala egiten ari dira bidaiariak gure aldeko leihatiletan metatuak. Ongi babestu dut neure kainabera.

- Esan nizun ez sinesteko.

Hunkitua dago nire ondoko medikua. Hunkitua eta lasai, Fidel sobera ikusia lukeenaren ja-

kinduriaren jabe, Fidel izeneko palmondo bitxi bat erakutsiko balit bezala, turismogai. Harro, funtsean, poza emateaz europar Kubaldekoei. Harrera ofiziala luzatu egin da. Iluntzen ari du.

Fidetsunak (Aurrerapena) Fidel

Fidelek existitzen dizu, Fidel bizi duzu, Fidel osasun oneko palmondoa duzu. Maite dizu lagunak besarkatzea bizarrarekin sudurrean kilimak egiteko. Niri ongi etorria ematera heldu duzu aireportura! Komandante buruzagia, zeure aginduetara!, esan diot.

Sakon egin dut lo, gaueko hamabi t'erdietan hoteleko beste gela batera hots egin nahi omen zuen telefono dei batek zurrunga hautsi didan arren. Ahotsa, noski, femeninoa zen, eta nik, noski, inozoarena egin dut. Goizeko bostetan kurruku batek jo du Habana erdian. Bost eta erdietan *guaguak* eta kamioiak hasi dira puzkerka. Seietarako zutik dago Habana guztia: multzoak garraioen zain, gurasoak bizikletan bi eta hiru umerekin eskolarantz, zaborketariak, militarrek, *guajiroak* beren produktuak eskaintzen... Herri oso bat zutik goizeko seietan! Eta denek dute zer edo zer egiteko! Garestita izan behar duela hamaka milioi inurri mantentzea! Ibilalditxo bat egin dut gosaldutik aurretik europarrek Kuba erdia, tiburoien adiskidantza nahiago beste Kuba erdiarena baino, itsasora murgil egiten uste duten malekoiraino. Maite izaten dut egun batzuk *turistaz* ibiltzea noraezean, lagunetara baino lehen: Kuban nagon berriz...! Kuba gabe mundua tristeagoa izanen zunan. Ni behintzat bai, B. *Iraul-*

tzak ez din amore emanen, iraultza ez dun salduko! Hemen bakarrik irakurtzen ahal ditinat jada horrelakoak, nire herrian inor ez dun ausartzen iraultza ahotan hartzen orain! Baiki, *turistak* bilakatu gaitun, B.

Espainiako enbaxadari beha gelditu naiz. Espainiakoa da enbaxaden eremuan ez dagoen bakarra. Errusiakoa bera ere nazioarteko eremuan dago, erraldoiena izanik ere. Espainiakoa ez, Espainiakoa Habanaren erdian dago, gotor, eder, *Morroan* haizeak harrotzen duen Kubako banderari berea erakutsiz, mehatxu bat bezala. Probokazio bat, eta ez dut zuzenduko. Dei egin dit ateondoko poliziak.

- Espainola zara?

- Bai... ez!

Ze arraio, hor konpon! Ez dut zertan diplomatikoa izan behar!

- Euskalduna naiz!

Zorrotz behatu dit. Erregu bat irriñoarekin batera:

- Burkide, ez iezadazula problemarik sor!

Ulertuarena egin diot, ulertu diot, oso ongi ulertu diot. Euskaldun bat naiz Kuban, eta maite

nautenez babestua eta bakeoso nahi naute. Adio esanez itzulera hartu dut kolonia garaiko izen ospetsuenetakoa zen Zulueta karrikatik gora. Hotelaren sarreran Nicolas Estevánez, uharteko gobernadore ohiaren omenezko oroitarri bat agerida, boluntarioek zortzi ikasle fusilatu zituztenean bere kargua bertan behera utzi zuela eta: *Aberriaren aurretik daude gizatasuna eta ohorea*. Ados nago gobernadore espainiarrarekin, abertzale bezala ados besterik ezin ninteke egon. Eta adostu nahi nuke aberriaren aurretik gizatasuna eta ohorea ipintzen dituzten espainiarrekin.

Dutxak ez du euskarririk.

Ile-lehorgailua ez dabil.

TBa ezin da biztu.

Lanpara nagusiek ez dute argi ematen.

Komuna zomorro korrikari batzuek hartua ditate.

Nazkagarria ote da hau guztia? Hautsak mendeetako noblezia du, eta armiarmak ere eskubidea dauka ehiza egiteko... Halakoak esan baldin bazituen Victor Hugok nire herrian eskaini zioten gela ikusitakoan, zer ez diot nik onartuko Kubari! Maletak kandadotu gabe etortzen naiz, eta

bihotza ere zabalik ekarri ohi dut. Badago ura, oihalak garbiak daude! Koadernoak zabaldu dit, baina ez da deus heldu, eta Madrilgo Plaza del Sol-eko Paris hoteleko gela bat irekitzean male-tariak esan zidana etorri zait gogora:

- Jauna, Ruben Dariok egin zuen lo gaur zuk egin behar duzun honetan!

Ez zeukan oroigarrik gelak. Zabaldu nuen koadernoak eta zain gelditu nintzen, egun bezala. Orduan ere ez zen deus heldu. Poztu nintzen egia esan, ez bainuen ezer onik lortuko Darioren izpiritua lagun. Modernismoaren iruditeriak okitu egiten nau, Silvio Rodriguezen zenbait kantak edo Martíren *Versos Sencillos* ez diren guztiek bezala. Bietan ere biluztasuna maite dut, ez unikornioak eta izar urdinak...! UJCkoek ere, Gazte Komunisten Batasunekoek, literatura zuzena behar dute, eta hala kopiatu diote Silviori Veda-do karrikako hasierako pareta luzean: *Herri libre batean bizi naiz, une honetan libre izan litekeen neurrian libre, eta zoriontsua naiz.*

Itxi dut koadernoak beraz, eta ustekabean aulki gainean dagoen kainaberak lotu dit beha-koa. Zortzi t'erdia dira, lantegietara helduak

dira honezkero Kubako langileak. Telefonoa deseskegi dut. Buruz dakidan Lorategi Botanikoa-rena zenbakitu dut, prefijorik gabe aspaldiko partez. Poztu dira bertan nagoela esan diedanean.

B. ez omen dago bulegoan orain.

Londresen badu Hyde Park, Parisen badu Bois de Boulogne, Madrilan badu El Parque del Retiro, eta Habanako badu Lenin Parkea. Hemen daude Zooa, Lorategi Botanikoa, Expocuba eta Leninen beraren monumentua, Otxarkoagakoarekin batera munduan geldituko den bakarretakoa. Cheren ideia izan omen zen parke hau egitea. Bertara zihoan tren txipia ez dabil, eta aintzira gaineko antzezleku mugikorra herdoilak jana dago. Hala ere, ez Londresen ez Parisen ez Madrilan izanen dute inoiz halako parke zabal, dotore, zaindu eta librerik. Ikusgarriak dira igandeetan bazterrok, gazteak zaldian ikasten, umeak *pilota jokatzen*, familia osoak zuhaitz zoragarrien orporetan bazkaltzen, bikoteak europar lotsatiak bezala zoko gozoen okupa egiten. Ez Londresen, ez Parisen, ez Madrilan izanen dute inoiz Lenin Parkea bezalakorik, B. bat ez daukatelako nire zain: dolar bat gehiago eman diot sasiko taxiari, doala, utz nazala, suntsi dadila, gainera baitatorkit bizikletan eskua inarroska, eta laster hasiko

zait, ohi duen bezala, mattezko berbetan oihuz, eta lotsatuko nau.

- ...Txitxarea, hemen haiz! Kapitalista zerria! Hik ez daukak *egoera berezirik!* Euskaldun inpotentea! Zapaltzailea! Ni ez nauk nolana erosiko...! *Txinito! Kandanga!*

Isilik dator ordea. Baldin bizikleta hartan datorrena B. bada. Oihuka hasi behar luke jada. Ez da B., L. da. Badugu zer edo zer. L. da, bai, B.ren lankide bat.

- Euskalduna!

Bostekoa luzatzen dit bizikleta guztiz gelditu baino lehen.

- Kaixo, L.! Zer moduz!

Bizkarrean jo naute arin. *Gurdiduna* da, oraindik aldegin gabea, kainabera eskaintzen didala leihatilatik.

- Barruan ahantzi zaizu...

Ez dut hartu ahal izan, L.k kendu dio eskutik neuk hartu ahal dezadan baino lehen.

- Ekarri diok...! Poztuko duk etortzen denean!

- Mendian zebilek berriz?

- Boluntarioak eskatu ditiztek, badakik nolako den B...

- Noizbait!

- Nola noizbait!

- Noizbait ordaindu behar zioan zergatxo

Iraultzari... Eta hik, noiz?

Ongi iruditzen zait Alderdikoa izateak, presiopean bada ere, zerga gogor xamar bat izan dezan. Baina seriestu egin zait L.

- Atzo bertan joan huen, Camaguey-n zeukak basea.

Labana bihotzean. Titulu txarra poema baterako. Baina labana nonbait hemen barruan.

- Baina...

- Abenduan etorriko omen hintzen...

- Aukera eman zidatean, kronika batzuen truke bidaia ordaindua...

- *Zafra* hasia duk... Zergatik ez huen deitu etorri baino lehen!

- Zer? B. *zafran* dagoela?

Poema bat dun hauxe, ni honaino etorri (kainabera batekin, izorrai!) eta hi baho *zafra*. Hondatuko zaizkin eskutxo lizun horiek. Eta ni zimeldu egingen naun.

- Zorro bat utzi zidak apunteekin hiretzat! Ez duk liburutegietarik irteten, zoratua daukak neska hori, euskalduna!

Apunte bila etorri ote naiz ba? Fidel, burkide, neska horrek ezin du *zafrara* joan, ikusi behar zuen lehen kainabera artifiziala da, Taiwanen egina eta Europatik ekarria... Fidel, neska hori intelektual bat bilakatu dut, ez daki matxeteari heltzen, ez du gauza onik eginen, liburuak irakurri behar ditugu elkarrekin, arrantzan irakatsi behar diot...

- Noiz arte gelditu behar duk?

- Ez zekiat... Ez diat presarik.

- Etxeko giltza, to!

- Ez...

- Euskalduna, ezagutzen duk B., haserretu eginen duk, eta nirekin ere bai!

- Esaiok eman didaala...

- Baina auzoek, CDRkoek... denek esanen ziotek ez haizela etxean egon.

- Badakik, *konpai*, euskaldunak hitza hitz: ez!

Irriño maltzur bat marrastu zaio L.ri, gizonezkoek ongi ulertzen dugu elkar Kuban...

- Hotelera, e?

- Hain zuzen!

- Hobe duk B.k ez jakitea, burkide! Begizkoa egingen dik!

Gezurretan ari naun, ez naun hotelean geldituko, ez behintzat saio bat egin gabe... Baina nahi niken Habanako hoteletan nabilela pentsa dezanan... Ezagutzen haunat, B.

- Hator Zentrora, lagunak hire zain zeudek!

Urteak ziren ez nintzela bizikleta baten parri-lan jesartzen.

Fideltasunak I Bizian bizi

Pekin ematen dizu, edo Vietnam, esantzarik ga-
beko Kuba honek. Txirrindek, tirripitek eta bizi-
kletek (desberdinak balira bezala aipatzen dizki-
zut, eta benaz uste dizut ez daudela berdinak
diren kurpilbiko bi hemen) hartuak dizkizute ka-
rrika guztiak, bizikleta erlojua baino zerbait pre-
ziatuagoa duzu, poliziak ezinbestekoa baitu bere
lana egiteko (Lohizuneko jandarmak dirudite), zi-
nemagilea ere bizikletan doakizu ICAICera, eta
denak ere halako balet ederrean, *txori sirindan-
goak bezala*, ezen bizikleta baita Kubako autoen
fauna zoragarri eta basatia (Impala, Buick, Chev-
rolet, Argentinako Fiat, Ford, Daihatsu, Mosko-
bix...) hezi duen zartailu zaulia (baita hemen be-
rraurkitu dituzun zure haurtzaroko goitibeherak
ere, giza-tirako garraiotresna bilakaturik, maka-
damaren gaineko lerak janariz, edariz edo altza-
riz zamatuak!). Bizidunak dituzu bizikletak, zaku-
rarak zurean baino areago, eta bizidunei dagokie-

nez, eskubideak murrizten hasi zaizkie taber-
tan edo okulisten kontsultetan:

Debekatua dute bizikletek
barrura sartzea

Egun abangoardiako poema bat egin nahi duenak, mekanikagintza laudatu nahi duenak, bizikleta dizu gaia Kuban, oda bat eskainiko ziokeen egun Maiakovskik bizikletari, eta ez Lada autoari edo Kama kamioiari. Espaloikoaren eta estratakoaren arteko hibrido zoragarria duzu txirrindularia, zentauro moderno bat, mitologiaren beharrik gabe, bera baituzu jainko eta biktima aldiberean. Familia ere, etxean baino lehen, bizikleta gainean biltzen zaizu, barran ezarririko zurezko aulkitxoan alaba, aita pedalei eragiten eta atzean ama... besoetan daramanari titia ematen! Eta Salvat-Papasseitek Bartzelonako tranbian moldatu zuen poemaren antzekoa egin dezakezu zuk Vedadoko 15 eta H-an:

*Jaio berria bularra bera baino txipiagoa da
txipiagoa eta beltzagoa:*

- O bat ematen du

jolasean irribarrez

Eta irribarre egiten duzue oinezkook estampa ikusirik (esnea zuriago haragi beltzean), eta kubatarrak diren oinezkoek ez dizute piroporik bota gabe pasatzen uzten (*Gozo hoala hi, beltzarana!, Ai nire amak hala hazi banindu!*), eta aitak ere harrobarre egiten du. Bizikletak ezinezkoa zirudiena lortu du, hau da, habanatarren arteko harreman publiko sarriak areagoatzea, oinezkoek ibilgailudunekin luze hitz egin ahal izan diezazuten, txirrindulari bakartiek *botila egiten* duten neska ederren heldua soma dezaten gerrian, *pontxeretan* adiskidantza berriak egin ahal izan daitezen, bizikletak zaintzen dizkizuten espaloiondoko etxeetan neska-mutilek elkar musuka dezaten baso bat ur estakuru... Bizikletekin, auzune handi bat izateko behar zuen huraxe irabazi dizu Habanak eta, esanen nizuke, Kuba osoak.

- Espainola?

Bizikletatik bertatik, oreka zailak eginez neure pausoari egokitzeko.

- Ez!

Espainola zaren galderari ez biribil batekin erantzuten badiozu Kuban, berehala entzunen duzu:

- Euskalduna!
- Bai.
- Gora Euskadi Askatuta!

Ondoan jarriko zaizu, pausoak hartuko dizkiuzu, eta liburu erostera zoazenez, oso proposamen egokia egingen dizu:

- Erosiko ditut nik pesotan, zuretzat merkeago askozaz ere, eta gero emaidazu zuk irizten diozuna, mesedeagatik.

Dolarretan ere aski merkeak dituzu liburuak Kuban liburudenda ofizialetan. Karriketako eta atarietako eskaintza berriz lotsagarri merkeak duzu... Ez nauk merkezurkerian etorria, *konpai*, dolarretan ordainduko diat paper alfabetatua. Eta gainera kentzearren, ikara dadin, internazionalista zarela esan behar diozu. Kubatarrak azken hitza bere:

- A, bai? Eta non konbatitu duk? Angolan?

Kontuz ibili behar duzu ezkertiar horrek eta are kontuzago iraultzaile europar horrek Kuban, han egite gogorretan neurtzen edo ulertzen bai-

tizute nazioartekotasuna. Adarra jo dizu beltz honek, eta egoki... Ez duzu lanera tenoreko inoiz iritsiko, baina pronto zeneukake Angolarako, bertan egona ez baduzu. Mediku, *noski*.

Walkmana erosezina zaienez oraindik ere hitza maite dizuten gaztetxo hauekin jardunez ohartzen zara Errealismo Miragarria ez dagoela, Alejo Carpentier-en lehen irakurketa batean iduri lukeen gisan, historian edo oihanean edo arki-tekturan, jendeetan baino, eguneroko solasean, hemengo amalgama politikoan, azpijoko ekonomikoan, Miamirekiko maite-gorrotoan, sinpatian, agurretan, diosaletan... Zein zuzendarik hartuko luke zeluloidean hemen dagoen behako jokoak? Zein soinularik hemengo piropo, adar-jotze eta barro etengabea?

- Egon zinen hemen istiluak izan zirenean?

- Ez... Zu bai, noski?

- Ni bai... Kristal batzuk apurtu nituen, baina gero enteratu nintzenean itsasontziko goardia bat hil zutela, *gusanera* zapaltzen jardun nuen.

Ez, ez zenuke pentsatu behar gezurretan ari dela, horixe baituzu miragarriena, gobernuaren kontrako manifiesto zebiltzanetarik bi ere ez zitue-

la arrazoi berak bilduko, eta *kontrak* ote ziren galdetuz gero ezetz esanen zizuketela izututa.

- Ikusi behar zenuen, zoragarria izan zen...

- Zoragarria?

- Fidel azaldu zenean...

- Bai, ongi portatu zen, kalera jaitsi zen...

- *Gurdi* zabal ireki batean heldu zen... Sartze-ko agindu zigun, berarekin hitz egiteko.

- *Gurdian* sarrarazi zintuen Fidelek?

- Bai, sartu nintzen *Fidelen gurdian*, eta hizketan jardun genuen.

- Biek?

- Ez, denok, jendez betea zegoen *Fidelen gurdia*, egizu kontu nolako beldurra zeukaten *segurosoek!* Eta ez duzu sinetsiko baina, Fidel isilik zegoen! Entzuten! Aizu... ez duzu ron ona nahiko?

Nire iduriko, bizikleta hodei handi batek zaintzen dizu Fidel. Eta Fidelzaleetan Fidelzaleena joanen zaizu noski, benetan haserre kontrairaultzaileen aurka, egunotan harrapatu duten bizikletari berezi hori ere, ez txinarrek ez vietnamdarrek asmatu ez dizuten baliabide berri bat ematen jakin izan diona hankarteko panderoari:

Habana Club egiten den Santa Cruz del Norte lantegiko enplegatua izanik, ehundaka litro krema rona aterea zizun etxera bizikletaren koa-dro barnea *-zaldia* deritzote hemen- ontzi bila-katuta... Lantegian lapurreta egin arren, bizia emateko prest baitzenuke Fidelen alde, zeren, ironiaz ere entzunen duzun bezala *borrokarako deia beti baitago emana!*

ICAIC-era naramaten karrikotan galdu zen Maiakovski Mexiko eta New Yorkerako bidean Habanan egin zuen eskalan. Hiribarneraino heldu zen, eta Ford, Kley and Boocken hamar solairuko kluba ikusi zuen, Estatu Batuen boterearen irudia Amerikaren gainean. Haiena zen orduan, *yankiena*, Habanako erdialdea. Vedado karrika nagusiari buruz ari da noski arrosadiez eta hanka bakarraren gainean tente dauden egunsenti koloreko flamenkoez beteriko lorategiak aipu dituelarik, eta parasolpean dauden polizia zaintzen dituzten jauregiak. Egun ez dago *yankirik* jauregiotan, haien morroi beltza da orain bertako biztanlea, edo bortxatu egin zuten neskame hura... Dotorezia haustea da halako sarrerara jauntsuetan bonbila biluzi batek egitea argi? Baliteke, baina bonbila hori fluoreszentea izanik ere -zelako narda! dio estetak- jauregi pintatugabeak edertasunez hartzen dio gain dotoreziari, argi ez kolonial horren pean bizi dena, adibidez, esklabuaren iloba denean, eta ez kapa-

tazarena. Eta edertasuna da lorategiko zuhaitzen adarretan irratitari loturiko ozengailuak agertzea zintzilik. Baiki, edertasunago musika apalduko balute.

Orain baimendu dituzten merkatu txipietan begia aspertuz hurbildu naiz apurka Kubako zinemagintzaren egoitzara, liburu-saltzaileen eskaintzak entzunez eta ukatuz. Liburu bereziren bat nahi baldin badut bihar bertan ekarriko omen didate, eta uste dute ez diedala sinesten. Itzuliko naiz beste batean, ez dut zama garraio ibili nahi egun. Jo ditut begiz Ivo Andric-en lan guztiak eta Paco Urondoren poemak... eta Bohumil Hrabal-en *Zorrotz zaindutako trenak* nobelaren 1985eko edizio kubatarra! Sozialismoaren eremuan idazle isildua eta debekatua zela esana ziguten haatik...

- Kontuz ibili jauna, hemen lapur asko dago!

Zer egiten du ume batek kalean goizeko hamaketan Kuban? Piper eginda ote dabil turistei soson batzuk kentzearren? Harritu nau, baina ez diot ezer esan, aitzina egin dut.

Erreparatua nion lehendik, profitatu behar dut bakarrik nagoela bertatik bertara lasai ikus-

katzeko. Inoiz ikusi dudan On Kixoteren eskulturarik onena da, inoiz ikusiko dudan onena: burdinaz eginikoa, Rocinanteren kalparra eta isatsa ikara batean harrotuak, laztuak esanen nuke -eta zeinen ongi datorkion epiteto hau burdinari- ahoa zabalik irrintzi batean, aurreko hankak airean erasorako prest eta On Kixote gizarajoa ezpata biluzik... Antxo Gilbor ez da ageri, kuku-tua da nonbait, Miamira aldegin *mambía* ematen duen zaldun zahar honen suharrak izutua. Hurbildu naiz. Ez dut egilearen izenik ikusi, baina bai leienda bat, eta kopiatu:

Espainiakoak garelako Lorca, Machado eta Miguelenean, Espainia delako gure Pablo-ren azken eguzki behakoa, sekulan neurtu izan ez dugulako haize erroten handia eta geure orpopean sumatzen ditugulako Rocinanteren saihetsak.

Ez du Espainia osoak halako Kixote borrokari-rik, bizirik, zororik. Kixote ahul eta nekatu bat ageri da beti Espainiako eskulturagintzan, erretiran datorrena edo ihesi aldegitako ere kemenik

ez duena, Antxo zuhurra ondoan, damutuak biak. Vedadoko On Kixote honek berriz, iduri luke halako batean ezpataz ekin behar diola aurrez aurre duen Kubako Banku Nazionalaren agentziari...

ICAIC-etik hurbil, espaloi berean, purtzileriak dauzka salgai gizona gordin batek, eskuz egitakoak gehienak. Badu trebezia. Harritu naute zeluloide puskekin, bost bat fotogramen perforazioetan koloretako hariak azpi-gainka pasata sortu dituen bitxikeriek. Izpiritu gaiztoak uxatze-koak edo, *santeriako* tresnak edo amuletoak noski, filme zaharren kopia zaharrez baliatuta. Dena profitatzen da hemen, botiken anpulo hutsak sutan berotu eta belarritako zoragarriak egiten dizkizu Reyna Díaz-ek pintza xingle batzuekin Soroa izeneko herri ederrean.

Bilera batean dago ICAIC-en zain eduki behar nuen Senel Paz idazle eta gidoigilea. Idazleen Elkartean omen dago, UNEAC-en, ez oso urrun egia esan.

- Barka, burkide... Gelditzen zaizue lekurik *zafarrako*?

Zergatik behatzen ote dit horrela? Zinemagi-
leek ez dute kaina eratzaten ala? Serioztasun
handiz erantzun dit tabakotzarra ezpainetarik
kendu gabe:

- Gure brigada lehen egunean osatzen da
beti!

Arrapostu bera entzun beharko dut UNEAC-
en, ezagutzen ditut artistak. Alferrik ariko naiz
leku eske, gauza hauek ez dira horrela egiten,
kaka alu bat egiten diet nik oraintxe komite in-
ternazionalistei eta *zafrazale* guztiei. Heriotza-
mehatxu bat zirriborratu diot beraz nire kontak-
tu huts eginari amorruren amorruez. Bestek or-
dainduko din, B., neure etsipena.

Ez naiz lasai geldituko bestela, eta atzera
itzulitakoan galde egin diot saltzaileari zertarako
diren zeluloide zati apainok.

- Liburuetako orrialdeak markatzeko!

Beti eta nonahi, liburua. Liburuaren kultura
da zabalduena hemen, oraindik ez da bideoma-
nia heldu hona. Telebistak ere ez dio lekua
kendu irakurketari. Iraultzak eginiko ahaleginaz
gainera, iruditzen zait kubatarra hiztuna dela
oso, kalakaria, solasturia, tertuliazalea, eta mun-

duko gauzen gaineko halako jakinduria minimo bat behar izaten duela, *inork adarra jo ez diezaion...* Pozten naiz irakurzaletasunaren arrazoiak bastartak baldin balira ere, eta ideia bat eman dit purtzilgile jator honek, ezagutzen dudan filme txar baten kopia zertarako erabil dezakedan.

- On Kixote duzu hori, *borrokara irten zenean...!*

Borroka omen da bizitza, eta Kuban gurean baino argiago, latzago. Umeak ere dogmatizatu dauzkatela esanen lidake baten batek, ume honen argibidea entzunda.

- Emaidazu koloreko lapitz bat, *eskolarako...*

A, Kubako haurra! Lapitz bat eskatzen didak! Haatik, beltza haiz! Ez huke nonahi eskubiderik eskolarako! Ez huke nonahi eskubiderik eskatze-ko ere! Baina ez nau xamurkeriak eramanen, zakar galdetu diot, ahal dudan kubaera utzিয়েন:

- Eskolarako? Hi ba al hoa ba eskolara?

Ez dirudi nire lagun txipi honi eskolak kalte handirik egingen dionik, gezurra bota dit, ez dute berehalakoan dogmatizatuko:

- Txanda aldatua daukat, arratsaldez joaten naiz.

Jarraitu egin dit. Uste du bigunduko nauela, eskarmentua duke turistekin.

- Egia da, izebak eramanen nau eskolara!

Ez dakit lapitzik izatera emanen niokeen. Ez daukat eta lasaiago noa, umeak jarraitua. Asper-tuko haiz!

- Jauna, nahi duzu On Kixoteren istorioa kontatzea?

Gailendu haiz, bantzutu nauk, hiriko *maniguero* berria! Bai noski, jakin nahi diat zer irakurketa egiten duan hik On Kixoterena, heuk ere erroten handia neurtzen ote duan borrokara irten baino lehen, edo Rocinante gosetuaren saihetsek zirrara egiten diaten orpoetan...

- Baina boligrafoa eman behar didazu, ikusi dizut apunteak hartzean.

Emanen diat, baina jakin ezak ni ez nauala tronpatzen:

- Zenbat boligrafo dauzkazu etxean?

- Laurogeita bi... Ehun bildu nahi ditut!

- Ongi da... Konta iezadazu On Kixoteren istorioa! Konta iezadazu On Kixote *zafra* egitera joan zeneko hura!

- Ba al dakik zer esan zion katiluak kafeari?

Yolofe, kongo edo mambara izan behar du honek, ekarri berria behintzat, beltzean beltz. Bola de Nieve-ren antza du, hura pianoan bezala izerditzen da hau karriketan oinez.

- ...*Zelako beroa haizen, beltza!*

Harritu dut, gelditu egin zait, besotik heldu nau.

- Baina hi... hi ez haiz kubatarra!

- Ezta antzik ere!

- Lanean habil hemen? Guti beltzitu haiz!

Euskalduna naizela jakin duenean, honela galdetu dit, politikan ongi jantzia dagoenaren planta eginez:

- Bizkaikoa ala Euskadikoa?

Gero izena ahortzi zaion frutekin-eta egindako likore bati sua ematen ote diogun edan aurretik. Gailegoen *queimada* dela hori, eta baietz egin dit, *queimada* zela izena. Baina konturatu naiz gure *zurrapotea* izan litekeela. Ez diot esan ordea, berdin erantzunen zidakeen baietz,

hori zela ahantzia zeukan izena. Dendariak hizkuntza guztiak ikasten ditu.

Ez dit eskaintzarik egin oraino. Alderdi berdina goaz, ordubete egin du *guaguaren* zain eta oinez abiatua da. Galdetu gabe kontatzen dit bere bizitza: ama Miamin du, aita hil zenez gerortik aldegina. Angolan hila, egunik tristeena haren arropa ekarri zutenean. Arropa besterik ez, ezta bolizko hagin puta bat ere! Baina Ochoa ongi fusilatua dago, drogarekin nahasi zituen koadroak. Bera ez da Miamira joanen, uste du etorkizuna hemen bertan dagoela, turismoan. Zurgina da.

Garagardo bana hartu dugu kubatarrentzako hotel baten kafetegian. Halabehar eta, New York du izena, berritua dago. Ez dit ordaintzen uzten, dendari ona izan behar du. Bigarrena hartu dugu, merezia gainera halako bide luzea eginda. Hirugarrena ordaintzeko ere ez dut eskubiderik, eta egoskor jarri naizenez -egia esan etsita nengoen ez ordaintzera- mesede bat eskatu dit, ez beretzat noski, neskalagunarentzat. Xaboa eraman behar dio. Abiatu gara Panamericana kateak zabalduak dauzkan hipermerkatuetako ba-

tera. Jendea zain dago. Ateko goardaganaino eramán nau.

- Kazetari italiarra da, larrialdi bat.

Aitzina pasarazi gaituzte beste guztien aurretik.

Eskuko eta makinako xaboia erosi du, tamainan, abusatu gabe. Gaitzeko ilara bat dago kutxan ordaintzeko, baina kutxara narama zuzenean.

- Kazetari italiarra da, larrialdi bat.

Inor ez da kexatu ilaran. Ordaindu dut, eta irten egin gara.

- Aizak hi... Ni ez nauk horrela ibiliko!

Ez du ulertu.

- Nik ez diat onartzen turistak bertakoak baino eskubide gehiago izatea!

Algarak eman dio, titi erraldoi bat bezala mugitu zaio sabela.

- Eta zertarako ekarri haut ba? Uste duk ni hor jarriko naizela ilara horretan? Motell!

Lasaitu egin nahi nau hala ere, badu ulermena nire behakoa itzultzeko.

- Lehentasuna daukak Estatuari dolarrak uzten dizkioalako!

- Estatuari? Panamericanak ez dituk Estatuarenak!

- Tira motell, bakea!

Garagardo lata bat atera du sakeletik. Hotza dago oraino, hipermerkaturan ebatsia izan behar du. Menturaz... menturaz Kuban emakume bat galdu eta gizon bat aurkitu dinat, B.!

- Portugal eta Portugalete hiri bera dituk?

- Ez...

- Hire herrikoak dituk biak, ezta?

- Biak ez, Portugal ez duk nire herrikoa, tamalez.

- Ba ni asko ibili ninduan Don Rupertorekin, ezagutzen duk? Portugaletekoa zuan, enbaxadaz enbaxada ibili ninduan berarekin, Txinakoan ere sartu gintuan. Tik bat zeukaan, Parkinsonen gaitza bezala... Neskatoak nahi zitian, gaztetxoak. Keru txarra botzen zian beti, ia ezin zuan egon haren ondoan. Madari zukua besterik ez zian hartzen. Zaharra zuan eta oso diruduna, eta paper mordo batekin ibiltzen gintuan enbaxadaz enbaxada, zeren Don Rupertok demostratu nahi zian bera izan zela Bermudetako Triangelua aurkitu zuena...

Bat eta beste agurtzen ditu, oihuka. Uste dut ezaguna egin behar dudala Habanan. Istripu bat gertatu da bi txirrindulariren artean, edanak daude eta senperrak esaten dizkiote elkarri metatzen hasi den jendearen alaigarri. Mulata eder batek entzun behar izan du:

- Eta nik, ezin edukiko nuke zurekin istripu bat?

Ez da haserretu, burua jiratu eta nire lagunaren sabelari behatu dio. Barre egin du.

- Bai neska, bigun-bigun...!

Guaguaren geltokira lagundu dut. Loratzen hasia dago. Eskua luzatu dit. Habana guztia dago guri beha bostekoa estutzen diogunean.

- Ñengé... hire *karabela!*

- *Karabela?*

- Hire *mundela!*

- *Mundela?* Egidak hitz kongoz, ez diat kubaera hau ulertzen eta!

- Motell...! Hire *kúnbila!*

- A, bai! Ni ere heure *kúnbila* nauk honezkerro!

Izena esan diodanean alaitu egin da:

- Goldo?

Eta mulatak bereari bezala behatu dio nire sabelari.

- Bai, izen egokia, halaxe hago!

Ez da dudarik, hau dut Habanako nire gizona.

- Ezagutzen duk Kuba?

- Ahaideak zeuzkaat uharte guztian!

- Eta Camagueyn?

- Han ere beltz asko zegok! Izanen diat lehengusuren bat!

Bihar mugitu nahi baldin badugu hobe lehen bait lehen trukatzea dolarrak pesotan. Dirua eskuan ipini diot. Eta bere harridurari kasurik egi-teke hotelerantz hartu dut.

- Ñengé, *karabela*: bihar bederatzietan Kapitolio aurrean!

-Fideltasunak II- Jai alaiak

Hotel Inglaterraren aurrean, eta *Floridita-ra* beha (*Bodeguita-n nire mojitoa, Floriditan nire daikiria*, omen zioen Hem zaharrak), Martí ageri duzu, eskua luzatua, pototsa eta arina ere luzatuak. Kopakoaren neurria eskatzen ari balitzaizu bezala, egia da. Burumakurtu xamarra idurikatu dizute eskultore guztiek Martí, lurrera beha, arrastoren baten bila edo bere artean gogoetaka ari balitz bezala, kezkatu, hala parke eta plaza-gorputz osokoetan nola eskola barneetako igeltsuzko bustoetan. Prado-ko honek burua altxako balizu, HBren ikurrin zuri-beltz luzeskak ikusiko lituzke margotuak Gomez Mena eraikuntzaren erlaitz osoan...

- Ongi behatzen baldin badiozu, atzemanen diozu kozkorra!

- Kozkorra? Bakarra al zeukan ba?

- Zer diozu, burkide... Zer hizkuntza da hori?

Txekiera?

Urrezko iltze bat omen zeukan lehen plaka bati eusten monumentu honek, eta Fidelek gorde omen zizun. Batzuetan ez du jakiten batek zer esan nahi dizuten zehatz Fidelenak aipatzen dizkizutelarik, Kuban gelditzen den iraultzaile bakarra ote den edo Fidelek ere, munduko beste agintariek bezala, sakela gizentzen ote duen... Baina ez, oraingoan Fidelen zuhurtzia aipatzen dizute *txoko beroko* solasturiek, izan ere frantsesek, Cousteau komandanteak eta, eskaini omen dute *batiskafo* bat Habanako badian hondoratua dagoen altxor handi bat gordetzen duen galeoia arakatzeko, baina beretzat nahi omen dizu urrea Fidelek, eta beretzat esaten dizutenean *txoko beroko* hitzontziok, kubatarrentzat ulertzen duzu batere lanik gabe, edo hala adierazi nahi dizute-la uste duzu. Lauzpabost *txoko bero* dauzkazu Habanan, eta bat hemen, Prado ibilbideko Martíren monumentuaren ondoan, zeiba ederren gerizpean.

- Kubako hirugarren baserik onenak Habanak ditu!

- Zer diok? Pinar del Río-koak dituk bizkorrenak!

Pilota, Kuban, beisbola duzu. Gureari jai-alai esaten zaio, jai-alai jokatzea. Orain aurkitu berria den *décima* batek dioenez 1790ean bederatziz euskaldunek (*bascongados*) lehiatu behar zuten pilota batengatik. Ez ditugu guk askoz zaharragoak pilotari buruzko lehen bertsoak. Almandares ibaiaren ondoan dauzkazu instalakuntzak, hemen jokatu zen azken mundu txapelketarako eginak, Sotomayor jauzilaria izarra duen errendimendu handiko kirol eskolatik hurbil. Berriak, zainduak, libre eta estali, biko eta trinkete, labur eta luze, ugari, ez duzu halakorik Euskal Herrian. Emeterio Arrese, Ameriketako frontoiak eginez hainbat aldiz aberastu eta erreka jotako poeta hura ere, Kubara etorri zen mende hasieran, urte batzuk lehenago Espainiaren atzaparpeko zela honelakoak idatzi zizkizun arren:

Goazen, mutillak, tximistan oñez
odoi beltza urratzera
Maceo'tarrak beti-betiko
itxasopian sartzera
tutan soñura irrintz egiñaz
jaso dezagun bandera

orruaz daude bazter guziyak
guazen, mutillak, aurrera!!

Luis Mazzantini zezenketari elgoibartarrak denboraldi luzeak ematen zizkizun Kuban, berak lortu zuen Habanako Udalak dohainik eman zezan zestapuntako frontoi bat jasotzeko orubea mende honen hasieran. Horrela hasi zen Habanan berehala *beisbol bizkaitarra* esanen zutena, Habana *Euskal Sportaren Atenasa* bilakatuko zuena. Jai-Alai frontoiaren inaugurazioan (1901), Gernikako Arbola jo zen (Espainiako eta Estatu Batuetako himnoekin batera, orduan ere, 1990ean bezala, kubatarrek saio diplomatiko zailak egin behar izan zituzten, Leonard Wood, gobernadore militar estatubatuarra uhartean, jai-alaizale amorratua baitzenuen...).

Duela hogeiren bat urte, whisky kopa baten aurrean pasatzen zituen bazkalondoak agure hiztun eta umoretsu batek Errenteriako Alameda tabernan, entzun nahi zuenari, eta nahi ez zuenari zer esanik ez, Kubako balentriak kontatzen. Pilotari ohia zenuen, Miamin, Tampan eta Habanan jokatuakoa. Kopakoa nork ordainduko jar-

duten zuela pentsatu izan genizun hasieran, baina ez zen hala, berak ordaintzen zizun berea beti. Haatik gezurti hutsa genuen agurea, hala frogatu genizun Trecet-en galde egin genionean.

- Trecet? Ez, Habanan Trecetik ez, Manila-n ausaz!

Ez zegoen irain handiagorik guretzat. Trecet izan genizun urteetan pasaitarron heroi mires-tuenetako bat, Matxet edo Arrillaga patrioiak baino exotikoagoa, haiek baino aunitzez kosmo-politagoa eta, herrian ospea zizunez, gonazalea. Aberastua genuen Habanan eta ez zen herrira inoiz itzuli. Norbaitek gutunen bat omen zeukan, eta behin haren argazki bat ere ikusiko zenuen inoiz: berrogeiren bat urteko, ilea gominaztatua eta txukun orraztua, bibote ongi moztua, perlazko brotze batek eutsitako gorbata lepoan, dotore, sobera dotore egia esan herriko gazteok uste eta nahi genion bizimodu bohemioa egiteko.

Dirudienez, Trecet ez zenuen izan *El Pitágoras de los Frontones*, ez *El Fenómeno*, ez *Su Majestad*, ez *La Perla de la Cancha*, ez *El Divino Sonámbulo* edo *El Dempsey de la Cancha*... Atzelari arrunta izan zenuen, 1902an Luis Gardoi Ma-

kala aurrelariarekin bolada on bat izan zizuna. Cienfuegos-en daukazu jokatzeko 1924an, bere karreraren amaieran noski. Egun Kuba sozialista eta dibisibeharrak aberats yatedunentzat egina dizun Marina Hemingway luxuzko antolamenduaren lekuan zegoen Marianao hondartzako Summer Casino Jai-Alai frontoiko intendente bezala ageriko zaizu 1928an Andres Trecet hau. Usarioa zizuten orduan intendenteek ontzako urrea eta zilarra botzearena tanto eder bat jokatzen zenean. Ikusgarria izanen zenuen aurkarien arteko gizalegea, irabazleek erdibana egiten galtzaile duinekin, aurkariari eroritako ezpata duelari jatorrak jasotzen zizun dotorezia berberaz... Partida motel zihoanean, txakurtxikiak zetozkizun pilotarien zangoetara. Eta ikusgarria izanen zen orduan ere aurkarien urduritasuna, duelari koldarrak balira bezala armak hartzeko uzkur.

TONGO. *Amarru edo tronperia zaldi lasterketan eta euskal pilota edo jai-alai izeneko jokoan.*

Ezinen duzu zeuk zuzendu Kubako hiztegi guztiak berdintzen dizkizun definizio hau. *Manguá* erraza, tabakoa eta mulatak Karibeko *belle époque* batean... Nobela baterako apunteak har-

tzen zizkizun orduan Hem esaten zioten Patxi Ibarluzea pilotariaren lagun estatubatuarrak, eta uste izatekoa duzu ez zela geldituko dolar parrrasta bat jokatzeko. Maiz gertatuko ziren *jelengeak* eta *safakokak*, eta giro ustel horretan kokatzen genizun guk Trecet, aita edo semea zenuen berezi gabe, beste Trecet bat ageri baituzu 1928tik aurrera Kuban atzelari kontratatuen artean, Andres Trecet intendentearen seme Hernando. Guretako, Pasaian, ontzia hartzen ausartu zirenetan Amerika egin ahal izan zuten bakanetarikoaren mitoa zenuen Trecet. Beste Trecet batek, Juanitok, hamaseigarren urtea egin behar dizu aurki munduko frontoi hotzenak dituzun Espainiako kartzeletan preso. Ez duzu mito bat.

Kapitolioa, Washingtongoaren imitazioa izan ez balitz ere, giza ergelkeriaren eredu da bere erraldoian. Ongi egin du Iraultzak gaitzeko edifizio klasikonahi hau Zientzia Museoa bilakaturik. Iraganeko parlamentarien batere errespeturik gabe, futbolean aritzen dira gaztetxoak eskaile-ra noble haien ondoko belardietan. Nola esanen nizueke... Kapitolioa da jesuitek maiteko luketen edifizio bat, Loiola zatar bat, handiagotasunak edertasunik ematen ez dion bloke lehorra. Guk halakorik bagenu, postaletan azalduko genuke harro. Ondoan dago Osvaldo argazkilaria, profesionala bere tarjetak dioenez, Cabrera Infanten nobela batetik irtendako pertsonaia, lau ohol zaharrekin eginiko trastearen artista...

- Bon giorno, signore! Quanto me piace riverderlo!

Pavarotti ematen du Ñengék opera batean mozorrotua. Agindu baino ordu t'erdi lehenagotik omen daukat zain Osvaldok esan didanez. Lastozko kapelu bana erosi du. Kainaberarik ez

daukat eta jantzi dezagun kapelua Hemingway-rena jotzeko. Ezantzarako eta otorduetarako behar dugun dirua pesotan trukatua dauka, bere lantegian baja hartua da astebeterako (mesede ugari zor omen dizkio ugazabak, *lantxoak* egiten omen dizkio han eta hemen, ez dut gehiago jakin nahi), neskalgunari Santiagora irten behar duela esan dio. Plastikozko poltsa txipi batean dakartza bidaiakoak. Bere lagun baten gurdian abiatu gara autoen alokairutegira.

- Ez dago fitsik!

Nazioarteko Feria da egunotan eta gurdi guztiak alokatuak daude. Ez dago zer eginik inon, aireportuan ere alerik ez omen dugu aurkituko. Belarrira mintzatu zait nire gizona:

- Beste inon saiatzea alferrik dela esaten badik, bertan saiatu behar dugulako duk!

Bazter batera eraman du arduraduna. Ez dute luze jardun. Niregana eta belarrira oster:

- Hogeï dolar!

Kanadar batzuek biharko alokatua omen zeukaten Daewoo hegokorear bat eman digute. Modelo txipia, merkeena. Tiko du izen komertziala. Hartu dugu eta abiatu gara.

- Oraindik ere harritua nagok nola eman hizkidan atzo berrehun *fula!*

- Hi ikusi orduko pentsatu nian: hau diat behar nuen gizona!

- Santiagora! Habana baino politagoa duk Santiago!

- Eta orduan zergatik etorri hintzen Habanara?

- Motell! Hik gehiegi dakik! Nola arraio...?

- Habanako mafioso guztiak zarete santiage-roak!

Irri karkailetan hasi da Tiko gajoa dardar batean ipiniz. Ito behar nau, Hego Koreako autotxoan ez dira sartzen Ñengéren algarak.

- Baina nik Santiagokoei habanarra naizela esaten zieat!

- Alua haiz!

- Badakik, *habaneroak beti dauka bere purotxoa!*

Guajiroak autobidean daude fruta, zuku eta zerrikia eskaintzen aldiro. *Txitxarroiak* ditu gutixi Ñengék, onena da garagardoa hartzeko. Bazterretan, ia kilometroko arroz aleak makadamak hartu berotasunean lehortzen paratuak, hori,

ahotza oraino kendu gabeak. Cienfuegos alde-
rantz goaz, eta aurkintzaren ederra adierazteko
burura datorkidan alderaketa Lapurdi bat da pal-
mondoz eta bananadiz betea, edo Bardea berde
bat, Espainiako erregek Kuba soiltzeko ontziak
egitearren soildu aurrekoa.

- Geldi, geldi... geldi hemen bertan!

Ez dakit ugazabari obeditzen dion, baina
agintzen hobeki ohitua dago zurgina omen den
mekanikari trebe hau. Guztiz gelditu gabe irten
da, zauli nola *zebú* bat. Altxa du kapota, itzali
dut motorea. Daewooaren hesteetan jardun du,
eskuak zikin sartu da osterara.

- *Andiamo presto! La strada è nostra!*

Soinu bitxi bat kendu omen dio, baina nik ez
dut soinurik sumatu lehen ere. Ez dit kasurik egi-
ten. Ez naiz berehalakoan jabetu.

- Hi, *kúnbila...!*

- Zer edo zer ahortzi zaik?

- Hi, zer egin diok autoari!

- Soinua kendu!

Eta algara egiten du, algara egiten du aluak.

- Emaiok arinago, zanpa ezak gogor! Ez duk
mugituko, ez!

Abiaduraren orratza ez behintzat. Kilometro-gailua ere geldirik dago. Baina bagoaz.

- Hi... hau lapurreta egitea duk!

- Nahi baduk berriz ipiniko diat sugetxo bere lekuan, eta orduan bai ezinen duala Santia-goraino joan, ez daukak aski *mejenge* kilometraia ordaintzeko!

Geldi dezadan autoa. Lasai nadin. Arrazoia din, baina ez naun behar adina kubatartu oraino, B.

- Uste diat Habanara itzuli beharko dugula...!

- Lapurreta agentziakoek egiten ditek! Hogeï dolar kendu dizkiate!

- Tira... Hori izan duk kanadarrek zeukatela-ko...

- *Ma che cosa mi dice, signore!* Ez zegoan kanadarrik! Autoa nahi adina erabili ahal izateko izan dituk hogeï dolarrak, eta kito!

Sorginekin bezala ibili behar da Kuban: gezurretan ari bazait ere arrazoia du seguru asko, eta arrazoia izan arren ezin dut osoro sinetsi. Errealitateak halakoak dauzka hemen, horregatik da beharbada miragarria.

Martxan ipini dut autoa oster. Orratz etzarenaren keinua egin du irribarrez Ñengék atzamarrekin. Gainditua dago istilua.

- Horretxegatik duk izugarria heriotza. Jazten diate zurezko trajea, eta orduan ezin zaik zakila tentetu!

Ez dut barre egin, eta benetan pentsatu dut, nahi gabe baina, hauxe dudala nik behar nuen gizona. Isildu egin da, bizkarrekoa etzan eta kapelua aurpegi gainera ekarririk zurrunga hasi da.

Ergela ni: neu naiz honek behar zuen gizona!

-VIII-

- Azkar ez dabilena lehoiak jaten dik!

Ñengé beti dago prest hurkoa eskolatzeko. Nire azken arrangurak uxatu uste izanen ditu, bere maisutza erakutsita lo bezala jarraitu du autoa ezinean gelditu den arte.

- *Pontxatu* egin diagu?

- Noski, *signore*, heure aldekoa gainera, harritzekoa denez!

Izerditu naiz, baina aitor dezadan Ñengé ere saiatu dela aginduak eta aholkuak ematen. Abiatu gara ostera. Ez luzean, aldatutako kurpila blokeatu egiten da.

- Gaizki ipini duk!

Ez nitek hire ugazaba izan nahi, *konpai*. Gelditu dut ostera, lasaitu ditut tuerkak, atera dut katua, jaso dut autoa, askatu dut kurpila, alderatu dut beste hiruekin, berdina dela ikusita berriz ipini dut Ñengéren behako zorrotzaren pean. Filmeak atzera egin du ostera proiektionista jolasan ari balitz bezala eta benetan sentitu naiz barregarrizko filme baten protagonista, Laurel &

Hardy ez bagara haien hurrengo. Batez ere autoa berriro blokeatu denean.

- Arraioa, zer egin behar diagu!

- Azkar ez dabilena lehoiak jaten dik!

Heriosuhar ekin diet tuerkei, katuari, kurpilarri, atera dut, luzatu diot nire lagun izutuari eta behingoz agindu egin diot:

- Har ezak kurpil zahar hau, llanta okertua zegok eta trabatu egiten duk, eraman itzak hau eta *pontxatutakoa* hurbileneko *pontxerara*, eta alda ezak ordezkorearen kurpil ona *pontxatutakorearen* llanta onera, *oka?*

- Errukigarri hago benetan, blai eginda hago...

Lada bat gelditu zaigu, Cienfuegoseko enpresa batekoa da, hiru lagun gazte dira eta pozarren lagunduko digutela. Sartu da Ñengé bi kurpilekin.

- Ez nihoak lasai, hi hemen bakarrik utzita...!

- Beldur haiz *ñañigoek* janen ote nauten?

Barre egin behar izan du, eta barre egin dute hiru gazteek ere. Aldegin dute eta bakarrik utzi naute. Utzi banaute utzi naute. Gautu du. Ezin dut irratia entzun, aldatu beharraren harat-hona-

tetan Ñengék gorde du giltza, kontaktoa ipini gabe ez da bizten.

Kirkirrek biztu dute irratia.

Ñañigoek ez baina *jejenek* naute janen.

Saunan sartu behar izan dut, hobe dut itota hil ziztadaka baino.

Iluna dago oso, urrunean argiren bat ikusten dut, ahula, eta *kokuyoena*, hemengo ipurtargiena, bazterrean ugari. Bikote bat pasa da auto ondotik. Auskalo nondik datozen oinez eta noraino doazen. Noizean behin, bizikletaren bat. Autorik gabeko autobide bat eta hegokorear herren bat bazterrean ordezkagarri egokirik ez dagoelako. Hau ere Kuba da, menturaz hau da Kuba.

Heldu dira noizbait. Espero ez bezala, kurpila konpondua dakarte. Oso jator portatu omen dira *pontxerakoak*, arrazoia nuen, llanta okertua zeukan ordezeko kurpilak, zelako kabroiak agentzia-koak, etorria dauka Ñengék. Baietz egiten diote gazteek, konpondu beharreko asko dago hemen. Beharrik munduko mekanikaririk onenak ditu Kubak, eskasiak artista bilakatu ditu. Argi egin didate kurpila alda dezadan. Froga egin dut,

autoa badabil. Eskerrak eman dizkiet hiru *fula* emanda. Elkarri laguntzeko gaude, badakizu:

- Ez duk erraza, *konpai*, ez duk erraza!

Ladak ezin du abiatu. Argi eman ez ahitua izan behar du zeukan bateria apurra. Ez didate kasorik egiten, kapota ireki eta barnean miaka hasi dira, eta ezagun dute ez dakitela fitsik. Hurbildu natzaie, umoreko.

- Nik uste diat zera dela...

Ez didate amaitzen utzi:

- Zera, aberri ama sobietiko handiaren oparia!

Ez gorrotoz hala ere, umorez nik bezala. Biraorik ez errusiarrentzat. Errespetu bat bezala. Maitasunik, ez dut uste. Itxi dute kapota. Gure argi hegokorearrean erakusten dizkiogu eskuak elkarri, koipez zikinduak.

- *Granma* daukat autoan.

- Ez, utzi...

Eta belarrarekin garbitu ditugu eskuak. Lada-
ren atzean paratu gara eta bulka ekin diogu.
Arrankatu du. Adio, burkideok.

- Hi... Zergatik ez zizkiate eskuak garbitu nahi *Granmarekin*?

Ez dit ulertu, edo ez du erantzun nahi. Zehaztu egin diot, ausartu egin naiz:

- Egunkari ofiziala ez zikintzearren, ala eskuak ez zikinagotzearren?

- Biztu eta goazemak!

- Heuk daukak giltza!

- Nik? Bai zera...! A, bai, hemen zegok! To!

Ez zaigu bateria ahitu, abiatu gara. Galdera berritu diot.

- Biengatik!

Noski, noski, euskalduna, oraindik ez duk ikasi erantzun egokiak asmatzen, ez haiz hi izan-en Habanako beltz bat urduri jarriko duana! Eta euskaldun *progre* bat balitz bezalaxe hasi zait, atzerritarraren aurrean bere herritarren zabarke-ria gaitzesten duela etsiturik:

- Motell! Hau duk Kuba! Zelako herria!

Kubako Ekialdeko Armada eta Kubako Mendebaldeko Armada elkarren lehiari ari dira malobretan Camiloren Metraileta nork irabaziko, informatzen du Guanabá Irratiak.

-Fideltasunak III-

Alferkeriarako Eskubidea

Ez zara bibliofiloa, ez dituzu sobera maite erlikiak, baina berritze lanak zirela edo orduz kanpo zenbiltzalako beti itxia aurkitu izan duzunez, halako irrika sortua dizu aspaldi samarretik, gaurkoan zabalik ikusi eta sartu egin zara Carlos eta Sofiaren etxera, *Argien Mendea* protagonistena omen duzun honetara, egun Alejo Carpentier Zentroa, munduko literatura moderno guztia biltzen dizun liburutegia besteak beste. Habana Zaharreko karrika nagusia den *Empedrado-renean* daukazu balkoi korrituaren zurajea urdinez dotore margotua dizun etxe kolonial eder hau, aldameneko *La Bodeguita del Medio*-ko bezorek erdeinuz hutsik eskainia zeuretzat bakarrik. Carpentierrek berak esanda ote dakizu posteritateak etxe honetan inspiratu zela? Edo, gurean ikerlari zenbait Obabako iturri, xendra eta belarrak ere deskubritu nahian dabilzan bezala ote zizun unibertsitari azkarren batek atzeman alde-raketazko metodologia zuhur batekin?

Honekin eta harekin eginiko argazkiak, bere liburutegi partikularra, ez oso handia egia esan, baina autore aukeratuak guztiz, gehienak frantsesak eta frantsesez, erakutsi dizkizu museo honetako zaindariak. Anekdotaren bat kontatu behar noski, beti harrokeriazkoa iruditu zaizun Don Alejoren liburu baten tituluaren funtsa, *Barnean daramadan musikaria*, argitu dizu: halako batean, musikaz *dorik* ez zekiela, sei urteko zela eta artean teklarik zapaldu gabea, aitari hainbat aldiz jotzen entzun eta ikusia zen sonata bat jo zizun hasi eta amaitu hitzetik hortzera Alejo txipiak. Ez diozu sinetsi, anekdota hori bera kontatzen baita 1911n Donostiak antolaturiko lehiaketan aurkariak zaldi jokoaz eta dantzarisak zango jokoaz liluratu zizkizun Jose Raul Capablanca xakelari handiagatik (*Xakea dametan bezala da, baina zaldunekin!*). Eta ez diozu sinetsi Carpentier-ek sinaturiko azterketa musikalak Natalio Galán-ek egin zituelako, eta ez diozu sinetsi oraindik ere garbi ez dagoelako Alejo zen edo Alexis, Kuban jaioa ala Suitzan, eta ez diozu sinetsi Nobel sariaren bila lotsagarri ibili zelako...

Hemen bertan dago berak idazten zizun ma-
haia, arrainontzi handi bat balitz bezala krista-
lezko kutxa batek estalia. Hautsa errazago garbi-
tzeko ote den, galdetu diozu zaindariari. Ez diozu
graziarik egin. Hantxe dago berak erabiltzen
zizun Olimpia zaharra, eta Carpentierrek hain-
besteko urruntasunez eta ironiaz interpretatzen
zuen Pariseko surrealismoaren «lorpen estetiko»
bat balitz bezala, Magritte komertzialdu baten
aurkikuntza, egileak eskuz idatziriko folio bat
dizu sartua makinak zilindroan. Han dauzkazu
idazten ari zen obrararako oharrak eta zirriborro-
ak, Karl Marx-en suhi bati buruzko saiakera bat
omen.

- Paul Lafargue-ri buruz?

- Bai...

Egokia iruditu zaizu bai, kubatar batek har-
tzea ardura *Alferkeriarako Eskubidea* idatzi zizu-
naren oroimena aldarrikatzeko... batez ere *Alfer-
keriarako Eskubidearen* egilea bera ere Paul ez
baina Pablo genuelako jatorriz, Santiagon jaiota-
ko mulato ederra! Gai zoragarria hartu zigun, eta
zaila: Pablo Lafargue eta Laura Marx suizidatu
egin ziren...

- Irakurri nahi nuke.
- Ezin da.
- Ez? Zergatik?
- Amaigabea denez, ez dakigu egileak utziko zukeen...

Alferrik esanen diozu liburu eta liburugaizain honi Kafkaren aginduen aurka irakurtzen duzula Kafka, eta une batez burutik pasako zaizu ea ez ote duen, noizbait, Don Alejok tesi ausarten bat, kubatarren edo marxisten ofizialtasuna zalantzazan jarriz... Habanako zutabeei buruz idatzi zuen ibilbide ederra ezagutzen ote duzun, zaindariak. Carpentier guztia ezagutzen duzula esaten diozu.

- Baina ez edizio hau.

Argazkiz hornitua, paper satinatua. Ez zara bibliofiloa baina opari bat egiteko eros dezakezu.

- Hamar dolar.

- Utikan!

- Jauna, nik uste nuen Kuba zela munduan liburuak merkeena dauzkan herria!

- Bai, baina kubatarrentzat; besteontzat garestitzen ari da dena hemen.

- Ba ote?

- Bai, eta gauza bat esanen dizut, argazkien erreprodukzioa oso txarra da!

Irteeran zain daukazu aingeru zaindaria, Machin-en kanta hartatik irtena bezain beltza, liburu bera lau pesotan lor dezakezula jakinarazteko. Bere izena esaten dizu, eta zurea eskatzen eskua luzatuz. Esan egin diozu eskua eman ez, kalean dabiltzan turistak gaitzeko *business* bat egin berria duzula uste dutela. Zedula erakusten dizu. Han ez duzu ageri esan dizun izenik.

- Ez, niri Lazaro esaten didate santeriazalea naizelako, eta hori baita nire santua...

- Babalú-Ayé.

Harritu duzu, baina berehala nagusitu zaizu esanez zu ikusi orduko ohartu dela ez zarela turista arrunta, ez duzula lehen aldia Kubara zatorzela:

- Erlojurik ez daramazulako, zuk ez duzu nahi beltzaranak etor dakizkizun hau eta beste eskaintzeko ordua galdetzearen aitzakian.

Hitz egiten dizun bitartean atzera jiratzen du burua emakumezko bat iragaiten den bakoitze-ko, ipurdiari begi eman ez.

- Ikusi duzu nire argazkia zedulan? Gizenago nengoen, orain egoera berezia dugunez gero hamar bat kilo galduko nituen... Baina konturatu zara? Egoera bereziak ez ditu neskak ahultzen! Zelako puskak dauzkaten emakume kubatarrek!

Goiz edo berant, jin behar zizun pilotak punperat. Hobe duzu aurea hartzea.

- Zer da arruntago, neska beltza mutil zuria-
rekin edo neska zuria mutil beltzarekin?

Bertsolari zaharrek baino agudoago botako
dizu:

- Neska zuria mutil beltzarekin!

- Bai? Zergatik?

- Neska zuri batek beltzaranon zera dastatu-
takoan ez du besterik nahi! -esplikatu dizu lasai,
keinu lizun bat eginez besoarekin.

Babalú-Ayé edo Lazaro hau langabezia dau-
kazu, krisia dago Habanako portuko ontzioletan.
Argizaina zen bertan. Eskaini diote landetara jo-
ateko, alorrak goldatzera, baina ez du nahi izan,
nahiago dizu *businessak egin* kalean, kubatar
zuri askok dioena baieztatuz, alegia ez dagoela
guajiro beltzik. *Alferkeriarako Eskubidea*, pen-
tsatu duzu, zuria izan arren arrazakeria praktika-

tzen ez duzun horrek. *Dolarrak Erraz*, pentsatu-ko du Lafargue mulatoa irakurri ez dizun beltz honek.

- Izanen duzu zuk atorra politen bat niri emateko!

Ez du ikaratu erantzunak, galtzak ere ez omen ditu oso berriak eta ea ez dauzkazun *jeans* batzuk soberan. Dauzkanak berriak dira ordea, eta panazkoak direnez turistaren bati kenduak izan behar dute. Ordularia atera duzu sakeletik, presatua zabiltzalakoa egin eta zizerone karibetar hau antzarak ferratzera bidaltzeko.

- Erlojua izan eta sakelan ibiltzeko? Emaidazu niri!

Hobe duzu ez haserretu, eta *business* onak egiteko pazientzia handiagoa behar dela esan diozunean, ez dizu ulertu. Hatuey bana merezi duzue biok, elkarren etsai bihur ez zaitezten. *La Lluvia de Oro-n* sar zaitezketen, duela guti irekia den taberna berrian. Ez duzu galdetu izenaren zergatia, baina seguru zaude ez duela zer ikusirik Habanako Arte y Literatura Editorialak gazte-leratu eta argitaratu zuen Jan Solovic idazle eslobakiarraren izen bereko antzerki ederrarekin.

Izen egokia duzu ordea *Alferkeriarako Eskubidea*
duela uste duenarentzat.

-IX-

Goizeko bostetarako iratzarri nau Ñengék, hamabi orduko lo lasaigarri bat egin izan balu bezain umoretsu. Jantzia dago, hiribarnetik dator.

- Egunon, burkide! Ez zegok eguzkirik gabe-ko larunbatik!

Zain omen dauzkagu gasolindegikoak, mugitu beharra dago. Ez dut oso ongi ulertu zergatik dauden gure zain gasolindegikoak, baina erdi lo joan naiz dutxapera eta ez daukat hizketarako batere gogorik. Alua, egun ez duk larunbata!

Gu eta beste bikote bat gaude gosaltzen jangela handian. Espainol aguretzen hasi bat hogeiren bat urteko mulata ederrarekin, arrunta da hori Kuban, espainola euskalduna izatea maiz. Zertara etortzen dun ba euskalduna hoteletara, B.?

- Mulatak Bayamon, hangoak dituk ederrenak, ezti kolorekoak, kanela kolorekoak, gerrirainoko ilaje leunarekin...! Laugarrenez ezkontzen banauk, Bayamokoa hartuko diat emaztea!

- Eta beltzak? Ez duk beltzik izan?

- Ez, ni beti mulatekin... Emakume beltza jeloskorra duk oso! Labana sartzen dik ezer sumatuz gero...!

- Ongi zegok jakitea... Zer duk maizena, neska beltza mutil zuriarekin ala neska zuria mutil beltzarekin?

Arraultza irentsitakoan erantzun dit:

- Ez zekiat motell, oso nahasia zegok dena!

Zukua besterik ez dut nahi. Minduak dauzkat besoak, eta bikorrez betea lepoa.

- Egin ezak kontu orain edozein beltzek ere baduela *gurdia...!*

Ez nuen halakorik espero, uste nuen ironiaz erantzunen zidala, edo beltzen larderia sexualari buruzko zerbait. Erdia sinesten diot, badaki *bezeroa* lausengatzen.

Gasolindegian gelditu da. Ni aitzinago bidali nau autoarekin, eta itxaroteko. Habanan *atso margotuak* esaten dieten *gurdi* handi horietako bat heldu da gasolindegira. Mulato eder bat irten eta Ñengé-ri eskua eman ondoren gasolindegikoekin jardun dute. Bi garrafa luzatu dizkiete *nire mutilei* barrendik. Badiagu zer edo zer. Be-

rehala heldu dira biak, nor bere garrafarekin.
Biztu dut. Sartu dira.

- Goazen, hartu ezkerrera!

Makadameztatu gabeko bidexka batetik sartu naiz, zulo handi xamarrak daude. Jendea mugitzen hasia da batera eta bestera. Umeak eskolara doaz, eta Habanan bezala, kontraste ikusgarria egiten du kaleko zabor eta zikinkeriak kubatarren jantzien garbitasunaren aldean.

- Hemen da nire etxea, geldi!

- Ez, aurrerago hobe!

- Hemen bertan, berdin da!

- Aurrerago hobe, ez fida kaimanari uretan hagoen artean!

Auzunekoak konfiantzakoak direla esan digu mulatoak, baina hala ere aurrerago gelditu gara, ez bere etxe aurrean. Garrafa txipienarekin irten da, eta ateurrean moto bat parkeatua daukan etxera abiatu da. Mulatoa ezkutatu orduko inoiz baino zakarrago bota dit Ñengék:

- Aurrera!

- Baina...

- Zapal ezak orratza tentetu arte!

Obeditu dut noski, eta bide nagusira irten gara orratza batere tentetu gabe. Trafiko handia dabil.

- Oso ongi, badiagu gasolina, merke gainera, hamabost pesotan zegok hemen!

Baina Ñengék atzera behatzen du urduri.

- Hi, zer arraio...?

- Emaiok hautsi beharrean kamioi gorri hura begi bistatik galdu arte, beha gelditu zaiguk txoferra eta matrikula hartu nahiko dik!

- Hi, hi... zertan sartu nauk!

Ez da kamioiarengatik nik behar nuen gizonaren urduritasuna. Mulato ederra ageri da motoan ziztu bizian. Leihatilaren ondoan ipini zaio.

- Nora zoazte?

- Hotelera, esan diat!

- Hotelean bete behar duzue?

- Bai, atzeko lorategian!

Baina hotelean ez sartzeko agindu dit ahape-tik. Ez dakit zer darabilten bi hauek, baina barenengoen ni adar honetan *jutía* bat zegoela gorderik... Berriz heldu da motozalea leihatilara, er-tzaina ematen du.

- Atzean utzi duzue hotela!

- Beste bat zegok irteeran!

Zer edo zer egin beharko duk hik ere, eta onena gelditu eta gauzak argitzea izanen duk. Aukera polita duk Ñengéri gain hartzeko... Bide bazterrean gelditu naiz. Aurrean trabeskatu du mulatoak motoa. Harengana noa nire beltzari autotik ez mugitzeko aginduta.

- Zer gertatzen da?

- Beltz hauek... onenari tiro bat buruan!

Baina beltzak ez entzunarena egin du, eta autotik irtenda sasian barrena abiatu da lasai, bazterrak miatuz.

- Ez dik ordaindu?

- Bai... Baina garrafa ostu nahi zidak!

Dei egin digu Ñengék, autoa atzeraka barneratzeko agindu dit. Obeditzeko egin dit keinu mulatoak. Lokatz gogortuetan kulunka eman diot atzera, bide nagusitik ezkutatu garen arte. Ñengék plastikozko tubo bat atera du bere poltsatik.

- Prestaturik etortzen bainauk ni!

Garrafa autoaren sabaian ipini, tubo bertan sartu, gasolinaren depositoari zipotza kendu eta haizea kendu dio tuboari bertatik arnas hartuta.

Badator. Atzamarrak busti eta dastatu egiten du. Profesional bat, edo ikasia behintzat.

- Oktanaje onekoa duk, dasta!

Ez obeditzen hasteko ordua dudala erabaki dut oraindik orain. Harritzen nau mulatoak, ez dio deus esaten, mirestua bezala dago, telefonoa baino beltzagoko beltz honek ziria sartu nahi izana ezin sinetsirik. Hala ematen du behintzat. Gasolina guztia hartu duenean, biek erantsi diote atzaparra garrafari.

- Utz ezak!

- Bi litro oparitu ditiat!

- Hala zuan tratua!

- Gezurretan ari haiz!

- Hi... utz ezak! Gainera, garrafa ez duk nirea!

Mulatoa beltzari gezurretan, ikusgarria da zu-riarentzat. Errukitu egin da Ñengé, bizia barkatuko balio bezala utzi dio behintzat garrafa eramaten. Atzera egin du bere motoan hirirantz gu Santiagora inoiz helduko ez garela unean baino unean segurago nagoela.

Isilik gidatu dut puska batean. Esplikazio bat zor dit norbaitek, eta erruduna aldamenean edu-

kitzeak hitzik egokienak ezin bilaturik halako pa-
txada bat ematen dit. Aurkintzaren gaineratik *aura*
tiñosa ugari dabilta, hemengo putre beltzak.
Ordu erdi egin dugu mutu. Hau izan du isiltasu-
na hautsi digun esaldia:

- *Guajiro* alu hauek... ikasi egin ditek!

Alexandre Dumas aita kexu zen Espainiako le-goak Frantziakoak baino luzeagoak omen zirela-ko eta ordu erdiko bidea agintzen ziotenean lau ordukoa izaten omen zelako. Hark zeukan hiritik oihanera doanaren sindromea ez ote daukadan nik Kuban, sortu zait.

- Ezagutzen duk Juan de Begoña-ren leienda? Hi bezalako euskaldun pirata bat izan zuan!

Ez dut ezagutzen, eta ez dut hartaz inoiz ezer irakurri, eta garrafa ebasle hau baino aunitzez kultuagoak ditudan lagun kubatarrek ez didate aipatu. Zinez, batzuetan uste dut hauxe zela nik behar nuen gizona.

- Juan de Begoña hori XIX. mende hasierako horretan pirata ibilitako bat izan zuan, gero Pinar del Río alde horretara erretiratua. Diru asko zeu-kaan, hilaginean zegoela apaiz eta fraile andana bat joan zitzaioan kofesatzera... Baina inork ez zekik non gorde zuen altxorra!

- Hori duk guztia? Ez zidak kronika baterako ematen.

- Dirua ahitzen zitzaionean Bayamora joan eta urre mordoarekin itzultzen zuan... *Décima* batzuk ere bazeudek... hemen *Juan de Begoñaren Altxorra* esatea amets bat aipatzea bezala duk... Ibili izan dituk Bayamoko busti-lehorrak harrotzen altxor horren bila, baina alferrik izan duk.

- Juan de Begoñaren Altxorra *Kimbamban zegok!*

- Noski, ja, ja...! Baina... Hik nola dakizkik hainbeste...?

- *Txekendenge longorí semó!*

Arrazoa hunan B., komeni zaio batzuetan arrotzari kubatarrak baino kubatarrago azaltzea, beltzak baino beltzago, *adarra jo ez diezaioten.*

- Hi, hi... hi aztertu behar haut nik! Hi ez haiz kazetaria! Euskalduna ere ote haizen...!

- Italiarra ez nauk behintzat!

- *Ruski* ematen duk batzuetan!

Bestelakoa naizela esan nahiko du noski. Ez diot paperak eta kondarrak leihatilatik botzen uzten, neskei behatzeko esaten didanean ez diot jaramonik egiten, ez diot onartzen gerrikoa lotu gabe uztea, ez diot ronik eta tabakorik eskatzen,

zoratu egon behar du gizagajoak, jada ez daki zer proposatu.

- Hiria, hiria, han zegok bizia! Santiagorantz!

- Santiagorantz!

Bertutetik sortzen dira herriak! irakurri dut bideondoan. Martírena dirudi, baina behingoagatik ez da berea, Cherena baizik, Bolivian erori zeneko urtemugarako eginiko pintaketa batean. Luzeak dira bideak, eta elkarren urrun daude herriak. Tarteka jende multzoak ageri dira zain, arropa kakiekin erdiko zikloko ikasleak diruditen arduradun bidezainen ondoan, *guagua*, kamioi eta auto partikularrek hartzeko. Guk turisten matrikula daramagu eta ez gaituzte geldiarazten. Ñengék ere ez du nahi inor hartzea, berdin zaiola esaten badit ere. Presatua nabilen, B., ez niken inor hartuko.

Habanan bakan baino aurkitzen ez den Abel Santamaria-ren oroigarri ugari ikusi ditut, eta ezin izan dut Txabi Etxebarrietarenganako alde-raketa egin gabe utzi, menturaz mutil gazte betaurrekodun guztiak antzekoak direlako horma gaineko marrazki halamoduzkoetan ageri direnean, besterik gabe.

- Onak kamioiak, Kamá, errusiarrak.
- Zergatik hainbeste?
- *Zafrarako* ari dituk biltzen...

Lasaitu naun, heldu naun. Hauxe zunan nire jukutria. Neuk ere eskubidea zeukanat merituak egiteko Alderdiak maita nazan Alderdikoa inoiz izanen ez naizen arren. Hire bila etorri naun, B.

Kamioiak bilduak dauden itxitura baten langa ondoan gelditu dut autoa. Aztoratu zait laguna.

- Zer egin behar duk?
- Ea lekurik duten!
- Hi, Goldo, adarra jo nahi didak...

Neure motxilari heldu diot. Aurkituko haut, B.

- Har ezak autoa eta itzul hadi Habanara nahi baduk! Ni hemen gelditzen nauk!

Inoiz baino begi handiagoak egin dizkit Ñengék.

- Hi... hi ez hago burutik ongi!
- Eskua luzatu diot. Banatorren, B.
- Adio, Ñengé, ikusiko gaituk Habanan.

Haserretu zait:

- Baina ez genuen Santiagora...?
- Hik uste duk ni Santiago ezagutzeko mugitu naizela Habanatik?

- Bai noski...

- Ba ez jauna! Bost axola niri Santiago! Ni Camagueyn geratzen nauk, *zafran!*

- Eee? Zoratu haiz!

- Ez nauk zoratu. Eskerrik asko honaino laguntzeagatik.

- Zer arraio gertatzen zaik! Ez haiz konturatu ni kubatarra naizela?

- Hiria, hiria, han zegok bizia! Segi ezak!

- Hi, hi... Nik ezin diat *zafran* sartu... *turismoz*, hi bezala!

Emanen diat nik hiri *turismoz*. Ni *bestelakoa* nauk, txo. Barkatu eginen diat iraina.

- Horregatik esan diat itzultzeko... *hik ezin dualako*.

Motxila oratu dit. Indarra du. Haserretu zait benetan. Hago, B.

- Goazemak hemendik *segurosoak* azaldu baino lehen!

- Adio, Ñengé, aska ezak motxila.

Askatu du. Etsi du. Laster, B.

- Eskerrik asko ni abandonatzeagatik!

- Ez haut abandonatzen, autoa uzten diat!

Sutu da berriz:

- Ergela haiz! Hik uste duk ni bezalako *malinké* bat hemendik Habanaraino joan litekeela auto hau gidatzen?

Harritu nau, ez dut ulertzen.

- Zergatik ez? Ez al dakik?

- Turismo matrikula duelako, ostia!, zuek esaten duzuen bezala.

Ez zegok zertan harrotu. Isil hadi eta har ezak bolantea ostera. Hitzik ez, benetan *zafran* gelditu nahi izan bahu bezala mindua. Non dun *zafra*, B.? Gauetan, abestu egiten duzue suren baten inguruan? Eta eskutxo lizun horiek, bizi ditun? Gelditzen dun *zafrarik* munduan? Saiatu naun, B.

- Gainera, ez duk ikusi? *Zafra* ez ditek oraindik hasi!

Utz nazak bakean. Ez diat hire hitzik entzuteko gogorik. Zer debru egiten dinat nik hemen, esaidan B. Kakajale bat, horixe bihurtu naun.

-Fideltasunak IV- Kaka jatea

Ez zara Kubara joanen garagardoa edaten duen Pancho astoa ikusteko noski, baina inoiz Las Tunas jotzen baduzu, ezagutu beharrekoak dituzu Kiki eta Marina, lehen *caldosa* ospetsu bat, zerriarekin eta indabekin eginiko saldatsua, egiten eta saltzen zizuten bikotea. Egoera berezian gaude eta barkatzekoa duzu *caldosarik* ez izatea.

- Ez da erraza burkide, ez da erraza!

Alaiak dituzu ordea bai Kiki eta bai bere emazte Marina. Toldope batean daude *tamalak*, arto irinez eginiko talo beteak, eta *manizko* goxokiak saltzen. *Guarapo* freskoa gustora hartuko duzu, kainaren zuku hau melenga xamarra egin dakizukeen arren. Ona omen duzu edari hau amaberrientzat, esnea ugaritzen du esaten dizutenez.

Geldi zaitez bertako merkatuan, duela hilabete batzuk baimendu dituzten *Nekazarien Azoka* horietarik bat. Dibisak edukitzea zigorgabetu ze-

nean gertatu bezala, *Nekazarien Azoka* hauek janariaren merkatu beltza deuseztatu dute. Denetik daukazu hemen, eta ugari: zerrikia, oilaskoak, arraultzak, fruta, ardikia... Kontrolatzaileak erne dabilta batera eta bestera, orain artean txukuntasun neurriak ongi gorde dira baina, zure galdeei zuhur erantzunen dioten bezala. Garbitasun handia dago, okela palma hostopetan daukate eulien babesean, eta egunean ekarritakoa egunean saldu behar dute, ezin dizute atzera eraman biharamunean eskaintzeko. Ikusiko dituzun *pargo* ederrek ere bizia daukate begia oraino, egunean ekarriak dituzu kostatik. Zukuak edateko doenerdi godalet bakanak -maionesa poto ohiak- ur garbian murgiltzen dizkizute aldiror. Zorua ere ez dago zikindua, erratza pasatzen dute hautsik harrotu gabe. Pozik daude kubatarrak, eta Habanako Boyeros azokan entzuten ahal duzun gauza bera entzun behar izanen duzu hemen ere:

- Lehenago egin behar zuen Gobernuak hau!

Raul izan omen duzu herria goseak zegoela ikusi duena, eta berari zor omen zaio *Nekazari Azokak* sortu izana. Horregatixe omen dago Fidel

haserre gainera, bere iritziaren aurka egin omen da liberalizatze hau, eta ba omen daramatza bi hilabete telebistan ageri nahi ez duela. Ulertuko duzu Fidel hil dela edo hilurren delako zurrumuruak zabaltzea zenbait kantzelaritzatan...

Haatik orain artean Armaden Buruzagia, Raul Castro, eta ez Fidel, genuen *gogorra*. Malobraren bat ote, Alderdia ordezkapena prestatzen hasia ote? Iduri luke, ordea Fidel izugarri kasketosoa dela jakinaraziko dizute ahapetik. Badu Fidel zaharrak haserre egoteko arrazoirik, oraindik orain lau idazkari probintzial kendu behar izan dizkizu kargutik, informe puztuak eta faltsuak igortzen zizkiotelako.

- Estatuak ezin zuen onartu kubatarrok goseak egotea!

Euskaldunontzat bezala, jatea kultura bat duzu kubatarrentzat. Inork bakean uzten ez zaituenean, esaiozu:

- Zuk uste duzu nik kaka jaten dudala?

Eta ikusiko duzu nola mututzen den. Ezinbestekoa da:

- Hi kakajale bat haiz!

Eta ixtante otxanduko da, haserretu eta *kim-boka* hasten ez bazaizu behinik behin, zuri gaina hartu nahi zizun harroputza. Aho finekoa zarela esan diozu, ezin dituzula gezurrak sinetsi edo solas ergelak eraman edo denbora alferrikaldu. Lokuzio horrek, noski, ongi jatearen garrantzian du oinarri, eta beraz, sukaldaritzaren prestigioan.

- Euskal tortila ere badugu...
- Euskal tortila? Nolakoa da tortila hori?
- Eska ezazu, ez zaizu damutuko!

Guk Kuba erako arroza egiten dugun eskubide berdinarekin egiten dizute Kuban euskal erako tortila: txorizoa, urdaiazpikoa eta hirugihera dizkizu. Habanan sartu berrian Chek, Fidelek eta Raulek lehen zurruta egin zuten *Castillo de Farnés-en* berezitasuna duzu gure tortila hau, eta benetan esaten ahal dizut ez dela txarra. Orain emakumezko errusiar batek zuzentzen duen jatetxe hau merkea eta garbia duzu, *La Zaragoza-ren* ondoan daukazu, *Floridita* inguruan beraz, eta haiek baino merkeagoa, proba egin nahi baldin baduzu.

Sukaldariarena hain duzu lanbide estimatua eta jatorra Kuban, ezen orain berriki harrapatu dituzten sei *kontra* zoro horiek ere sukaldariak baitituzu denak. Armaz beteak zetozkizun, goardia bat akatu zizuten, baina ofizialik eta buruzagirik eta fusilaririk ere inor ez, denak sukaldariak, hala deklaratu dizute egunotan epailearen aurrean. Ez dizu ordea Kubak halako sukaldarien beharrik, uste dut ez dutela lanposturik lortuko.

Atso margotuak zaintzen egoten dira, berak esaten duen bezala, Ñengé baino beltzagoak. Zuriak izaten dira ordea beltzak baino beltzagoak hauek. *Pontxera* inguruan egoten dira, beren *gurdi* ikaragarriak zirutzen zatar batekin, solasean edo egonean besterik gabe, lastozko kape-luak buruan eta tabako eder bana ezpainetan.

- Zer esan nahi dik tabakoak ezpainetan? Badiat tabakoa! Zer esan nahi dik Chevrolet handi batek? Badiat *atso zahar* puska hau mugitzeko adina gasolina! Horiek denak ni baino beltzagoak dituk, *kúnbila*.

Beha iezadan B., beha ezan zer egiten dudan printzipioekin. Beha iezaion heure herritarretara doan euskaldunari.

- Egunon!
- Egunon!
- Erosiko nuke gasolina hamabian...
- Hamabian? Hemen hamabostean dabil.
- Hamabostean? Cienfuegosen hamabian dabil. Baina erosiko nuke.

- Juan!

Mutil gazte bat irten da *pontxeratik*.

- Eraman itzak Feliperenera!

Autoan sartu eta auzune bazter bateraino garamatza, Iraultzak jasotako *bohíoen* antzeko zementuzko etxetxo ugarik osatua. Jo du Feliperenean. Gizon bikaina da. Pasarazten gaitu buru keinu batekin. Harraskako kanila ireki eta gasolina irteten da. Ñengék dastatu egiten du.

- Ona duk, eros dezakegu. Hamabian?

- Hamabostean! Nahi adina, berrehun litro dauzkat!

Hogeita hamar litroko garrafa bat bete dugu. Autoaren sabaian ipini eta gomazko hodia erabili dugu depositoa betetzeko. Ez digute eskuak zikintzen utzi, dena Felipek eta Juanek egiten dute. Ehunen bat metrora polizia bat pasa da bizikletan. Urduritu naiz. Barre egiten du Felipek.

- Bost bat milioi polizia izanen ditugu. Gehiegi dira denak zuzenak izateko!

Auzoak beha dauzkagu. Inor ez da harritzen, ohitura izanen dute turistak ikusten Feliperenean. Ordaindu dio Ñengék, eta nor baino nor kubatarrago eskua elkarri emanda atzera egin

dugu Juanekin. Mutil isila da. Heldu gara *pontxerara* eta mutila barruan sartu da. Eskerrak eman dizkiot kontaktoari, eta ezer zor diodan.

- Lasai, konponduko naiz Feliperekin.

Hartu dugu Banes aldera. Irratiak prostituzioari buruzko saio bat ematen du.

- Hi, nola zeukan Felipe horrek hainbeste gasolina?

- Semea-edo estatuko kamioiren batekin ibiliko duk eta, egunero apurtxo bat kenduta... Kuban kubatarra nagusi!

Geure buru ganean ez dabil *aura tiñosarik*, malobretan harat honat dabiltzan ehiza hegazkinak uxatuak dituzte.

Ikusi naun, B.? Ez naun iraultzaile bat bezala portatu, eta ez dinat batere kontzientzia txarrik. Ez naun heure apunteekin konformatuko, B. Juan de Begoña bat naun, B. berriak zeuzkanat gordeak espainolek hondoraturiko neure galeoian. Egin ezan barre, bai. Damutuko zain.

- Santiago... hain ederra duk?

- Motell...! Kubara etorri eta Santiago ez eza-gutzea Erromara joan eta Pisako Dorrea ez ikustea bezala duk!

-XII-

Ñengé etsita neukan ez etortzera, baina probintzia bateko *guajiro* mulato zuriska batek santiagotar habanero telefonoa baino beltzagoko beltz bati purotxoa bere *bemba* ederretarik kendu diola ikusi dut nik, eta badakit derrota baten lekukoa naizela. Minduta dago Ñengé hargatik, eta kezkatua, ezin izan dudalako *zafran* gelditu. Ez nuke nahi gorrota nazan. Beraz, Baneraino etorri gara neuk nahi dudalako, eta ez beste ezergatik: amorante bat dauka berak hemen. *Bohío* apalez eginiko auzune batean dauka etxea. Inguruan jaio zen Rubén Zaldívar. Ez da oso ezaguna izanen Rubén Zaldívar hau euskaldun batendako ere, halako izen ederra eman zioten mutiko beltzaranak gerora Fulgencio Batistarena hartuko zuela argitzen ez bazaio. Ñengéren amorantearen ama irten zaigu, berrogeita hamar bi urte ditu. Zimela, zahartua. Bezperan *majá* bat akatu zuten etxeondoko baratzan. Senarrak sei infarto eta bi tronbosi izan ditu, aitona ospi-

talean dute hilaginean, hantxe dago Diana, zaintzen.

Banesko ospitalea zikina denik ezin da esan, oso garbia da, Banesko ospitaleak dituen baldintzetan inon izan litekeen ospitalerik txukunena da segurrenik. Halako solairu txukuna zeukan duela hogeita hamar urte nire herriko udal hiltegiak, han ibiltzen gineneko hezetasun berdina sentitu dut, han aditzen nuen usain sarkor lakar bera aditu dut botikategiaren aurretik iragan naitzenean lurrin betegarri batek leundua, eta behorrak botzen zituen matarifeagana bezain isila sartu naiz goiko logelan.

Hainbatgarren aldia dut kondenatuaren ziegan sartzen naizela azken urteotan, oraingoan ez da adiskide bati betirako adioa egiteko baina. Haiekin gertatu izan zaidan bezala, gaur ere burdina herdoilduak baino, ez dabilen bentiladoreak baino, ibiliaren ibiliz koipetan beratuak diruditen koltxoiek baino, ondoan dituzten lagun eta ahai-deen solas ergelek baino, jadanik aurpegian ehortziak dauden begiek baino, biriketako minbizidunaren eztulak nau lazten hamahiru gizonezko hondatu hartzen dituen gela honetan.

Dianaren aitona eldarnio batean dago, ez du onartzen pilularik, ahoan ipini orduko bota egiten du. Nire ondoraino dator txakurtxiki bat bezala pilotari txarraganaino. Makurtu eta hartu egin dut, txipia da oso, arroxak kolorekoa.

- Ez, ez du balio, bota ezazu!

Ez dut bota, gorde egin dut eskuan. Izara ere zikindu egiten du aitonak. Medikua sartu da, Chevrolet nabarmen bat. Ni baino arrotzago ematen du hemen. Distraktu nau, hori bere alde. Irteterakoan botikategira behatu dut berriz, eta berriz ere iruditu zait, lepoa jarriko nuke, han dagoen erizaina ezaguna dudala, Barakaldoko neska gailego bat. Beha gelditu zait, bera da.

- Idatz ezak, idatz ezak ospitale honetaz! Hau duk Kuba!

Bembak apurtu nahi nizkioke ukabilkazo batez. Garagardoak zorrozitutako eztabaida gogorra izan dut Ñengérekin Kubako osasungintzaz. Ez du sinesten nik berrogei dolar ordaindu behar ditudala hagin bat kentzearen, eta nik ez diot sinesten atzeritik laguntza solidarioan heldutako botikak farmazietan salgai jartzen direlako atzeritarrok berriz eros ditzagun dolarrak

uztearren. Bere lagun baten tarjeta atera dit, garaia zuen, ez dago adiskide euskaldunik ez duen habanarrik. Bilbokoa da, euskaldunak ditu abizen biak.

- Ventolin mordo bat ekarri zuen, eta gero salgai jarri zituzten!

Ez dakit egia den, eta Ñengék ere ez daki egia den, baina sinetsi egiten du. Berak ez baitzuen ikusi. Orain bere adiskide bilbotarrak ez du Ventolin biltzen, koadernoak baizik, eta berak banatzen ditu eskoletan.

- Hori ez duk elkartasuna!

- Karitatea ere ongi hartzen diagu hemen! Ez duk ospitalea ikusi?

Hatzetan min hartzeraino estutu dut pilula, ahoan sartu eta hagin tartean birrintzeko gogok hartu nau. Zurruta gehiago behar dut. Ñengé da orain errukitu dena:

- Polita duk Diana, ezta?

-XIII-

Banes guztia dago guri beha, urteroko Nekazari Feria dela eta Banes guztia kanean dabilelako, eta *Kimbamban dagoen* herri honetara bi habanar bitxi heldu direlako egun: *malinké* lotsagabe bat eta ondotik doakion *kandanga* txipi bat, guarapoa, garagardoa, zerrikia, mania eta guayaba goxokiak jan eta jan herriko ume guztiak ondotik jarraika. Umeeek gure ontziak nahi dituzte, garagardo eta kokakola latei goiko aldea kendu eta ezpainak leunduta oso edalontzi ederrak gelditzen baitira, maionesa potoak baino sendoago eta politagoak noski. *Guajiroek*, mulatek, *minintekoek*, dendariak eta zaldiek ere uste dut burua jiratzeko dutela gure atzetik. Errege dabil Ñengé, eta sinetsezineko jauziak egin dizkit ozengailuetarik gaztigu eman dutenean baieztatzen ahal dela Banes bidean dugula *Adalberto y su Son* hemen bertan jotzeko gaueko bederatzietan. Zisterna kamioi bat, *pipa* bat, heldu da garagar-doaz betea, baina biharko.

- Gaurko festarako rona bakarrik, ez dute nahi biak nahastea! *Guajiroak sambekea maite dik!* Eta gaur Adalberto! Motell!

Launa Mayabe garagardo lataren jabe egin dira gure ume jarraitzaileak, eta jarri egin gara plazan. Martí plazan, noski.

- Hik behaiezaiok ongi Martíri, ez duk ezer nabaritzen?

- Bai, lurrera beha dagoela, eta Habanan ere bai.

- Ez, hori ez, kozkorra!

Itzuli bat eman diot Martíren eskulturari. Ez diot ezer berezirik ikusten.

- Sakelan, ez diok kozkorren bat nabaritzen?

Ez dut deus sumatzen Martíren sakeletan. Nik hari bezala behatzen didate umek niri. Baina ez dute denborarik izan Martíren historia boligrafo baten truke beren ahotik entzun nahi dudan galdetzeko.

- Printzesa bat ematen dik!

Ez Martík, Dianak baizik. Jendeak ere bide egiten dio. Guganantz dator. Ñengéganantz, tamalez. Eta irribarretsu. Dianarik ehiztariena da oraintxe Banesko mulata gazte hau, bi toaja za-

harri kremailera bat josita nolako gausoinekoa egin litekeen erakusten digula. Gorputza behar, gorputz hau behar. Hirurehun libra *karabalin* murgiltzera datorren gorputz *apobangakoa*, ez du hitz hoberik euskarak! Printzesa bat ematen du, baiki, eta Ñengé errege aita, koroa ordeztatzeko kapelua buruan. Banesko mutil guztiak marmarka ariko dira noski, habaneroak akatzeko planak egiten.

Dianak hogeitazero urte ditu eta atzo bertan eman diote UJC, Gazte Komunisten Batasuneko karneta. Harro dago, karneta ez baitaio nornahiri ematen. Laster unibertsitatean hasiko da, kontabilitate ikasketak burutzeko. Ñengék orduerdi bat eskatu dit. Bakean utzi ditut, eta kubatar bezala egin nahi dudan lehen ekintzarako prestatu naiz: hiru *kuadra* hartzen ditu *Adalberto y su Son* entzuteko sarrerak erosi nahi dituztenen ilarak. Bertan nagoela, Dianaren lankide bat heldu zait kaxa bete garagardorekin. Opari bat Ñengéren partetik. Pikutara bidali dut. Ez du ulertzen, baina aldegin du noizbait. Ilaran bertan akatuko naute noski. Adalbertok salbatu nau, zeren, niretzat behintzat ustegabea, ozengailuek jakinara-

zi baitute Adalbertok ezin duela egun Banesera heldu garraio arazoak direla eta. Ez dago ez fisurik ez oihurik. Garraioak arazoa dira Kuban, eta jendeak ulertzen du, eta menturaz ni baino sineskorragoak direnez segurtzat joko baitute ozengailuek dioten bezala hurrengo larunbatean hemen izanen delakoa. Bakean sakabanatu gara. Eskerrak, Adalberto. Ez, eskerrak garraio arazo.

Martí plazara hurbildu naiz, baina alferrik saiatuko naiz sakeletan kozkorrik duen aztertzen. Ilundu du eta, iluna ederragotzeko, ilunpe bat gertatu da, itzaltze bat. Generadore txipi bat ipini dute martxan, eta kamioi zahar batean paratua daukaten diskategia hasi da buila zabalitzen. Adalbertoren azken kantak barreiatzen dituzte. Ez dut gustoko. Dianaren lankidea hurbiltzen zait.

- Garagardoak bakarrik ordaindu dizkit!

Ez entzuna egiten dut, badaki txekiarra naitzela eta ezin diodala ongi ulertu batzuetan. Botilak ere ordaindu beharko omen lituzkeela nire adiskide horrek, ez ote dakidan non dagoen.

- *Txekendenge longorí semó!*

Ez du txekiera hau inoiz entzun, ez da haba-
narra gizarajoa.

- Baina, baina hi... hi ez haiz txekiarra...!

- *Txekendenge longorí semó!*

- Baina zuria haiz eta hitz horiek...!

- *Txekendenge longorí semó!*

Benetako *ñañigo* batek zemai egin izan balio baino arinago egin du hanka bera ere komunista omen dudan, komunista demokratizatua baina, kooperatibako garagardoak hartu eta jende guztiaren aurrean bere katanarrurako saltzen ari den bizkor usteko honek. Ni ere nago ez ote doazen hemen denak *uangá* edo *vodú* egitera, banestarrak hara eta hona ikusten ditut oilo zuri bana hanketarik daramatela. Halako batean ospitalera abiatu naiz, Barakaldoko gailegarekin hitzaspertu bat egitera. Besotik heldu naute bidean. Dianaren beste lagun bat da, bera bezain esanen nuke, aspertu eginen naizela eta konpainia egitera etorria haren aginduz. Ezta batere. Aspertuko, alegia. Gaztea da, eta ezin dut berezi *malinké* edo *mayombe* den, argia ez da itzuli.

- Esanen al zenidake zer den Martík sakelan duen kozkorra?

Ez dit erantzun nahi, baina irriñoagatik esan nuke ez dela ez dakielako. Aurreratu diat zer edo zer, Martíren kozkorrarena alusio sexuala izan behar dik. UJCkoa da hau ere, Sandra, eta edertasunagatik onartzen dituzten galdetu diodanean bekozko jarri zait.

- Ohore bat da, aizu!

Bost orduerdi beranduago heldu da Ñengé autoa genuen ingurura. Alai dator baina kezkatuta niregatik. Ulertzen dut, ulertzen dut. Etxeraino lagundu baitu eta...

Landó, kabriolé eta nik dakita zenbat zalgurdienartetik irten ahal izan dugu Banestik. Ez noa haserre, isilik noa erne ibili behar delako bizikletekin, argirik gabe doaz gehienak.

- Behiak denak!

- Bai...

- Behiak denak dabilta argirik gabe.

- Bai...

- Horregatik ni beti gaez argi luzeak emanda ibiltzen naiz...

Ez Indian bakarrik, Kuban ere behia eta *zebúa* abere sakratuak dira. Zenbat aldiz ez dit esan hurkoaganako elkartasun berezirik ageri ez

duen Ñengé honek kontuz ibiltzeko behi bat jota bota, galera handia izanen litzatekeela, eta ez autoa hondatuko genukeelako. Behikiaren okela erierendako da Kuban, horregatik dago arrazionatua.

- Estatuak egiten du zerbait ongi orduan...

- Hori, oso ongi!

Giltza txipi bat erakutsi dit, zazpigarren gela-koa. Oroigarri bat izanen du, Banesen jo duen txortarena.

- Larrubizirik jarri denean, ez nekien burutik hasi edo zangoetarik!

Ez du galdetu beharrik detailetan hasteko. Europarra balitz ez niokeen sinetsiko, eta orain kontatzen ari zaidana bera izanen zatekeen hutsaren froga. Baina Ñengé kubatarra da kubatarrik bada, eta egin duena esaten duen arren, litekeena da, oso litekeena da, esaten duena egin izana.

- Eta hi, zer moduz Sandrarekin?

-Fideltasunak V-
Mila milioi hiztun
baino gehiago
eta mila irakurle
baino gutiago

Habanan, Zanja karrikan gora, Ayestarán-ena gurutzatzen zaionetik hurbilean, auzune berezi txipi bat topatuko duzu: kasinoaren teilatua, zinemaren fatxada, zineman ematen den filmea (gaztelaniazko azpigituluz), botika zaharra Pasaiako portuan marinelek saltzen dituzten ukendu miragarri berdinak apaletan, hoberik ezean Harresia izena duen jatetxea, egunero egiten den merkatua (Kubako produktuekin baina), eta ezkerrean hartuta, Zanja bera baino are zikinagoa dagoen San Nikolas karrikan... egunkaria! *Kwong Wah Po, Herriaren Egunkaria*. Txinarra, auzune guztia bezala. Eta noski, Pekinen zaudelako irudipena bortitzagoa izan dadin, ehundaka

bizikletari trebe norabide guztietan, inurritegi mekanikatu bat.

- Mila ale botzen ditugu.

Ramon Wong Man Ken jaunak administraritzza darama eta Alfonso Txao Txiu zuzendariaren gaztelania traketsari laguntza ematera hurbilduko zaizu galdezka hasten zaren bezain azkar. Berrogei bat urte heldu zirela Kubara, baina lana emanen dizu biei ere ulertzeak. Harrituko dituzu musuzuri horrek horien kazetaritzaz interesatuta, jardun iezaiezu Euskal Herriaz eta zure hizkuntzaz kemenik baduzu. Eta egia esan, ez daki zu zergatik arduratu behar lukeen euskaldun batek mila milioi hiztun baino gehiago dituen hizkuntza baten egunkaria dela eta. Ez da txinerra galduko egunkari hau itxiagatik.

- Nongoa zara?

- Euskalduna.

- A, bai, Italian dago zure herria!

Europar behintzat. Kubako txinerazko lehen egunkaria 1924an sortu zen, *Man Sen Yat Po*, eta txinerazko kazetaritzaren urre aroa esan genezakeena mende honen erdialdera garatu zen, Txiang Kai-Shek-en nazionalisten eta Mao Ze-

dong-en komunisten arteko gatazkan. Orduan egunkari bana argitaratzen zizuten borrokariak Kuban, eta dendari txinar guztiek erosten zituzten biak, eta bietan, zer gerta ere, egiten zuten publizitatea.

- Eta bi egunkariak ere, ez ote zituzten kazetari berdinek egiten?

Irri egin dute, irri txinarra egin dutela iruditu zaizu, barrea, tortura bezala, txinarren berezitasuna ez dela badakizun arren. Egizu irribarre zeuk ere, erantzunik behar ez bazenu bezala.

Kwong Wah Po (*Txung Wah* Kasinoaren Aldizkaria) astean hirutan argitaratzen da, astelehen, ostegun eta larunbatetan. Hurrengo larunbatekoa ere luzatuko dizu opari Txao Txiu jaunak ostegun batean baldin bazoaz. Ez dirudi publiziterik dakarrenik, eta finantziabideaz galdetu diozu, enbaxadak laguntzen ote dien, eta ezetz.

- Papera Kubako Gobernuak ematen digu doan.

Eta atzeko gela ilun eta zikin batera eramaten zaituzte, non 1910eko errotatiba estatubatuar bat ageri den hogeiren bat paper bobina erraldoiren erdian. Ez da inoiz matxuratu.

- Laurogeita bostetik laurogeita zazpira ez genuen argiratatu ahal izan, paper ezaz.

Lau orrialdeko egunkari hau egiteko (pliego bat) hamaika langile mobilizatzen dira, hauetarik lau erredaktoreak, eta penaz aitortuko dizute-nez, irakurlegoa adindua da, zazpirehun bat txinera-mintzaile geldituko dira uharte osoan, zenbait gazte Vedadoko Hizkuntzalaritza Akademian txinera ikasten ari den arren.

- Baina txinera oso zaila da ikasteko.

Euskara baino errazagoa ordea.

- Nazioartekoak, Txinakoak eta Kubakoak dira gure albisteak.

Hemen, noski, ez dizute orrialdea ordenagailuz osatzen. Linotipia erabiltzen da, hantxe daukate tipoak sortzeko berun-arragoa ere. Zoragarria duzu tipografia txinarra, pintore zoro batek eginiko zeinu kabalistikoetan barrena pasatzen dituzu erpuruak. Ez duzu ezer berezirik nabaritu-ko, baina bai atzamarrak zikindu. Lau tipo tamaina daukate, titularrak eta testu xehea bereizte-ko. Tipo batzuk oparitu nahi dizkizu Wong Man jaunak. Ezetx esaten diozu, pena izanen litzate-

keela batere gabe gelditzea... Barre egiten dizute biek berriz.

- Zenbat karaktere ditu txinerak?
- Hirurogei mila.
- Arraioa!
- Baina bost bat mila dira erabilienak.

Zer edo zer esan behar eta, galde iezaiezu kantonera eta pekinera oso desberdinak diren. Harrituko dituzu berriz, italiar hau oso jantzia zegok.

- Dena da hizkuntza bera, berdin idazten da.
- Baina desberdin ahoskatzen omen dira.
- Kantonera, entzun: *uiiiñ-uh!*
- Pekinera, entzun: *uiiiñuuuooo!*
- Pekinera askoz ere leunagoa da!

Eta berriz ere irri batean, dragoi lasaitu bat bezala zuzendariak:

- Kantondarrak mailuka mintzo dira, *japoniarrek bezala...*

Egizu irri lasai, zuk ere mesprezatzen dituzu Kurosawa-ren pertsonaia ahots-zakarrak. Baina badaezpada:

- Zuek pekindarrak zarete noski?

Eta biek batera, irria galtzeke:

- Ez jauna, gu kantondarrak gaituzu!

Karaktere batzuk oparitu nahi dizkizute, eta zeure herriaren izena galdetzen dizute ostera. Ez dakizu zer erantzun, izenik ozenena eman nahi diezu, eta laburra, sakelak karakterez bete ez diezazkizuten.

- Kuba.

- Kuba? Ez zara italiarra?

- Zuek kubatarrak bezala!

- Noski, noski, ja, ja, ja!

Alfonso Txao Txio zuzendariak betaurrekoak jantzi eta karakteretan miaka ibili da, xehetan. Bi tipo ekarri dizkizu.

- Beha, horrela da txineraz: *Ku-ba*.

Hiru hortzeko xarde bat gider bihurritu batekin eta gainean gurutze bat duen laukitxo bat. Ipini itzazu bata bestearen gainean.

- Horrela?

- Baina nolaz dakizu txinera goitik behera irakurtzen dela?

Erredakzioko mahaien artetik sarreraraino eramane zaituzte. Sartu zarenean bezain zakar behatuko dizu atezainarena egiten duenak, *Far West*-eko banku baten bulegoa dirudien burdi-

nazko kaiolaren hagen artetik. Horrelakoa izan zen Marco Polo ikusi zuen lehen txinarrak botatzion behakoa.

Atzean, Uztailaren 26ko bandera gorri-beltz bat eta Fidelen argazki bat, gaztea zenekoa. Che ere han daukate, ondoko paretan. Beherago, Camilo.

- Euskalduna zuen ama!
- Camilok? Ez genekien...
- Pancho Villa-k bezala!

Ez dakite nor duzun Pancho Villa hori. *Herriaren Egunkari Txinarraren* arduradunek kubartasuna frogatu beharra ote daukaten eginen diozu galde zeure buruari, eta gogora etorriko zaizu berehala Alfonso Txaok eta Ramon Wongek eskaini dizuten irribarrea galdetu diezunean Kubako Gobernuak nola jakin dezakeen txineraz argitaratzen dutena ez dela kontrairaultzailea.

-XIV-

Hirugarren *pontxatzea* izan dugu goiz berean, zorionekoak gara. Eskuak zikindu behar izan ditut noski, eta nik ere ez dut egunkari ofiziala eskuarterako erabili nahi izan.

- Granmak berak baino delitu handiagoa daukak!

Aitzakia dugu Holguín hiribarnean sartu eta kurpila konpontzen diguten artean hotelen batean eskuak garbitzeko. Komunera noa zuzenean. Urik ez dago. Urik ez dago baina alkohola bai, bi *mojito* dauzkat prestatuak barrara inguratu naizenean. Erraz edaten dira, sobera erraz. Kamareroa hurbildu zait Ñengék Adalbertoren kanta guztiak agintzen dizkion bitartean Victrola zahar zoragarri bati. Nire osaba izan liteke agure hau, nire Kubako osaba aipaezina.

- Zu errusiarra zara.

- Bai.

- Eta zerak gustatuko zaizkizu...

Ezkerreko eskugainaren larruazal zuri orintsua igurtzen du eskuineko atzamarrekin. Uler-tzen diot.

- Noski.

- Bai, hala da, gizon zuriari mulatak eta gizon beltzari zuriak.

- Eta emakume beltzak? Ez ditu inork maite?

- Beltzaranak... *kandela dira!* Beretzat baka-rrik nahi dute gizona!

Ñengé barrarantz dator, begi bat itsutzen dit. Nahitarat ekarri nau nire osaba ezagutzera, lepoa baietz.

- Zuriak gustatzen ez zaizkiola dioen beltzak ez du bere ama maite.

Kubalibre bat eskatu du Ñengék. Keinu egi-ten diot alde egin beharko genuela, ez nuke mozkortzea nahi. Lasaitzekoa egiten dit, ez ditu-dala guztiak entzun. Oraindik frigorifikoan miaka ari dela, galde egin dit osabak:

- Jaun errusiarra, Kuban zauden denboran ikasi duzu nondik hartzen duen ura kokoak?

Algara egiten du Ñengék. Baiki, titi dantzari bat bezala gilborra.

- Eta, maite duzu putzutik edatea?

Ñengéren algarak osterá. Oráin entzun beharko ditut entzun beharrekoak, galdera hauek, doinuagatik, ez baitute zer ikusirik tabernako ohiturekin, eta datorren solasa iragartzen dute. Erantzun diplomatiko bat onena hanka ez sartzearren:

- Batzuetan...

Aurrez aurre datorkit, *kubalibreari* Habana Club-en publizitatea duen plastikozko ziri batekin eraginez.

- Zenbat jotzen dituzu *gauero*?

Enbidoari ez hamar gehiago, baizik eta bi gehiago besterik ez erantzuten dakienaren aurpegi soraioarekin bota dut lehor:

- *Gauero... bat!*

Algara egin du nire osaba kamareroak «*Gauero bat!*» errepikatuz. Ia hustuan dauka *kubalibrea* Ñengék eta ez du hemendik aurrera asko beharko zurrunga batean hasteko.

- Nik bart lau jo nituen! Belauneko minez nago horregatik!

Zangoarekin keinu Ñengék. Nahitarat ekarri nau, zer duda egin. Ez diot barre egin nahi osa-

bari. Bere aita ezagutu nuela esateko gogoak ematen dit.

- Hamabost urteko birjina batekin nengoen lehengo batean. Heldu zidan eta «Zer luzea daukazu!» . Esan nion, «Lasai neska, laster esanen duzu ze *motza zuen agure hark!*».

Ez dit barrerik eragiten osabak. Menturaz ohartu da ilobaren aurrean ari dela antzerkian, barregarri baino, negargarri. Zer edo zer sumatu du Ñengék, solasa aldatu du:

- Errusiar honek ez daki zer duen Martík sakelan!

Seriostu zait osaba. Besotik heldu nau. Ezkereskuin behatzen du, badaki bakarrik gaudela baina sasiak belarriak dituelakoa egin behar da noski niri esandakoa sinets dadin.

- Kartzelan sar gaitzakete!

Keinu egin dit berriz Ñengék. Ahapetik esan dit osabak, biziaren sekretua argituko balit bezala:

- Zuk ez dakizu nor zen *Ginebrita*?

- Ez...

- *Ginebrita* esan zaio beti...

- Ez dut uste kartzelarako modukoa denik...

- Egizu kontu bera dela Martiria, Apostolua, Egile Intelektuala...

- *Ginebrita!*

Hatuey garagardo botila bana azaldu da barra gainean.

- Beti zeraman petaka bat sakelan.

- Martíren *kozkorra*, ja, ja!

Ñengék ere kartzela arriskatzen du.

- Ongi behatzen badiozu Habanako estatua nagusiari, konturatuko zara eskua Floriditara luzatua daukala godalet bat ginebra eske!

- Horiek esamesak dituk...

- Egia duk, estatua guztietan lurrera beha zegok...

- *...guarapotuta!*

- Merezi duzue kartzela bai! Gezurrak esateagatik!

Osaba jakintsuak bezala eman dit errierta osabak.

- Aizu, zu... errusiarra! Dostoievskik ez zuen edaten ala? Noski! Nola nahi duzu Martík hainbeste esaldi biribil esatea edan gabe?

- Ez al zara ohartu baduela esaldi egoki bat egoera bakoitzeko?

- Hori ezin liteke *Ginebrita* izan gabe!

Zenbatu nahi ditut barra gainean dauden botila hutsak, baina nahasi egiten naiz. Behin eta berriz hasten naiz, baina ezin dut amaitu. Asper-tu egiten nau Salsak, ez dut maite Adalberto. Ez naiz inoiz Santiagora iritsiko.

Camiloren Metraileta Ekialdeko Armadak gorde ahal izan du, aurten ere Mendebaldekoari nagusitu zaio egin berria duten lehian. Bozkario-tan da Ekialdeko Armadako jeneral buruzagia, baina hobetu beharra dagoela dio, baratzetan eta ikuiluetan egin duten ahalegina handia izan-ik ere autohornidura ehuneko hamabosta bes-terik ez da oraino...

- Sierra Maestra!

Kubako ekialdetarrek diote, mendebaldekoak baino abegitsuagoak eta ordainzaleagoak direla-koaz gainera, beraiek direla iraultzaileenak, ber-tan sortu zelako *mambitasuna* iragan mendean eta bertan hasi zirelako lanean Che, Camilo eta Fidel... *Bohío* xume baten ondoan dago ezarria, bide bazterrean, Raulen tanketa tirokatu eta hondatua Cochinos Badiako inbasioa txikitu zu-tenean. Eta Camiloren Metraileta ez ezik Camilo bera ere Ekialdean dago:

- Ez omen zuan hil, Sierra Maestran omen zegok, eta irrati baten bitartez egiten omen ditik kontaktuak.

Ñengék ez du irrati hori entzun, aspaldian utzi zuen Ekialdea bizimodua Habanan ateratze-ko. Entzundakorik ere ez du ezagutzen, baina ba omen dago entzun duenik.

- Hil ez den bakarra Martí duk!

Ez du sinesten literaturaren indarrean. Badi-
tu poeta hilezkorragoak.

- Che ere ez duk hil!

Berehala, zurrumurru hauen ondorio ezinbes-
tekoa balitz bezala, edo omenka aipatu didana
berak ere sinesten ez duela jakin dezadan, aitor-
pen bat:

- Camilo hil egin ziaten...

Ez du salaketa bat egin, uste zabaldu eta
ahoz aho dabilena da, Kubako mito politiko auni-
tzetarik bat.

- Ama euskalduna zian, ez hekien?

Hemen dago El Cobreko Andredena Maria,
Kubako patrona, Ñengé bezalakoentzat, eta
asko dira hemen, gehiengoa esanen nuke, *Oxun*
dena eta izanen dena beti: erreka bazterretan

dantza egitea atsegin duen mulata ederra, ikusleak -sasiak belarriak ez ezik begiak ere baditu eta- zoratuz. Afrodisiakoa omen den eztiarekin igurtzitzen du gorputza, eta biluzi egiten da... *Orula* zaharrarekin ezkondu zen *Oxun*, baina in-satisfos gelditurik, *tarroak* jarri zizkion, adarrak, senarrari. *Xangorekin* bildu zen gero, baina senar hau emaztezale eta liskarraria izaki, laster zaharkitu zen, eta hara non katolikoen Ama Kari-tatezkoa den *Oxun* honek *Oggunekin* jardun zuen, esan nahi baita beltzek ez dutela amabirji-nen birjintasuna oso estimutan.

- Behin Andredena Maria sortzez garbiak eta Hamaika Mila Birjinek baimena eskatu ziotean San Pedrori mundua ezagutzeko. Eman zieran, baina gaueko hamabiak baino lehen itzultzeko-tan. Lehen egunean Frantzian barrena ibili zi-tuan, eta hamabietarako zeruan zituan osterate joka. Nor da? galdetu zian San Pedrok. An-dredena Maria sortzez garbia eta Hamaika Mila Birjinak, erantzun ziotean... ez duk ezagutzen ipuina, Ñengé?

- Ez...

- Ba bigarren egunean Italia ezagutu ziaten, eta berriro ere hamabietarako zeruan ate joka zintzo. Nor da? Andredena Maria sortzez garbia eta hamaika Mila Birjinak... Horrela ibili zituan mundua korri Kubara heldu arte.

- Eta Kuba ezagututa ez zutela zerura joan nahi!

- Ja, ja...! Itzuli hituan, bai. Nor da? galdetu zian beti bezala San Pedrok... Ez dakik zer erantzun ziotean atearen kanpo aldetik?

- Ez...

- Berandu itzuli zituan, goizeko ordubietan...

- Ez zekiat, kristauen gauzak ez ditiat ongi ezagutzen...

- Horrelaxe erantzun ziaten San Pedrok nor ziren galdetu zienean: Kontxita eta bere neskak!

- Ja, ja, ja...! Halakoa duk Kuba, Goldo...! Zelako herria! Baina hik... Hik nondik dakik hainbeste...?

- Nik ez zekiat ezer Ñengé, paperetan bizi nauk!

- Ez diat ulertzen, barka ezak *karabela*... Zer-tara etorri haiz Kubara? Hi ere gaueko hamabiak arte biziizan haiz bakarrik?

- Ja, ja...! Ez, ez nauk *horretara* etorri...

- Orduan?

- Ni *zafrara* etorri nauk, *karabela!*

- Damutuko zaik... Nahiago diat *giltza galdu zen lekuan* egon!.

- Esaidak, Ñengé, zein santu hartu behar luke kartzelatuak?

Irri karkailetan lehertu da, malkoak eten zaizkio.

- Behin jan egin behar izan nian dolar bat, badakik, dibisak debekatuak genituenean, poli-ziak harrapa ez nintzan... Osorik irentsi nian, eta hurrengo egunean osorik atera zuan. Garbitu nian eta pozik. Kubako pesoa izan balitz ez zuan osorik aterako, desegin egingen zuan.

- Gezurra esan badidak ere, sinesten diat... Dolarrak ez dituk liserigarriak!

Ez dago ados, baina isilik egon behar du argumenturik bururatzen ez zaionez. Moncada kaseruari eginiko jazarrean bizirik irten zelako Fidenen amak El Cobreko Andredenari eskaini zion *exvotoa* ikus omen dezaket bertan. Ez da aukera makala ez naizela inoiz eliza horretan sartuko esateko, ea izutzen den. Ikaratu zait Ñengé,

baina ez nire Fidelenganako begiramen apurragatik.

- Ez haiz fededuna?

- Ez!

- Nik *santua egina zeukaat...!*

- Etzak esan, urtebete egin huen zuriz jantzita?

- Bai, muttikoari ere egin nahi zioat, ea indartzen den. Garestita duk, baina merezi dik! Geroztik ez diat osasun arazorik izan.

- Garestita?

- Zazpi mila peso ordaindu nitian, eta ahuntz bat... Beha, hurbiltzen ari gaituk!

Ez da sinestekoa! Jamaika hurbilaren berotasuna nabaritzen du Ñengék, Santiago dugu bertan Bilbo bat bezala.

Kubako Santiagora joanen naiz ilargi batean

Santiagora joanen naiz

ur beltzeko kotxe batean...

Santiagon izan zela -Venus izeneko hotelean hain zuzen- frogatua dagoen arren, ez dut uste Lorca heldu zenik inoiz Santiagora, nire iritzirako aginduak berak adierazten du bete gabeko zin

bat edo gutzia geroko gerotan luzatzearen plazerra, nahiago du poetak Santiago ezagutu baino Santiago amestu. Pablo Milanesekek ere abesten du *Santiagora itzuliko dela berriz*, Txilekora, etorkizun hobe baterako uzten duen bidaia seguran. Eta ni ere, barka halakoen *mundela* egitea, beti nago Santiagora itzultzeko, orain arteko bisitek asegaitz utzi bainaute beti, Compostelak beste ezein herrik ematen ez didan tristura ematen baitit, baina ez dut aski, eta jakin egin nahi nuke zer den, harriaren grixak, lauzen leunak edo euriaren xeheak, topikoan hain neure-baitako eta barneder egiten nauena... Ez nuke nahi Santiago honek pizza nazan, ez nuke nahi B. galdutako uharte honetara berriz itzuli nahi. Zer nabil ni hemen ezin uler nazakeen Ñengé alai eta ulergaitz honekin? Erromes? Etxahun txipi bat Galiziarantz? Iraultzaren lurrinetan sauna bat hartu? Errealismo Miragarria *in situ* ezagutu? Ihesi nabil, liburu sobera irakurri dut ezer berririk ikasteko. Eta badakik zeren ihesi habilen, *txinito*.

- Motell! Bidetik aurrera jo behar genian Santiagora!

- Ez goaz Santiagora!

- Zeeer?

- Habanara goaz itzuli!

- *E per che, signore? No le piace il mio paese?*

Erantzun ieizadak egia Ñengé, esaidak garbi B.k ez nauela maite.

- Nola zegoen *zafra* Camagueyn?

- Esan diat... berde, hilabete beharko dik oraindik... Baina horrek zer ikusia dik...?

- Habanara!

-XVI-

Habanara... zertara? B.ri kargu hartzera? Oxuni leialtasuna eskatzera? Zeren izenean, zein eskubidez? Katanga hil zen San Pedro bizi delako! On egin dit zurruta piska bat egiteak...

Kanela koloreko mulaten bila Bayamoko parke nagusira goazela, Santiago ez ezagutzeko arrazoi prosaikoago bat eman dit Ñengék nahi gabe:

- Lisboaaren antza dik!

Ez nuke Santiago mesprezatu nahi. Dagoela poema baterako gai, etorkizun, eginkizun, asma-kizun. Dagoela ibili behar inizatiko baten helburu urruna. Maita dezadan Santiago B.k jadanik maite ez nauen bezala. Lisboan nagoenetan pentsatuko dut Santiagon nagoela, artifzialtasuna kenduko diot Tajora naraman saudadeari. Lisboa ezagutu duenak ez du Lisboaaren antzekorik ezagutu nahi (har ezan piropo bezala, B.).

Ez gara ilaran jarri, ilarak ez baitu aurrera egiten, bayamotarrek ez dutelako ohiturarik ezer ordaintzeko, ezta *Adalberto y su Son* entzuteko

sarrerarik ere, doan sartu nahi dute eta protesta baketsuan daude ate aitzinean. Egun, lurraldeko hiriburuan *Adalberto y su Son* baitauzkagu jotzen, puska batean Kuban emanen duen azken kontzertua Mexicora egin behar duen txangoa baino lehen. Atera hurbildu gara, han daude *minintekoak* eta arduradunak. Ñengék hoteleko gela-fitxa erakutsi die.

- Turista!

Aurpegira behatzen diote. Ez itxurak, ez ahoskerak, salatzen du turistarik, lastozko kape-lua jantzia badarama ere gaueko hamabiotan. Heldu diote. Atzera bultzatzen behar diote, eta *kún-bila* naizenez, arma atera behar izan dut nire ba-kezaletasuna gairatuz adiskidea salbatzearen. Maiakovskik bere igarobide gorria Mendebaldeko polizia eta mugazainei erakusten zien bezain harro eta ondorio ikaragarriaren jakile ipini diet begipean *nire* igarobidea Mendebaldeko azken iraultzaileei. Horixe egin dinat, aitor dezadan. Jada ez naun euskalduna ere. Turista zikin bat naun, B.

- O, espainolak!

- Aitzina, aitzina!

Izan ere, turistek ez baitute zertan jakin non saltzen diren sarrerak eta...

- Beha, beha!

Dantzaleku ireki hau *bayoyo betea dago* eta hamaika mila ipurdik, sei mila bularrek jo, bultzatza, laztandu, masaiatu naute Adalberto eta bere taldearen ingurura hurbildu nahi dudalarik. Nork bere dantza egiten du hemen, hark *gurunbé*, honek *txantxamelé*, besteak *masukamba*, honantzakook *tinbeke* batean ari dira, halako ikara eta zorabio sutsuan non badirudien *Txangó jaitsi zaiela*, edo *Yemayá*, edo *Otxún*... Fray Bartolome baten gatz-ozpinduba behar luke batek hemen ikusten ahal dena deskribatzeko: leloa dantzari guztiek dabe errepikatuten, txaloka egiten dabela. Dantzariak besoak jaso ohi dabez kriskitina joteko lez, jauzi egiten dabe, atzera eta aurrera, hurbilduten dira elkarrengana lizunki doinuari jarraituz, danborraren soinu berezi batek gomutarazten dautsenean gorputzak juntadu dagiezala bataren izterrak bestearen izterregaz joteraino, hau da, gizonezkoek andrazkoekin, hauetariko ez gitxik sabelegaz be josten dabela elkar. Atzera egiten dabe ostera be tximinokeriatan, jardun

bera barritzeko imintzio eta keinada guztiz donge eta ezainaz, ze esan lei danborraren soinuak aginduten dauzela beren gorputzen mugikerak. Aldiz aldiz elkarri oratuten deutse besoe-gaz eta hiru bat lau jira egiten dabez, izter sabelak dardar batean astinduz eta joz eta askotan be ezpanetan elkar mosukatuz...

Dударик ez da, Aragon orkestra, Vam Vam taldea eta Adalberto ditugu egunotan Kuban *oihuan dauden* taldeak. Jendea zoraturik dago. Fruta zukuak besterik ez dira ikusten eskuetan, kokakolaren bat. Bazter batean dagoen txosnan ere ez dut garagardorik atzeman, hain guti ronik. *Guajiroak sanbekea maite dik*, hobe lehorrean. Habanarra ez den oro *guajiroa* besterik ez da. Habanarrek bakarrik dakite sutu gabe edaten.

- Beha, beha!

Batzuetan uste dut Ñengé ari dela Kuba deskubritzen, eta ez ni. Ez dut behatzen, ez berehalakoan behintzat, zain dezagun jendetasuna. Sinesgaitza da emakumezkoen gorputzek egin ditzaketen kontorsioak. Indar handia behar da ipurmasail ederrok hala itzulikatzeko, batez ere zangoak lurrari kendu gabe, dauden lekutik

mendrenik mugitzeke. Letrak ere dantza egiteko modukoak dira, kasu handirik egiten ez badiezu hobe. Egia esan, Victrola zahar batean baino hobe da Adalberto zuzenean. Bera da taldeko zaharrena, kantarietako bat suhia du, eta tronboijoleetan dagoela esan didate bere semea. Egia izan behar du Mexicora jo behar duelakoa, hala agindu omen dio produktoreak, eta hamabigarren kantarekin eman dio amaiera gaurko lanari. Despedida bezala, *Txangóri* eskainitako kanta bat abestu dute *lukumíeraz*, jendeak ko-reatzen duena. Besoak altxata, mugimendu harri-arrigarri lasai eta konpasatuak egiten ditu entzule-dantzari samaldak, eliza luteranokoak ematen dute orain. Euskal Herrian jendeak subiztekoei eraginen lieke, baina hemen ez dago subiztekorik, tronpetariak bakarrik atera ahal izan du txiskeroa sakeletik, eta biztu. Ez da oihu zakarrik, ez fistu haserririk, sakabanatzen hasi garenean. Ez dut uste bayamotarrek Adalberto entzun ahal izanen dutenik laster batean.

Irteeran ez da arduradunik ageri atearik zabal-tzeko. Han dauden *minintekoek* ere ez dakite gilitza non egon litekeen edo nork eduki lezakeen.

Haatik nonbait egon behar du, sartu garenean atea zabalik zeuden behintzat. Lasai daude beha, hiru bat metroko burdinazko atea jendeak nola igan, zangolatraba jarri eta gainditzen duen. Emakumezkoek ere beste hainbeste egiten dute, dozenaka esku zerbitzalek laguntzen dietela galtza motzetan eta gona ezin estuagoetan sartuak dituzten *fambá* biribiletan zabal ezarrita gorantza bultza eginez. Irri egiten dute *segurosoek*. Ez dago haserre berezirik. Minutu batzuk lehenago zoratuak eta *tereketé* batean zeuden bayamotarrok, itsaso bare bat dira marea goraren zain ateari gain egiteko.

- Kontuz, kontuz!

Bizikleta bat da orain atetik gora egin duena askatasuna lortu nahirik. Hamaika mila uzkie eta sei mila titik zukutu behar naute. Ñengé bezain izerditua baldin banago barregarri egon behar dut. Barregarriago egonen haiz, *konpai*, burdina hauetan gora ezin iganik.

-Fideltasunak VI- Euskaldun batzuk

Habana bezain dekadentea duzu bazter batzuetan, denda erdihuts ederrak eta hemeretzi-garreneko edaritegiak, hura baino industrialago eta aldeberean garbiagoa eta gainera, kontuan hartzekoa, batere turistikoa ez, gidaliburuetan *Kubako Venezia* bezalako kurtsikeriaz esaten diotela irakurriko duzun arren. Hiri txipi eta ederra duzu benetan, ibai gaineko burdinazko zubiek ematen dioten noblezia ibaiaren beraren bazterreko auzuneez gizakortu egiten dutela, beren koloretasun eta zalaparta alaiarekin. Ez zizun gezurrik esaten aitonak, Matanzas bezalakorik ez zegoela zioenean.

Guipúzcoa ontziak eguraldi ederrarekin jo zizun Habanako portua, beste hainbatetan bezala, 1897ko ekainak 30. Jende samalda handi bat zeukan zain, ikusleak, tropak eta buruzagiak. Ontzitik, dotore eta izerditan, *Baskongadetako Terzioak* irten zitzaizkizun, eta haien artean zure

aitona, Espainiaren zati hura maceotar muturzapal moruen atzaparretarik askatu nahian.

Habanako euskaldunek, Julián de Zulueta eta Agustín Valdés de Arostegui, Kañongo-ko Kondea buru zituztela antolatua zieten harrera sutsua jasan behar izan zuten tropek eguzki galdatan moilean. Uharteko Gobernadorearen hitzen ondoren, bertako merkataria zenuen D. Juan María de Eleizegui mintzatu zitzaien euskaraz:

Osasuna, euscaldun gazteriarri:

Poces beteric arquitcen dira, egun eder onetan, zuen erritarrac eta beste Provintzi Españiaco-en seme prestu ta leialac, elduceratelaco zorionarequin Uri onen portura, eta bereistaturic Batzar bat edo dala Comissioa, datoz berarequin zuei eguitera ondo etorria: bideonez eta gucien icenean, nic ematendizutet ongui etorria, biotzeco naitasunarequin, otsare gozoz beteric.

Atozte, bai, atozte, Euskal-errico tercio portitzac, Cubaco Ugarte español onetara, zuen anaiari laguntcera, lembailen bucae-

ra emateco guda caltarquitsuari eta etsai
dollar orri.

Dembora gucietan Euscal-errico semeac
izan dirade ala ichasoz nola lurrez, gaiñ ga-
ñeco gudari leialac, portitzac, ernaiac,
alaiac, galantac eta prestuac, jaquin izan-
dutenac Ezpañiaco bandera garbia ifincen
garailari chit goitua, ala mundu zarrean
nola berrian, baita ere ichasoco ontzietan,
beren eguinde gogoangarriaquin.

Euscaldun arguidotar oien icenac daude
chit aguirian jarriac condairan, ta orregatic
eztitut icendatcen.

Zuec, oroituaz ceratela oien sustraietatic
zatozten semeac, eguingodezute aleguiña,
bicia galdu arteraño, iduquitceco Ugarte
guci au Ezpañiaren mempean, cergatic dan
beraren ondra eta orrena da gurea, eta
iduquibeardegu Ceruraño jaso, español
bat bacarrac daucan artean bicia.

Garaiko kroniketan irakurri ahal izanen duzun
bezala, puntu honetan zure aitona eta beste

ehundaka euskaldun haiek *!!! arte! !!! arte!* oihukatu omen zizuten.

Bandera eder ori izangoda zuen biotzac indarrez betetceco eta erru aundiarequin etsaiari jazartceco eta garaitua utcitceco, obiaturic mendi sasi tartean edo aitz zuloetan; orduan emangodiotzute Españiari eta bere seme on guciai, beste egun eder bat, ceña izangoda oroipengarria beren biotzetan.

Eta oraiñ oju indartsuarequin esanzagun, iiViva España!!

Viva! erantzunen zizuten noski gudari haiek, lehen *!!! arte!* bezain kartsuki. Aitonak behintzat ez zizun borrokatu bizia emateraino, osorik itzuli zitzaizun hamar urte geroago, Kuba Espainiarentzako gudari zapaldu ondoren bere sakelerako zapaltzen ezarri baitzenuen Matanzas-en dendari.

Aitonak seme bat izan zuela bertan aitortuko zizun aitak haren azken adinera heldu zen egunean.

-XVII-

- Sentitzen dut, ezin duzu sartu.

Izan dugu arazotxoren bat edo beste lehen ere, baina Ñengé neure kontu dagoenez eta dibi-setan ordaintzen dudanez, pasatzen utzi izan dute orain artean. Ñengék ez darama zedularik, edo baldin badarama ez du erakutsi nahi, auskalo. Zedularen zenbakia esaten dio buruz.

- Eta nik nola dakit hori dela zure zenbakia?

- Nork zuk baino hobeki...?

Elkar ezagutzen dutenenak ikusi ditut bien behakoak. Dena jendetasunez, ahotsa goratu gabe, kubatarrek duten pazientziarekin. Batek badaki besteak dakiena, eta besteak badaki besteak dakiela... Ni isilik hobe. Irteera bat aurkitu du hotelekoak, gutun bat idatziko dio Poliziari.

Karpetatik Lehen Unitateari:

Jaun hau Hotel honetan azaldu da bere identifikazioa gabe. Ahal balitz, agiri bat behar genuke bere nortasuna ofizialki ziur-

tatzeko. Osterantzean ezin izanen du gure instalakuntzetan ostatu hartu.

Besterik gabe, iraultzan bat

Karpeta

Hotel X. Santa Clara

- Kakajale bat!

Baina abiatu gara Unitatera, komisaldegira. Oroitzen da non dagoen, umetan hemen bizi izana omen da. Gelditzeko agintzen dit.

- Hor ezkerrean duk, ez diat turismo auto batetik irteten ikustea nahi.

- Ez duk laguntzea nahi? Igarobidea aterako diat Holguínen bezala...

- Ez, ez, edozer gauza pentsa lezakete... Hi geldi hemen!

Gogora datorkit Habanan polizia gazte batek, ume batek, eman zidan ikara, gero eta segurrago nago betaurreko beltzen atzetik behatu zidako ikaratu ninduela. Egia da Kuban poliziek, ezta isilekoek ere, ez dutela betaurreko beltzik erabiltzen. Polizia hark, Polizia Nazionalek iraultzailerik hark, Kubako polizia ez balitz bezala behatu zidan, munduko polizia guztiak berdinak direla-

koa baieztatuz. Nire legehaustea On Kixoteren istorioa kontatzen zidan ume bat aldamenean edukitzea zen, edo haren ondoan jesarrita egotea... Elpidio Valdés etorri zitzaidan gogora, Juan Padrón zinemagile kubatar handiak sorturiko marrazki bizidunetako heroia, eta haren ibiliak New Yorkeko Poliziaren aurka...

- Kakajale bat! Esan diat, nola arraio arduratuko duk Polizia turismoaz! Gauza bat duk turismoen arau inozo horiek, eta bestea identifikazio zerbitzua! Nik ez zeukat fitxarik! Zenbat *bi-tongo* mantendu behar duen Fidelek!

Baina ez dute hartuko hotelean, sentitzen dute Lehen Unitateko gizonak ezin nortasuna segurtatzea. Arauak arau. Holguíneko hoteleko gela-txartela erakusten du. Alferretan. Zedula ekarri baldin badu hauxe du Ñengék amore eman eta erakusteko unea. Baina ahapetik:

- Hik hartzak gela hotelean! Ni izebarenera noak, eta bidean agian txortan egin ahal izanen diat! Utz iezadak autoko giltza!

Leher egina nago eta obeditu egin dut. Ez nukeen bakarrik utzi behar, ez da detaile jatorra izan nirea. Lasaitu egin naiz pentsatuz izebarena

egia izan litekeela, Santiagorantz hemendik pasa ginenean geldialdi bat egin genuen bere izebaren etxean, mezedoretan egon ginen ur freskoa edaten berriketan... Leihotxo bat du gelak. Atearen barneko orria zabaldu dut pertsiana erakoa bakarrik itxiz, airea mugi dadin. Nahiago dut freskotasun apur bat isiltasuna baino, nagoen bezain...

Atea jo dute.

Ordu bata da.

Atea jo dute, leun.

Nola arraio lortu ote du Ñengék honaino sartzea *karpetakoek* ikusi gabe?

Ez dut argia biztu. Soinurik egin gabe, ez zarata handirik bederenik, ateraino hurbildu naiz. Pertsianen zirrikituetarik ikusten ahal ditut takoi luzeek edertzen dituzten aztal sendo bi. Uler-tzen, B.? Hoteletan nabilen eta neskak ate joka zatozkidan... Itzali da pasiloko argia, eta neska joan egin da. Juan de Begoña batek ezin din maitasuna nolana onartu, altxor sekretu bat duenak maitasunaren beldur bizi behar din... Etzan naiz berriz. Leher eginda nago, ez zait axola Ñengék autoa hartuta Habanara aldegiten badu

ere... Bahator, bahator nire sekretuaren bila,
heuk ere ez naun maite, nire altxorra besterik ez
dun nahi...

Atea jo dute.

Zazpiak dira.

- Ez zegok eguzkirik gabeko larunbatik!

- Hoa Habanara, utz iezadak lo egiten!

- Ez duk kamararik ekarri! Hi haiz, hi! Ez duk
argazki bat egin behar Cheren estatuaren ondo-
an? Berak hartu zian hiri hau!

- Nola sartu haiz?

- Gosaritarako utzi zidatek, zer erremedio!

- Zergatik zer erremedio?

- Hi oheratu eta gero etorri ninduan eta ha-
rrapatu nian karpetako *txota* hori gelari batekin
zihoala ohera. Salatzen badiat bihar bertan kale-
ra zihoak. Orain neuk zeukaat boterea! Hoteleko
langileak bertako gelak erabiltzen! Nahi baduk
guasanga bat ikusi, esaidak!

- Ba nik uste nian heu hintzela bart ate joka!

- Ate joka? Bart? Zer ordutan?

- Ordu batean! Baina ez hintzen hi, mulata
bat huen.

- Zelako putakumea!

- Nor?

- Motell, *karpetakoa!* Ez al duk ulertzen?

- Ez nauk kubatarra, ez diat ulertzen, gauza mordo zegok sekulan ulertuko ez dudana!

- Berak bidali zian neska hire gelara, komisia kobratzeko gero! Horregatik ez zidaan pasatzen utzi! Zelako putakumea!

- Baliteke... Baina biok hemen egonda bidaltzen ahal zizkiguan bana, doblea kobratuko zikean komisia!

Ezpainak okertu ditu destainez. Benetan, ez naiz inoiz kubatarra izatera iritsiko. Edo antzeko zerbait esanen nuke adierazten dutela Ñengéren *bemba* okertuek.

- Motell...! Hik ez al dakik, edo ez al duk oraindik ikasi, kubatarra dagoen lekuan ez dela txorta ordaintzen?

Egia da kubatarrekin ez direla inoiz entzuteko guztiak entzun sexuari buruz, hobe umorez eramatea. Gosari txarra egin dugu, eta hori harigarria da munduko hoteletan. Igangailuan barroteko arduradunarekin egin dugu topo. Egunonak ematen dizkigu oso ziniko, sinetsi egin behar Ñengéri. Zirika egiten dio nire *kúnbilak*, guztiz

serios komentatzen didala goraki, denok entzuteko moduan:

- Honela esan zidan *iyamba* zahar batek, «Oraindik ibaia iragan ez baldin baduk, ez aipa bere ama kaimanari!».

Nik ere barre egiten dut, leun, Ñengék beza-la. Arduraduna mutil ederra da, baina ez dago lasai, zer edo zertan harrapatua dauka Ñengék. Atzoko deserzioa nahi nuke ordaindu, eta ausartu egin naiz:

- Bai, egia da, ez egin trufa kaimanari uretan hagoen bitartean!

Muturra apurtuko hidake pozik, baina ezin duk. Hik turismoan egiten duk lana, eta badakik neu naizela dibisak uzten dituen hemen! Iragan dugu ibaia, eta kaimanok bizia barkatu diogu *bitongo* handiuste honi. Ordainaraziko dio atzokoa Ñengék noizbait, eta ez nuke ikusi nahi. Bizkarrean jo naute. *Karpetako* arduraduna daukat irribarretsu niri beha. Jendetasun handiz esaten dit:

- Kaimanak haginka egiten du, baina kubatarrak haginka handiagoa egingen dizu!

Keinuka ari zait Ñengé kanpotik, eta haren-gana noa, egia esan, lotsagarri, hoteleko ardura-dunak ahoa bete kaiman-hagin utzi bainau. Autoa barteko lekuan bertan dago, garbitua. Betea du gasolina. Erdi ametsetan sortu zaidan kezka bat kendu nahi dut.

- Ñengé, goazen Lehen Unitatera!

- Ez, utz ezak! Ez nauk *txota* bat! Pagaraziko zioat larrutik!

- Ez, ez... Ikusi besterik ez diat egin nahi. Gelditu ere ez gaituk eginen!

Isildu da, bizkarrak harrotu eta bart ekarri ninduen karriketarik gidatu nau, hala iruditzen zait behintzat. Zain gelditu nintzen lekuan gaude.

- Hemendik ezkerretara zegok.

Autoa atzeraka ekarri eta malobra egin dut ezkerredera sartzeko. Ñengék aurrera behatzen du, ez ni ez Lehen Unitatea ikusi nahi ez bagintu bezala. Motel noa, bizikleta guztiek aurreratzen gaituzte. Erdi ametsetan sortu zitzaidana bete da: ez dut ezer ikusten, ez ezkerrekoan ez eskui-neko espaloian, hemen ez dago komisaldegirik. Ñengék begiak urrun dauzka tinkatuak.

- Hi, hemen ez zegok ezer!
- Itxia zegok!
- Itxia? Komisaldegi bat itxia?
- Hau Kuba duk!

Noizbait jakinen diat nor haizen... Noizbait esanen didak nor den *giltza galdu zutenen* patroia. Ez nau horrek kezkatzen orain. Orain telefono bat behar dut. Bai, entzun diezadala.

-XVIII-

Trago bina behar dugu, urrundik etorri gara ezker-eskuin limoi eta pomelo sail amaigabeak ikusten eta alerik hartu gabe. Baina nik dendak ezagutu nahi ditut, bertan uxarka egin, airea dastatu, sartu eta irten deus galdatu gabe, merkatariek ezin eskain diezadaketen zerbaiten bila. Duela laurogeita hamar urte dendotan ahantzi nuen liburu baten bila beza-la. Martí triste hau plazan paratu baino aunitzez lehenago.

- Nola ordaindu behar duzue?

Ez zaio asko ardura ordaintzen ez badugu ere atean lasai eserita dagoen funtzionari honi, ez dauka honek *Alferkeriarako Eskubidea* irakurri beharrik. Irri egin dugu kaimanok.

- Egunon, hemen jaun hau kazetari italiarra da, eta tarjetarekin ordaindu behar du!

- Aitzina, aitzina!

Patio ederra du Matanzaseko Velasco hotelak. Ñengé *mojitoak* eskatzera joan delarik, neska gazte ezin esan halako zuri bat datorkit. Ez du *pendanga* ematen.

- Jauna... ulertzen?

- Bai.

- Habana Club zazpi urteko bat, merke daukagu hemen!

- Bat ez.

- Bi edo... sei ere baditugu.

- Ez, ez... Multzo handika baino ez dut erosten, import-export egiten dut.

Ez zidan sinesten, B. Heuk bakarrik sinesten hidan hemen.

- Aizu, barkatu, zenbat urte ditu hotel honek? Laurogei bai? Gordetzen dituzue orduko erregistro liburuak?

Kaka jaten duela edo pentsatzen ote dudan galdetuko lidake gustora, baina esana diote kazetari italiarra naizela nonbait, eta ezin du. Ekarri duen bideak eraman du eta telefonoaren galde egin dut. Ez dute hartzen Lorategi Botanikoan, otordua dute. Mahaira itzuli naiz, zain daukat Ñengé.

- Barka... *nola ordaindu behar duzue?*

- Ja, ja, ja...! Pesotan! Pesotan ordaindu diat! Zer uste ditek horiek!

- Ez duk egia izanen!

Bolada intelektualala daramagu:

- Aurak goiti egiten du hegan, baina beti egiten dio mokoka pitirreak!

Cojímar joko dugu Habanara bidean, arrantzaleen herriska polit bat, Hemingway bertatik itsasoratzen zela-eta ospetsu bilakatua. Oroitzen haiz, B.? Kainabera bat ekarriko zinala agindu zinan euskaldunak bertan izan zineten azkenean.

- Ezagutu nahi duk *Agurea eta Itsasoa-ren* koegilea?

Gogor jotzen du zenbaitetan neure gizon honek.

- Baina agure hura hila egonen duk honez gero...!

- Liburukoa ez, motell! Bestea!

- Bestea?

- Gregorio, ipuinak kontaktzen zizkiona Hemingwayri!

- Gregorio Fuentes? Pilar yateko patroia? Bizi duk?

- *Dena* kontaktzen dik dolar batzuen truke!

Posible dun *dena* jakitea Kuban, B.? Iraultzak ez al zeuzkan isiltzekoak? Benetan, ez niken

dena jakin nahi hitaz, are gutiago hildako ospetsu bati buruz eskaintzen zaidan *dena*.

- Hemingwayren lepotik bizi duk putakumea!

- Hemingwayk *kopiatu* egin zioan *Agurea eta Itsasoa!*

- Hori esaten dik aluak? Goazemak, goazemak orain bertan! Entzun nahi diat!

- Goazen Cojímarrera!

- Alferrik! Han ez zegok Gregorio Fuentes!

- Ez? Eta hik nola dakik hori?

- Askotan egon nauk ni han, Ñengé.

- Askotan?

- Askotan.

- Hik... hik ez didak ezer kontatzen, *kúnbila*.

Arrazoa daukak, *karabela*. Ez didak sinetsiko baina...

- Maite ninduen emakume batekin.

Ez didak sinesten? B.k ere ez zidak sinesten jadanik.

- Beltzarana.

- Motell...! Nire ahaide batekin? Orain uler-tzen diat...!

- Bai?

- Motell...! Beltzaran bat! *Kandela...!* Nola ez huen ba jakinen zer esan zion katiluak kafeari!

Katilua nindunan ni, horixe nindunan, B., katilu bat. Erori hunan eta hautsi.

- *Kúnbila*, beltzaranak *kandela dituk...* min eman dik emakume horrek! Erre egin hau!

Ezin zionat ezetzik esan, B. Ezin zionat erantzun *dena* jakin arte.

- A, beltzaranak...! Halakoxea duk Kuba!

Orain bereak jakin behar nituzke, hasperenak aitormena ekartzen ohi du. Ni ez bezala, bera *dena* kontatzen dutenetakoa baita B. bezain beltza izan arren.

- Goldo, *kúnbila*, orratza eta kilometrogailua bere onean utzi beharko ditiagu autoa itzuli baino lehen, ezta?

Hi bezain beltza dun hau ere, B.

- Lasai, ez nagok ahantzita.

Gregorio Fuentes ez dago jada Cojímarren turistak hartzen eta argazkiak egin diezazkioten uzten, Habanara aldatua dute aspaldian. Laurogeita hamalau urte ditu eta zaharrendako egoitza batean bizi da, Txernobilgo umeak zaintzen dituzten ospitale batetik hurbilean. Interesgarria

izanen da noski Hemingwayk zenbat edaten zuen jakitea, zergatik suizidatu zen, nolako problemak zituen mulatekin... eta Gregorioren ahotik entzutea, noski, berak harrapatzen zituela arrainak, ez Hemek. Gregorio Fuentes hau menturaz Hemingwayren adiskidea izandako Juan Duñabeitia marinel euskaldunaren berri eman diezadakeen bakarra eta azkena dela jakinik, ezetz esan diot Ñengéri.

- Baina ez duk ezagutu nahi Hemingwayren patroia?

- Ez.

- Bera duk *Agurea eta Itsasoa* idatzarazi ziona... Kronika eder bat egin dezakek, *zafran* egin nahi huena baino hobea...

Agureak, tiburoiekin borroka gogorra egin ondoren, harrapatu duen ezpatarrain handiaren hezurak baino ezin ditu erakutsi lehorreratutakoan. Parabola bat, noski. Idazletik hezurdura baino gelditzen ez zitzaionean, Hemek tiro bat eman zion bere buruari.

-XIX-

Gure bidaiaren gailurrari lizar adaska behar bezala paratzeko afaritara gonbida nazala utzi diot Ñengéri Río Cristal izeneko jatetxean, bidenabar azulejo berezi batzuk erakutsi nahi baitizkit, On Kixoteren istorioa margo-idatzitan dauzkatena gaztelaniaz eta euskaraz, omen. Merezi luke egunez etortzeak, jatetxea antzinako *ingenio* berritu batean dago ezarria, Cristal ibaiaren ondoran, *zeiba* handiek edertutako zelaiek inguratua. Jatetxeko kafetegian sartu gara, azulejoetara.

- Hortxe dauzkak, gaztelaniaz eta euskaraz.

Baietz egiten du kamareroak buruarekin. Aspaldikoak dira azulejoak, eta sinesgarria da erai-kuntza *ingenioa* zenekoa izatea. Margo politik dituzte, eta On Kixote Mantxakoaren pasadizo nagusien laburpenak irakurtzen ahal dira haietan.

- Auskalo zenbat balio duten!

Baina alferrik bilatuko du batek han euskarazko hitzik. Gaztelania ez dena ingelesa da azulejoetan. Nik ere baietz egin dut buruarekin, tu-

rista alemanak, eta frantsesak, eta italianoak eginen duen bezala bere hizkuntzan idatziriko azulejoetan On Kixoteren istorioa erakusten diotenean.

Halako jatetxeari dagokion bezala, hirukotea hurbildu zaigu, eta ea zerbait berezirik nahi genukeen. Ernesto Lecuonaren zer edo zer eskatu dut. Ñengék keinu egin dit berak emanen diela eskupekoa. Ongi jotzen dute eta ahots ederra du kantariak.

*Ez zaitut beso artean
berriz hartuko
baina badakit ez zaitudala
inoiz ahaztuko...*

Galerian jarri gara afaritan, ibaitik datorren freskotasunean. Ez ote dugun beste lekuren bat nahi galdetu digu birritan mahaizainak, baina gu ez gara hemendik mugituko aldamenean bilerafari bat dugun arren. Ez zaigu poxelu, egia esan ni sasi egina nago, begiak platerean baina belarriak haien esanei emanak. Ostalarien bilera da, kubatarrak eta latinamerikarrak dira, Publicitur

erakundearen antolamendu batean. Diskurtso ofizial samarrak entzun ditugu hasieran, baldintza objetiboak eta baldintza subjektiboak aipatzen ditu maiz bilerako eragileak.

- Hori dena kaka duk, Goldo, ikusiko duk las-ter...

Argazkien flaxa aldizka, oroigarriak nahiko dituzte latinamerikarrek, edo beharbada *Granma-rako* dira. Aipatzen dute problemak dituztela Vi-sarekin, arindu egin behar dela Banamex, Mexi-coko Banku Nazionalarekikoa. Bost botila Haba-na Club 7 urte atera dizkiete mahaira.

- Jantzia dakarten garagardoaz gainera!

Ez dira maila apalekoak, solasagatik estatuko ostalaritzako enpresari nagusiak dira. Ñengék ezagutu du Habanako taberna ezagunenetako bateko gerentea. Topa egin dute. Bilerako eragi-leak ahotsa gorarik:

- Denok dakigu bi pertsona motak bakarrik esaten dutela egia, umeez eta mozkorrek, eta gu umeak ez garenez, geure arazoez benetan mintzatu ahal izateko ez zaigu beste biderik gel-ditzen...

Neska mahaizainari behatu diot nik. Ez du zirkinik egin. Behatu didanean, barre txipi bat egin dit.

- Hor duk, beha ezak, hor duk komunista baten portaera!

- Horiek ez dituk komunistak!

- Ez, horiek kubatarrak dituk!

Jabak, zakutoak, plastikozko poltsak atera eta oilasko erdiak, garagardo bonbilak, sanguitxak, arrapazka hasi dira mahaitik hartzen. L.k, O.k, eta B.k ere, Alderdikoa izan arren, hainbate-tan gaztigatu izan didatena ari da gauzatzen nire aurrean: diskurtso ofizialetik eguneroko bizimodura dagoen aldea. Bulegotik sukalderakoa.

- Hor, Alderdikoren bat egonen duk ba!

- Segurik!

Ez dute lotsarik, mahaizainen begi bistan egin dute hustuketa. Ohituak dirudite denek ere. Inork ez du inor salatuko.

- Orduan, tipo hauek... berdin eginen ditek beren enpresetan!

- Ez dudarik izan!

Higuindurik irten gara erdi afalduan. Ñengé damutua dago, ikusi behar ez nukeen zerbait

erakutsi izan balit bezala. Parketegian Mitsubishi, Toyota, Lada mordo bat dago, denak estatuko enpresen matrikula gorriekin.

- Gauza bat esan behar diat, Ñengé: kaimanak haginka egiten dik, baina haginka handiagoa eginen dik kubatarrak!

- Joño...! Gurea ez duk erraza, *konpai*, ez duk batere erraza!

- Noski ezetz! Horien alde egin behar duk orain? Tipo horiek ez dituk zurginak, *kúnbila*, Alderdikoak dituk, arduradunak dituk, baldintza objetiboak eta subjektiboak bereizten ditiztek, materialismo dialektikoa ikasi ditek, horiek...!

- Horiek kakajaleak dituk!

- Ez! Kakajaleak *zafrra* bolondres doazenak dituk!

Eta ez dinat barka nazanan eskatuko, B.

New Yorken jarri naiz ostatzuz Habanan. Carpentier-i damutu zitzaion lehen klasean bidaiatzea Espainiako trenetan hirugarren klaseko bagoian sartu zenean: han omen zegoen bizitza, eta ez *señoritoen* artean. Horretaz oroitu naiz New Yor-ken jarri naizenean Ingalaterra utzita, baina ez naiz guztiz adostu Alejo maisuarekin, *giro* dagoen arren, edo beharbada, *giro dagoelako*.

Behean Julio Iglesias-ek kantatzen du
edo haren ahotsa entzuten dut hirugarren
solairutik
aire egokitua ez dabil izerditan nago
telebista ezin da biztu
aldameneko gelan maitaketan ari dira
aspertzen naute hartzen ditudan liburu
guztiek
profitatu egin behar nuke ilunpea heldu
baino lehen
zertan baneki
gela labezomorroek hartua dute

labe batean nagoelako
Habanako New York hotelean
zomorro bat naiz
ilunpearen zain

Telefonoa hartu dut. Botanikora hotsegin dut berriro, eta berriro entzun dut O.ren erantzun bera. Ordu batzuk gelditzen zaizkit oraino Tiko gajo eta txintxo hau itzuli aurretik, eta Lenin Parkerantz hartu dut bizikletariei alukeriak orrokatuz.

Harritu egin zaizkit Lorategi Botanikoko lagunak B.ren eske egin dudanean. Urduri nago.

- *Zafra* ez duk oraino hasi!

- Hemen ez, Camagueyn bai... Han aurreratu zatorrek beti.

- Beha ezak L., Camagueytik natorrek!

Tinko behatzen didala itxaroteko erregutu dit. Bulegoan sartu da eta D.rekin jardun du luze, luzeegi. Altxa da noizbait D., niregana dator. Alderdiko arduraduna da D. hemengo brigadan, ez dut konfiantzarik berarekin. Ezagutzen nau, eta oroitzen naizeneraino behintzat, uste dut diplo-

matiko xamar hitz egin izan diodala beti, bromaren bat gorabehera. Baina elkarri.

- Euskalduna...!

- Kaixo D.

- Esan zidaten lehengoan etorri hintzela...

- Bai...

Isildu egin da, zalantzan dago hau ere burutik hasi edo hanka puntetarik. Bizkarretik heldu dit *flamboyánen* hazitegirantz naramala. D. hau izanen da neska gazteak UJCrako biltzen dituenetakoa, segur. Halako ahots eztiarekin kaptatu al hinduen?

- B... jatorra neska!

Ez diat hitzik eginen, *konpai*. Ez diat lagunduko, bete ezak heure papera. Esaidak egia edo bota nazak tiburoietara.

- Ez dago *zafran*, euskalduna!

Labana bihotzean, Adalbertori emanen zionat koplak hauxe. Ez zionat D.ri galdetuko hiri galdetu beharrekoa, B. Ezin hidanan aurrez aurre esan, B.?

- Baina *zafran* dago... Ulertzen?

Palmondo ipotxei eman diet behakoa.

Ulertzen ditinat isilune haiek. Ulertzen dinat tristura hura. Ulertzen ditinat amorru gero eta ugariago haiek.

Zafrandoak poesia galdu duenean, zer egin?

Matxetea kaina botzen baino ezin erabil daitekeenean, zer egin? Matxetea turista ezkertiarrei saldu?

Ez dun erraza, B.

Jada ez haiz B., *konpai* esan behar ninake noski.

Sierra Maestran hago, euskaraz egiten dun Camilorekin.

Kuba sozialista oraindik amets bat besterik ez zeneko urtera egin dun jauzi, denak ederrak eta idealzaleak eta eskuzabalak zareten mendi hartara jo dun.

Non zegon orain Sierra Maestra, *konpai*?

Beranduegi heldu naun, menturaz beranduegi heldu nindunan ezagutu hindudanean ere.

- Barka... Mozanbiken dago?

- Ez nizuke esan behar, euskalduna...

- Ulertzen dut... *zafran dago!*

Erizain edo, *noski*... Ez dinat jakin nahi, B. Ez dinat naizena baino ezinduagoa sentitu nahi. Ez dinat *dena* jakin nahi hitaz, B.

- Euskalduna zarenez, esan eginen dizut...
Burkide, B. Guatemalan dago.

- Guatemalan... bakea sinatu dute, ezta?

Guatemalan... Ez hago Guatemalan, bestenaz heure arduradunak baietz esanen zidan. Ezpain okertze txipi bat egin zidan, asko zekin gerlaz eta bakeaz. Hau dun, hauxe dun, B., Alderdian sartzeko eskaeran *Ez nintzen ez Granman eta ez Moncadakoan izan, artean jaio gabea nintzelako* ipini zuela kontatu hidan tipoa. Baina bera hemen zegon, eta heu hago *Granman*, norabait, oraino egunkari ofizial bati izena eman ez dion yate klandestino batean...

- *Buzoiren* bat eduki genezake?

- Hemen bertan... Baina presarik gabekoa izan beharko du, badakizu.

- Mila esker, D...

Zoragarria izan behar din horrelako urte bat ezagutzea. Zoragarriago utopiak gero zeinen eskasak bilakatzen diren jakinda denboraren eta baldintza objetiboen higaduraz. Ulertzen dinat,

indarberritu bat hartu behar hunan, eta nik ez ninan sinesten honetaz mintzo ginelarik Cojimar-eko arroketan, baina gogorra dun hurrengo egunean bakarrik gelditzen denaren... Zer ari naun! Bihar edo etzi hegazkina hartuko dinat, neure oreka zibilizatura itzuliko naun! Geure ezintasunera! Geure *elkartasunera!* Geure *Kubarik gabe tristeagoak izanen ginatekera!*

Zer ari naun ni negarrez, neu izan naun eta beti hi utzi izan haudana!

Ezagutu baino lehen ere utzi hindudana!

Bahaiz B., edo asmatu egin haunat?

- B.k asko maite hau, euskalduna.

Hoa pikutara, hik zer dakik, hik zer eskubide daukak ni kontsolatzeko, hi matrikula gorriko Mitsubishian habil! Alu hori, heu ere *zafra egina* izanen haiz gainera, erraz mututuko nauk ni! Guatemalan! Hik sobera egiten duk hitz! Hik ez duk zafraldirik behar *dena* esateko! Hi ez haiz arduraduna eta ez ezer! Euskalduna naizelako... italiarra nauk, ergela! Txekiarra! *Ruski* bat nauk beltzaranen larruzale!

- Eta *zafra* amaitzen denean? Non arraio da-goela esan behar didazue?

Eskua jarri dit ostera bizkarrean. Buruz ikasia dauka bere papera. Orain esaldi putzantu bat botako dit, *zafra* ez dela inoiz amaitzen edo halakoren bat.

- Ordurako Euskal Herrian egonen haiz!

Entzun duk. Bakea eman ezak. Alde hemendik. Labezomorro bat haiz.

Baina kronika bat bederenik neuk bildutako materialekin egin nahi dinat, B., eta hala etorri naun José Martí izena duen, zein bestela, Liburu-tegi Nazionalera, heuk agindutakoa ere betetze-ra, egia dun. Eta horregatik hain zuzen, azkene-rako utzi nahi dinat Cortazar-en fondoko *Paradi-so* ikustea, luzatu egin nahi dinat hildura, B. Ge-zurra zirudin, baina oraindik ez diozue biografia onik egin Martíri. Hiru bat hartu ditinat, eta bere poema guztien edizio desberdin guztiak. Euskal-dunon edo euskal izenen arrastoak hartuko diti-nat bere biografietarik. Errazkeriak. Eta heuk ez dakinan hori ere:

- Juan de Begoña?

Ez diton ulertzen, ez diton ezagutzen, ez dun bertako langilea.

- XIX. mendeko pirata bat izan zen, *décima* batzuk atera omen zizkioten, kopiatu nahi nituz-ke. Oso ezagunak izan behar dute Pinar del Ríon.

- Jauna, ni Pinar del Ríokoa nauzu, eta ez diot egundo halako izenik entzun ez nire amari, ez nire amonari.

Nire mahaira joan eta liburua zabaldu dudan arte isilik gelditu ditun, irakurtzen hasi naizeneko marmarrean hasteko. Zoro bat naun, ordainak hartuko ditin heure herkide Ñengék, hago lasai.

Niepe koitaduari patentea kendu zion Dagerre izeneko batek. Getariako batek itzulia eman zion munduari kapitaina hilda galduta ibili zelako. Bilobar Bizkaian dago. Gebara ere bai. Lehen abertzalea Lope de Agirre? Arrastoak, arrastoak besterik ez. Martíren bizitzan ere euskal zantzuak han-hemenka: Mendive irakaslea, Albisu antzokia, Azcárate erbesteratua, Yzaguirre... *Gipuzkoa* postontzian deportatu zuten, *Baskongadetako Tertzioak* Kubara soldadu ekarri zituen hartan bertan... Historikoki kanpoan egin garela handi frogatu behar ote dut? Ez, baina...

Domingo Goicuría Habanan jaio zen 1805eko uztailaren 3an. Ingalaterran hazi zuten, Frantzia eta Estatu Batuetan. Espainia jo zuen *provincia baskongadetarik* langileak ekartzearren

Kubako azukretegietara, baina ez zuen bere asmoa bete ahal izan... Ertamerikako konspirazio guztietan ibili zen. Bere seme Valentín espainolen aurkako borrokan erori zen. Espedizio bat antolatu zuen Kuba askatzeko, atxilotu egin zuten. Abertzaleen zentzagarri, garrotea eman zioten jendaurrean Habanan 1869ko maiatzaren 7an, 64 urte zituela. Kubako historia liburuek diote hauxe oihukatu zuela urkamendian: «Gizon bat hil behar duzue, baina nazio bat sortuko da!».

Liburu artean, noizbait, ustebako bortitz bat: Santodomingotik hona zetorren Martí, *zafra-ra*, B. Salatu egin ditizten ordea. Kapitain traidorearen mende zeudenan. Martík, arriskuaren handia ikusirik, aurre egiten zionan «aita baten mihia eta azeri baten egitateak dituen patroiberbazuriari». Eta Martíren beste mirakulu bat orain. Begiak Martírenetan tinkatuak, ez bakarrik bidaiarako behar ez bezala harturiko diruak zizkionan itzultzen (espedizio berrirako hain beharrezkoak), gainera, begi haiek durduzaturia noski, «bera aitonsemea dela eta ezagutzen dituela aitonsemeak» esaten din, eta luzatzen zion opari

Martíri, kapelua eskuan, Martírentzat barregarriki alferrikakoa den ginebra botilatxo bat.

Zergatik *alferrikakoa*? Zergatik *barregarriki alferrikakoa*? A, Alderdiaren manupekook, zelako kalteak egiten dituzuen zeuen morala heroiarenari itsasten diozuenean! Zeuen laudorioek salatzzen dituzten akatsak...! Akatsak? Akatsa Martíren *kozkorra*? Ez dakizue herriak bizi behar duela, *zafrak* ezin direla garbi egin? Horregatik behar izaten din herriak, noizean behin, ginebra tantaren bat iraultzan aitzina egin ahal izateko, ulertu dinat B., ez baitun erraza... Ehun urte betetzen ditun 1995 honetan Martí euskaldunok ere hil genizuela *maniguan*.

- Aizu jauna, barkatu... zu ez zara kubatarra!

- Berandu habil... Behar baino gehiago ebatsizioat *jada* Kubako estatuari.

- Ez, ez da hori... Noiz zoaz?

- Laster!

USArako gutunen bat Espainiako postan botzea nahiko zuelakoan, baina ez. Honek liburute-gietan ateratzen din bizimodua. Ezagutu dinat *Kuba sakona*, B.

- Menturaz ez duzu denbora askorik izanen nahi dituzun kontsulta guztiak egin ahal izateko!
- Egia esan ez, eta horregatik eskertuko nitek utziko baninduk...
- Jauna, zuk emaitzidazu behar dituzun liburu-ruen izenak; nik, kubatarra naizenez, hartuko ditut etxerako.
- Eta?
- Galdu eginen zaizkit...
- Baina...
- Oso erraza da, nik galdu egin ditzaket zuk behar dituzun liburuak!
- Baina hori lapurreta duk!
- Ez jauna, hori ez da lapurreta: zuk liburuak behar dituzu, denborarik ez daukazu, niri hogeita hamar pesoko isuna ezarriko didate liburuak galtzeagatik, zuk zeure tesia egin ahal izanen duzu Kubaren onerako, eta gainera ni irabazian aterako naiz zuk emanen dizkidazun bi *fularekin!*
- Baina... zoratu zarete! Eta inork liburuok kontsultatu nahi baditik berriz?

Eta ez ninan sinesten, baina oraingoan komentzitu naun Kuban dagoen lapurreta eta Estatuari trufa egitea ez dela *egoera bereziak* ekarri

duen eskasiak sortua, lehenagoztik datorrela, Aberri Ama Sobietiko Handiari errapetik tira egiten ohitu zaretela kubatarrak, xahukerian alegia, honoko erantzuna eman baitzidan unibertsitari bizimodugile honek *ere*:

- Lasai jauna, Estatuak berrituko ditu *berehala...*

Ikusi ditudanak ikusita, pentsatu ere izan dinat hemen duzuen jukutria eta trikimailuaren kultura hau onartua daukala sozialismoak gaitzerdi bezala, zeren...

- Ez da erraza, burkide, ez da erraza!

Altxa eta aldegin zionat. Fitxategian Cortazar-en fondoa irakur dezakedan eta baietz. *Paradiso* eskatu dinat, B., heuk agindu bezalaxe. Harritu ditun. Zaharrena bila abiatu denean, komentatu egin zionat leihatilan gelditu zaidan beltz gazteari:

- Ez da erraza ez, hainbat gauza doan mantentzen segitu ahal izatea Estatuak bildu behar lukeenaren ehuneko hogeia ere biltzen ez duela!

- Fidelek ez dakielako da hori.

- Ez dakielako?

- Ez diote egia esaten, bestela...

Zu bezalakoak kalera, seguru. Zu bezalako jende aunitz dago Kubako ekonomiak aurrera ez egitea komeni zaiona, bestela... orduan bai akabo *guángara!*

Ekarri diton noizbait Cortazar-en fondoko *Paradiso*. Urduri nagon, aitortzen dinat, B. Zorioneko *Paradiso* hau daukadalako eskuartean, eta kezka bat biztu zaidalako ustekabeen: ez ote dituzuen beharrezkoagoak nik erositako gasolina ebatsiak, sakratuak bailiran zaindu nahi ditudan liburuak baino... Eta ez niken bide honetatik liburuak *galtzea* bekatu txipia dela pentsatzera heldu nahi.

-Fideltasunak VII- Mambí batzuk

Gaueko hamarrak dituzu eta lasaitu dira Regla-tik Guanabacoa-ra doan treneko bidaiariak, hiru kilometro barru joko dizute Habana, orain bertan ageri baita Matanzas-ko linearen gurutzeta eta zaila duzu istilurik izatea hiriburutik hain hurbil. Fistu egiten du makinariak. Besteetan baino luzeago eta sarriago ordea. Trenak karrila galdu dizu trabeska paratuak zeuden *zebú* hilak jo dituenen. Ez du inork min handirik hartu, ikara txipi bat baino ez duzu izan trena berehala inguratzen duten zaldizko ezpatariak ematen dietenaren aldean. Baiki, *mambíak* dituzu. Sartzen zaizkizu trenean. Emakumeek oihu egiten dute, umek negar, eta gizonezkoek ez dute deus esaten, ez hirugarren bagoian doazen hamar ofizial espainiar horiek behintzat. Armarik gabe datoz, baina uniformatuak. Hobe dizute muturik, bai.

- Ez beldur izan, ez zaituztegu hilen!

Hala esaten die altxatuen buru egiten dizun gizon gazteak. Bizirik eta biluzik utzi dituzte bi-

daiariak. Beti daukazu egoskorren bat, oraingotan beltz bat gainera, bost matxetekada eman behar isiltzeko, hiltzeko. Francisco Vento kaboak ere kolpe eder bat hartu behar izan du. Alonso lotinanteak ihes egiten dizu leihatilatik jauzi eginda harri barru dagoen Cabote kasernara tira ahala. Gaztigu ematen du, biltzen da tropa, trostan irteten dira. *Mambíak* aldeginak ordurako, ofizialak bahituran hartuta. Gaueko hamaika t'erdia dituzu, ezin dute maniguan sartu. Harrapatu behar dituzte baina, ofizialak urka ditzaten baino lehen.

Biharamuneko goizeko seietan iritsiko dituzu altxatuak San Luis finkara, han daukate kanpamendua. Lau zentinelak jarri eta lo egiten dizute goizeko hamaikak arte. Orduan bahituak miatu eta itaundu egiten dizkizute. Norberaren diruak ez dizkiete kentzen, bai ordea Soriano kapitainak dakartzan mila peso urrekotan eta biletetan, bere erregimenduaren ordainketak egiteko.

- Honek, gurekin ibili beharrean, nahiago du espainolekin!

Ez dio graziarik egin buruzagi *mambíaren* ironiak Bernardo Berros lotinanteari, baina jakina-

ren gainean egon behar zizun zer gertatu behar zitzaien abertzaleen esku eroriz gero, mulatoa denez.

- Lotu eta eramazue bi legoa barru...

Betancourt lotinantea ez dago lasai, bera ere kubatarra baituzu, eta zuria den arren partida honen buru egiten dizun gizon gazteak ezagutu behar baitu nahi eta nahi ez, ikaskideak izan dituzu Habanan.

- Gerla honetan ez zuek eta ez guk ez dugu irabaziko. Hogeita bost kubatar matxinatu nahi-koak dira gerla izateko. Negoziaketa egin behar da. Kubarekikoa aldatu egin behar luke Espainiak. Nik bakea nahiago dut.

Betancourti beha esanak. Bekoz beko eta ez ezagutuarena eginez. Izerdi hotzetan duzu Betancourt...

Hurrengo goizean bi *guajiro* zaharrek jotzen dizute Jarucoko kasernako atea. Mezu bat dakarte: espainar bi dauzkazu urkatuak Campo Floridon. Kasernan gordetzen dituzte biak, zelata bat ote den. Irteten dituzu tropak heriosuhar. Laster atzematen dizkizute urkatuak. Berros lotinantea duzu bata, bularrean ohar bat daukala:

*Hau bezalako ekintzak mingarriak dira,
baina beharrezkoak hainbeste traidoreren
zentzagarri*

Bestea ez da militarra, treneko makinaria
baizik, eta ez duzu epaiketarik gabe kondenatua
izan:

Salatariaren Akabantza

Miatzen dizkiete sakelak, eta ofizio bat aurki-
tzen diote Berros gizagajoari:

Valeriano Weyler buruzagi jeneral espai-
nolari.

San Luis Kanpamendua, 1895eko urtarri-
lak 17.

Kubako Armada Askatzailea - Bostgarren
Alorra - Lehen Dibisioa - Iparraldeko Briga-
da - Habanako Zaldizko Erregimendua.

Bart, urtarrilak 16, nire manupeko tropek
Reglatik Guanabacoarako trenari eraso zio-
ten. Militar asko zihoazen bertan: gogor

egin ziguten eta atxilotu ez genituenak hilik geratu ziren. Bahituriko ofizial hauen bila, Berros lotinantearena izan ezik, kubatar traidore gisa urkatua, konsul amerikarra igor dezakezu, zeinaren zain egonen naizen arratsalde honetan, Minaseko irteeran, Campo Floridorako bidean. Aitonseme gisa jokatzeari eskatzen dizu atxilotuen egoerak.

Aberria eta Askatasuna!

Erregimenduko Buruzagia: Nestor Aranguren.

Paper honen berri izandakoan, Valeriano Weyler-ek birao egingen dizu.

Nestor Arangurenak hogeita bi urte dizkizu, Betancourtek bezala. Hau lotinantea espainoletan, hura koronela abertzaleetan. Hirurehun bat zaldizko dauzka manupeko, ia denak zuriak eta Habanan ikasle izanak. Eta badizu larderia-rik, Gora Kuba Askatuta! oihukatzeke agindu dien *mambí* zakarrari matxetea jaitsiarazi eta ezti, dotore, ironiko guztiz, dio:

- Jaun ofizial hauek beren aberria eta beren banderagatik borroka egiteko agindua dute, eta ezin dute «Gora Espainia!» besterik oihukatu...

Betancourtek milizia uzteko erabakia hartzen dizu bere artean, zaila izanen litzatekeela bigarrenez salbatzea... Bizia ederra duzu, Habana ederra duzu, mulatarik ederrena hartu behar dizu gaur, libre utzi behar baitituzte noizbait, eta Nestor Aranguren osasunera egin behar duela topa egiten dio zin bere buruari.

Ez dizut Nestor Aranguren honen beste aztarrarik aurkitu inon.

Ez dakizut nor zenuen Aranburu, borrokan hildako kapitain abertzale hura.

Ez dakizut ezer Domingo Mujika, espainolek fusilatu zizuten *mambíen* buruzagi hartaz.

Ez dakizut Agirre izeneko baten partidak onik amaitu zizun.

Dakidan bakarra duzu kubatar abertzaleak zenituela, eta Valeriano Weylerek fusilatu nahi izan zizkizula guztiak, azken karlistadan hil ezin izan zizkizun mendira jotako euskaldun guztien ordain.

Oharra: hirurogei urte geroago, eztanda batek astindu zizun Vedado erdia. Gómez-Lubian Urioste txikitua gelditu da auto barruan, Batistaren villa batean ipini behar zuen bonbak eskue-tan lehertuta. Hogei urte zituen eta artean poema guti idatzi ahal izan zizun:

Ez zait ardura zer gertatuko
Harro nago guztiaz
Guti ardura zer gertatuko
garaiz hil behar duenari!

Txiki esaten zioten lagunek, berak hala maite zuen.

-XXII-

New Yorkeen dago bizitza, baina lasai samar hitz egin ahal izateko Ingalaterra hobe. Hemen zitatua naiz duela ordubete Senel Pazekin telefonoz. Gustatu zitzaion ICAICen utzi nion heriotza-mehatxua, harro nago.

- Bihar noa, gaur egotea hobe. Ahitu zaidak *mogolla* guztia!

- Pozten nauk, espero diat kubatarrek soildu izana!

- Hala duk, *paparik gabe gabe* utzi naitek!

Ingalaterra Hotelaren *lobbya* enkontru eta solas historikoen lekukoa izan dugu. Bertan hartzen zituen Antonio Maceo jeneralak Habanako kazetariak, bertan erabaki omen zuten yankiek eta espainolek -eta espainolek, bai, hala segurtatu didate eta hala irakurri dut historiografia kubatarrean- Maine itsasontziaren leherketa Estatu Batuek esku har zezaten Kuban, bertan eman zioten despedidako oturuntza García Lorcarri, eta nik esanen nuke Graham Greene ere hemen egonen zela ostatuz bere Habanako gizonaren

bila. Ez baldin bazen egon ere ez du ardura, haren hutsunea betetzera baikatoz, ez *koko erdika* noski, Senel eta biok.

- Zu ez al zara...?

Senel Paz idazle bikaina izatetik gidoilari izugarria izatera pasa da goizetik gau Tomas Gutierrez Aleak bere *Marrubia eta Txokolatea* narrazioa filmatu duenez geroztik, lehendik ere hamaika gidoi egin ez balitu bezala. Edozer mesedetarako hemen daukagula esan digu hoteleko harreman publikoetarako arduradunak Seneli eskua benetan hunkitua estuturik, eta oparitxo bat egin digu, subizteko bana, hotelaren publizitatearekin. Benetako opari bat da hori Kuban, eta mahai gainean utzi dut neurea; hartzeko keinu itsusia egin badut ere garaiz ohartu naiz.

Erroman egon zen Senel duela guti bere liburuaren aurkezpenean, eta kazetari italiarrek, espainiarrek gure kirolariei bezala, hiru bat galdera inozo egin ondoren, fuego:

- Egia da Kuban ez dabilela busik?

- Zenbat paper bete behar dituzu Habanako auzune batetik bestera joateko? Zazpi, lehen bezala?

- Zenbat izan dira aste honetan karriketan goseak hilak?

- Zer pentsatzen duzu zuk egoera politikoaz?

Barre egiten diete orain Paz senar-emazteek Italiako kazetari guztiei, eta idazleak idazleari maiz egiten dion aitortpena botzen dit Senelek, eta ez nuke esanen ez duenik halako harrotasun amiñi bat, klub berezi eta arraro bateko partaide hautuak baikinan:

- Egia esan, literatura, benetan, oso jende gutiri ardura zaio...

Gero, diskrezioagatik ezin esan dezakedan Europako enbaxada baten jokaera kontatzen dit. Literatur beka bat sortzen du urtero hemengo idazleren bat hara joan dadin hitzaldiak emateko eta idazteko. Eta urtero, UNEACek, Kubako Artis-ta eta Idazleen Batasunak, eskainitako zerrendatik inor aukeratu ez eta beste bat hautatzen du bekadun. Bekadun hori, ia kasu guztietan, ez da Kubara itzuli...

- Beste heriotza-mehatxu bat idatzi behar didak...

- Beste bat?

- Euskaraz, lagun euskaldun batentzat... urteberrion esan behar zioat!

Jarri naiz lanean, ahalik eta testurik ironikoe-na asmatzen. Egia esan, badirudi hotelek ez nau-tela sobera inspiratzen. Euskaraz da eta espero dezagun Senelek ez eskatzea itzulpena... Euskal liburutegiarena aipatu diot, euskal gaiak eta eus-kal literatura bilduko lituzkeen liburutegi bat hemen. Zenbait leku desberdin aipatu ditugu, Unibertsitatean egokiena...

- Uste diat hor atzean hire lagunen bat dago-ela.

Jiratu naiz... Ñengé! Irribarretsu, berarengana joateko keinu eginik.

- Memento bat, barka iezadazue.

- Bagoaz...

Despeditu gara Ñengé hurbiltzen zaidala. Nola arraio aurkitu nauen galdetzeko betarik eman gabe bota dit:

- Nola irten haiz giltza utzi gabe!

- Zer daukak, zer gertatzen zaik?

- Hoteletik irteterakoan giltza utzi behar duk beti *karpetan*, zer gerta ere!

- Hori nahi diat jakin, zer gertatzen den!

- Ba hire *kúnbilak* gela behar duela! Emaidak giltza, agudo!

- Hemen daukak...

- Ordu erdi bat... Lau *mayombe* utzi ditiat ordainduak kafeterian!

- Mulata duk? Bayamokoa?

- Zelakoa! *Mamma mia! E veramente una madonna! Oxún!*

Hasperen egin dut, badirudi Habanako nire gizonak ez nauela inoiz abandonatuko. Herio-suhar irten da New Yorkerantz giltza hartu orduko. Bueltatxo bat emanen dut Martíren ondoko *txoko beroraino*, ea zer *guari-guari* duten egunotan pilotazaleek. Eta ezarian, itzuli bat emanen diot estatuari, ea *kozkorra* antzematen diodan, Katedralera hurbildu baino lehen.

-XXIII-

Hirugarren aldia dut Habanako Katedralera natorrela. Egun eman behar zidaten erantzuna. Sakristiaraino sartu naiz bestetan bezala mezari ezaxolatua, eta abade gazte kubatar berri batek hartzen nau. Ez dut ezagutzen, ez da nik aurrez hitz egindakoa, baina jakinaren gainean dago:

- Monsegneur Roger Etxegaraik irten beharra izan du herriska batera...

Langilea izan behar du, hirugarren aldia du huts egiten didala. Ez naiz haboro saiatuko. Aurkituko ditu euskal prentsak ni baino profesional hobeak Habanako Artzapezpiku ezpeletarrari elkarrizketa gogor bat egiteko, *Oxúnekikoa* zer moduz daraman eta. Hari ematen diot beraz mandatu, egiazta dezala Panpilli bertsolariak kantatu zuena urteek eta arropa gorritan jazteak higatu ez baldin badute:

*Apez xarmanta dugu Roger Etxegarai
Arpegi onekoa, ezti eta arrai...*

Bizkarrak harrotzen ditu bestetan hartu nauen apaiz zaharrak hurbildurik, ulertu behar dut zaila dela kardinaleak sakristietan harrapatzea, sakristia katedral batena izanda ere. Mese-de bat eskatu behar diet:

- Aita Gaztelu, non bizi da?

Elkarri behatu diote. Apaiztegitik irtendakoren bat naizela usteko dute. Gazteenak oraingotan:

- Hila da duela urte batzuk.

Edo usteko dute kriminal damutu bat naizela, abade bereziak behar ditudala nire bekatuaren handia aitortzeko.

Katedraleko plaza purtzileriaz betea dago beti, eta igandeetan beteago. Ez dut zer eginik eta lehendik begiz joak neuzkan kareizko irudi batzuen prezioa eskatzera noala gizonezko gazte ezagun bat ikusi uste dut. Baiki, hura eta bera. Hurbildu natzaio atzetik, ikus ez nazan. Itxaron dut argazkia egin dezan arte, turistari koloreko lapitza eskatu behar dion umeak bezala. Gaia, bizkarra atalondoan lasai emana etxerako mailetan jarria dagoen atso beltz bat tabako luzea ezpainenetan.

- Kontuz, jauna, lapur asko dabil hemen!

Ezagutu nau *kubatarrekin* bidaiatzearen arriskuak doan jakinarazi zizkidan erreportari errukitu honek. Poztu ere egin da. Leku zoragarri bat ezagutu omen du, eta bertara gonbidatu nau. Nola ez, *La Bodeguita del Mediora* narama. Kazetari argazkilaria da. Bere gain ibiltzen da, baina oraingoan enkarguz ari da egiten Habana kolonialari buruzko serie bat. Oso ongi moldatzen da, zeren argi hau Andaluziakoaren berdina baita... Hotelean *zer giro dudan* jakin nahi du, eta Madrilan esan niona errepikatzen diot Habanan, harroago eta -uste dut- ikaragarriago:

- *Konpai...* Ni, Kuban, ez nabil hoteletan!

Ez diot ezer galdetu beharrik, berak esaten dit Espainiako zein egunkariren iganderoko gehigarrirako ari den argazkiak egiten hemen. Bat dator dena: kazetari honen ideologia eta egunkariaren aurrerakoitasuna. Bozkariotan da mutilla, dei bat hartu du egunkaritik, Guatemalara hartu behar du hegaldia igandean.

Ihes egin behar dut. Hanka egin behar dut gizagajo ergel honek hizketan jardun dezan baino lehen. Mutua naiz, Guatemala, bai, ongi, aurkin-

tza ederrak. Gorra naiz, ez dut entzun nahi, ihes egin behar diot... Besotik heldu nau. Belarrira, sasitarrek hala hitz egiten dutela baleki bezala, labana:

- Muga egiten du Chiapasekin...!

Ez nuen onartu nahi.

Barka nazan, B.

Angel Gaztelu apaiza hainbatetan abiatuko zen bezala naiz abiatu Pariskoa baino ederragoa, aunitzez ederragoa den Trocaderorantz. Pradotik hurbilean dago 162 zenbakia, Salomon zutabeak dauzkan jauregi zaharra. Hemen bizi izan zen, hemen bidaiatu zuen, hemen idatzi zuen Kubak izan dituen José handietan bigarrenak:

- Aurrena Martí izan zen...

Eta bigarrena tinda berdeko idazlea (ez da alusio bat), erromes mugiezina (ez da metafora bat), munduari *akelarre* hitz eder eta iluna eman zion hizkuntzaren jabeak garelako (ez da Borge-sen aurkako mendeku bat) euskal jatorrikoa izateaz harrotzen zen habanar peto hura.

- Ez dago inor, hutsa dago!

Hil zen Lezama Lima. Idazle gazteak ez datoz liburu eta solas bila. Aita Gaztelu ez dator teolo-

giaz eztabaidatzera. Lezama joana da, maletarik gabeko hainbat bidaia egin zituen harri germinatzaile hura. Hitzaren tenploa, Trocadero 162, hutsa dago.

- Nahi duzu *Paradisoren* lehen edizioa? Merke!

Eskatu didana baino dolar bat gehiago eman diot benetan lehen edizioa dela ikusi dudanean: 1966an UNEACek eginikoa. Pozarren ezkutatu zait karrikan behera. Erabilia dago, baina sendo, edizio onak egin ahal zitzaketen garaikoa da. Liburutegi Nazionalera joan eta kalkatu eginen dut Lezama Cortazarri eginiko eskaintza, adiskideei benetakoa bezala erakutsi eta bekaizgoa sortzeko... Alua! Alua! Hementxe dago, laugarren orrialdean, zigilua: «Policía Marítima Revolucionaria. Biblioteca Patricio Lumumba». Harra-patuko banu... Errieta eman? Salatu? Ez, eskupeko eman diodan *fula* kenduko nioke!

Liburutegi Nazionalera noala burutik pasa zaidan, B., heuk idatzia ez ote den Cortazar-en fondoko *Paradisoren* lehen orrian ageri dena, niri adarra jotzeko:

Nire lagun maite Julio Cortazar-entzat, bere Rayuela bikaina hartu dudan egun berean, nire Paradiso igortzen diot. Zu eta bion artean oso kariño handia dago, ia batiere elkar ezagutu gabe, zenbaitetan geure arbaso amankomun euskaldunari egozten diot...

Barka nazan. Eskerrik asko, B. Despedidako opari ederra dun.

-XXIV-

Karabela bik, *mundela* bik, *kúnbila* bik bizi oso-rako anaiakotza hartzen dute gureak bezalakoak pairatu izanda. Ez al ginen ba kaimandu? Beraz, Ñengék ezin du utzi ezein beste lagunek, gutia-go taxi batek, aireportura eraman nazan. Goizean goiz etorri zait iratzartzera. Inork ikusita ere... *Impala* markako *atso margotu* eskandala-garri bat utzi dio lagun batek! Egina dauka plana: bere etxea erakutsi, prestatu duen otor-dua jan eta aireportura garaiz, beti egonen da arazoren bat eta.

- Hau Kuba duk!

- Bai, bai... eta auzune hau, zein duk?

- Jesus del Monte, nire sorlekua!

Auzune eder eta utziaren galtzada nagusia gurutzatzen duten karrika gainbehera ugarieta-ko batean dago bere etxea.

*Jesus del Monte-ko Galtzada egia esan
luze hartan*

argi gehiegiak hautsarekin pareta egiten duela

akitu da izen bat oroitzeko nire ohitura nagusia...

Iritsi gara besterik ez dakidala esan beharrik gabe eta berak ere arreta jar dezan baino lehen. Ez du Eliseo Diego ezagutzen, Nicolás Guillén da beretzat Kubako poetarik onena. Beharbada Guillén-ek laudatzaile gehiago dituzke beltzetan, zurietan baino...

- Badakik zer egin genuen kubatarrok Angolakoarekin? Hildako bat biluzi beste hildako bat jazteko! Etiopian bezala, eta Nikaraguan bezala... Guk dena eman diagu, *kúnbila*, eta munduak ez ziguk ezer eman...

- Tira, tira, ederki bizi izan zarete aberri ama sobietiko handiaren errapetik!

- Bai, baina amaitu zuan *batxata!*

Orain anaia bizi da familiarekin. Ez dago inor. Aldamenekoek dute giltza, oso ezaguna da auzunean Ñengé, aspaldi ez dela azaldu erasiatu dute. Jauregitxo bat da, eta Habanako etxe kolo-

nial guztiok bezala, oso garestia izan behar du txukun eta berri mantentzea.

- Izorrai, hau Humanitatearen Ondarea omen duk!

- Neurea diat heure etxearen zati bat!

- Ba etor hadi nahi duanean heure zatia pintatzera!

Betiko kontrastea hemen ere, karrikak zikin eta etxebarneak garbi, oso garbi. Argazkiak erakusten dizkit, argazki mordo bat zabaldu dit matrimonioiko ohearen gainean. Denak ikusi behar ditut.

- Hau duk nire aita, Angolan hila.

Zuria da horratik. Ederra, dotorea, argazki guztietan irri txipi maltzur bat begietan.

- Hau duk nire aitona.

Trigueñoa eta isleñoa, oraindik bizi du, ehun urteko. Atzo egon zen asiloan bisita egiten, hondatua dago. Izebak aipatzen dizkit, izeba eta lehengusina asko erakusten dizkit, beltzaran guti dago Ñengéren familian. Amaren argazkirik ez dago. Denak eraman zituen Miamira. *Butxe* bat ron eskaini dit, emozionatua dago alu hau. Topa egiten dugu.

- Beharretsi eginen haut, kabroi hori!

- Nik hi ere bai, *kúnbila!*

Mahai eder bat erakutsi dit. Ea nik erabiliko nukeen idazteko. Bai, oso egokia da idazteko, zur sendoa, kaoba, zabala mahaia, eta oso ongi zaindua, leuna du gaina, marrarik batere gabe eta godaleten eraztunik ez.

- Ba idazle batek *mejenge* mordo bat eskaini dio mahaiagatik anaiari!

- Idazle batek? Nork?

- Ez zekiat izena, hemen erosi dik etxea orain...

Etxea erakutsi dit irten garenean. Jauregitxo zaharberitu bat da, atzeko patioan taberna ere ba omen duena. Ez, ez dut uste Eliseo Diegorena izanen denik. Poetak ezin du halako etxean bizi, hautsa behar du, iraganaren gaitza, hondamendiaren lekukotasuna.

- Zer zituan kopatxo bete ur haiek gurutze haren inguruan?

- Hura... *Yemayá egiteko* trasteak. Anaiak ere oraintxe *egin zio*k *santua* alabari. Gu fededunak gaituk guztiak.

Ez naiz ba galdetu gabe joanen:

- Hi, Ñengé... hi ez haut ikusi familiako argazkietan.

- Ez.

- Amak eraman zizkian?

- Ez.

Nahikoa galdetu diat, erantzunen didak gogoia baldin baduk edo arrapostu egokiren bat asmatzen baduk. Heldu gara noizbait orain bizi den etxera. Ez dago inor. Bazkaria prestatua dauka, eta izotz egindako Coronita garagardo batzuk atera ditu.

- Hau bai dela benetako jaki *kriolloa*!

Menturaz egia da sukaldari ibilia zela itsasotuan, menturaz egia da Lisboa ezagutzen duela. Dena da menturazkoa hemen, sozialismoa, iraultza, garraioak eta maitasunak... jaki hauek izan ezik: *congrí*, zerriak, papa betea, lekatxoak, banana frijitua, arroza, koko goxokia... Denetarik dastatu behar dut, lehertuko nau Ñengék.

- Bentiladore bat paratu behar nitek hemen, neskalaguna ari zaidak...

Ulertua zegok, *karabela*, *mundela*, *kúnbila*. Barka ezak lehenago ez ulertua, nire errua duk,

Biblioteca Nacionalarenak hainbeste denbora galarazi zidak eta... Ez, atzakiatan ari nauk.

- Panamericanan bazeudek?

- Bai!

- Harrapatuko diagu baten bat zabalik?

- Bai, mugitzen bagaituk bai!

Bi ordu beranduago, J se Martí H b na aireportuan, barre egiten diegu mulatekin despedida infinituetan dauden europarrei.

- Beha ezak, beha ezak!

Amorante aktiboa, besarka eta laztan ari dena, kubatarra da bikote guztietan. B.k ez zidan inoiz honaino lagundu, lotsagatik zela uste izan nuen, edo nire ezagunen batek ikus ez gintzan. Maite ninduen B.k. Segur nago B. batek maitatua izan naizela.

- Zuek abiatutakoan zelatan geldituko nauk, eta segur negarrez dagoen haranzko hura zain gelditzen dela hurrengo hegaldian inor harrapatzen duen... Hau duk Kuba, Goldo!

- Berrehun dolar!

Ez du balio izan Ñengék maletak utzi behar diren plataformari traba eginez zangoa ipini izanak zamaren astunak sobera beherantz ekar ez

zezan. Ez daukat *paparik ere*, Ñengék apaldegi bat egin beharko du, berari utziko baitizkiot liburu guztiak.

- *Konpai*, hori asko duk! Gu bezalako langile bat duk hau!

Kaso egin dio, irriño bat marraztu zaio behintzat eta badirudi... Bai, konpon gaitezkeela ustedut:

- Zama handia da, hamasei kilo gainkarga!

- Ez duk Habana Clubena...

Eta makurtu egin da Ñengé lehertu beharrean dauden kremailerak zabaltzeko, nik liburuak besterik ezin eramanez banitu bezain segur. Besotik heldu dio funtzionarioak, eta kode sakratu baten arau nagusia jakinarazten duenaren seriosotasunarekin esan dio:

- Mesedez! Guk ez dugu zertan miatu behar bidaiarien maletetan!

Lapurretan harrapatu balute bezain azkar kendu du Ñengék atzaparra maleta handiaren giderretik. Bera ere funtzionaria balitz bezain aztoratua.

- Noski, noski... Liburuak direla erakutsi nahi nizun, Kubako liburuak Italian zabaltzeko...

- Ehun dolar.

Gehiago, askoz ere gehiago balio dute liburuok. Protesta egiten didan Ñengéri isiltzeko esanez kartera zabaldu dut. Visa erakutsi diot funtzionariari. Muturra okertu du.

- Trastearen bila noa.

Burutik egin ote zaidan. Ba ote dakidan zer egin behar dudan. Funtzionariak ere ez omen dit kobratu nahi. Funtzionariak ere bizi behar omen dute. Hago isilik, bazetorrek eta. Nire begi aurrean eragiten dio Visa hartzeko eskuko prensa txipiari atzera eta aurrera, arin.

- Ez dabil, blokeatuta dago...

Kakajale bat nauk. Esaiok zer edo zer Ñengé, *kúnbila*, nik ez zeukaat kemenik egin beharrekoa egiteko.

- Eta orduan, *konpai*, nola konponduko diagu hau?

- Hori galdetzen diat nik, irtenbide bat bilatu beharra zegok!

Kartera zabaldu dut ostera. Sei *fula* zorritsu baino ez zaizkidak gelditzen. Egin behar ez nukeen egin beharrekoa egin diat. Bileteei beha gelditu da.

- Arraioa, zu kubatarrak baino miserableagoa zara...

Arrazoa duk, *konpai*. Miserable hutsa nauk, baina oso bestelako arrazoiengatik. Oihuka hasi behar nitek Fidelen galde egiten, datorrela Fidel, entzun diezadala Fidelek, sar zaitzatela Fidelek *giltza galdu zen lekuan* usteldu arte... Hamar dolarreko bat ipini dit Ñengék eskuan.

- Baina... hamar *fula*... Hik nondik...
- Emaiok eta kito!
- Baina... Nola kenduko dizkiat nik hiri...?
- Heuri kendutakoak dituk lehen ere!
- Ez duk egia!

Nire eskutik hartu eta berak eman dio bilettea. Oso nabarmena izan dela iruditu zait niri, baina funtzionariak ez du ezker-eskuin behatzen, eguneroko lana du noski. Bileteak sakelan sartzen dituela haxe esan dik, Ñengéri keinu egin ez:

- Ongi da, atera dezakezu Kubatik *zure Juan de Begoñaren Altxorra!*

Eta alde egin du! Alde egin du altxor bat hamasei dolarretan saltzen duen ergel honek!

- Ondoeza egin zaik?

- Ez... Bai! Hi, entzun duk?

- Bai... Ez duk erraza, *konpai*, ez duk erraza!

- Bazekiat ez dela erraza! Oso zaila duk, galdeio euskaldun bati! Ez haiz konturatzen? Ez duk entzun? Tipo horrek *Juan de Begoñaren Altxorra eman zidak!*

- Esan nian gezurra zela!

- Horregatik! Ez duk ulertzen? Ez zegok Juan de Begoñaren Altxorrik!

- Ez ba!

- Eta tipo horrek *eman egin zidak!*

Ez nauk ulertzen, ezin nauk ulertu, nola arraio ulertuko nauk! Nola ulertu behar duk funtzionari txepel honek arrazoirik handiena eman didala, arrazoirik ederrena eman diola euskaldun *kandanga* bati Kubara ostera itzuli nahi izan ez dezan eta hala ere beti ere itzuli behar izan dezan, jadanik Botanikoan ez dagoen lore beltzaren bila eta ihesi...! Bahaiz, B., edo ez haiz?

Gaztigatu dute Cubanako 472 hegaldikook ontziratzeko. Musu eman dit Ñengék, malko bat isuri zaio, eta bentiladorearen paketea ezkerreko galtzarbera pasatuz eskuinaren bostekoa luzatzen dit.

- Idatziko didak?
- Bai... idatziko haut!
- Lasai hamar *fulengatik*...
- Bidaliko ditiat, lagunen batekin bidaliko ditiat...
- Ez bidali, ekar itzak heuk, *kúnbila!*
- Ez zekiat... Ezin diat... Ez nauk inoiz itzuliko!
- Itzuli behar duk, Goldo!

Hunkitu egin nain alu honek, B. Utzi zidan eskua noizbait.

- Hi... Zuzenean zoak hegazkin hau heure herrira?

- Ez, hau Espainiara zoak.

- Kontuz, kontuz... Hi... Kartzelan sartzen ba-haute, berdin duk Espainian ere, *Oxossi* hartu behar duk santu, kristauen San Alberto, gerlaria eta ehiztaria duk, kartzelako jabea eta pertsekutatuen zaindaria.

- Hiri, asko lagundu zian?

- Ja, ja, ja...! *Txekendenge longorí semó!*

Hemen bertan daukagu hegazkina, oinez doaz bidaiariak. Abiatu naiz. Zin daginat ez naitzela hona inoiz itzuliko, B...

Urduri nago, pilula hartu behar nuen.

- Itzuli behar duk, Goldo! Santiagora joan behar diagu!

Burua jiratu dut. Orratz etzanaren keinua egi-ten dit atzamarrarekin, kilometroen kontadorea geldiarazi zuenean bezala. Irriño triste bat egin diot..

Eta hi, itzuliko haiz?

Heure bila jarraituko dinat, B.

Altxor bat zeukanat hor nonbait, labana hemen barruan bezala. Kuba B.z betea zegon eta ni Juan de Begoña naun, B.

Kuban, azaroa 1994

Euskal Herrian, urtarrila 1995